


Zeintzuk dira etorkizuneko lanpostuak?

Txerra Rodriguez soziolinguistari elkarrizketa



DEBAGOIENDARREN %22,65 ZIZTATU DUTE BEHIN

Eskualdeko populazioaren %9,45 immunizatuta edo immune izateko bidean dago / 2

Bi debagoiendar adineko, erizan batekin, txertoa jasotzeko anean, Debagoieneko Ospitalean, eguaztenean, Arrasaten.

XABIER URZELAI

Maiatzaren 1a, batera aldarrikatuta

Sindikatu nagusiek eta beste alderdi eta eragile batzuek Langileen Egunean aldarrikapenak batera egiteko dei egin dute / 4

Juan Carlos Irizar musikaria gogoan izan dute musikariek eta gertukoek, haren heriotza dela eta / 40

SINADURAK

	OIHANA GARCIA INSAUSTI / 18
	ASIER ELORTZA / 24
	AGURNE BARRUSO / 48

2^{mó}
betaurreko graduatu
erreflexuen aurkako lenteekin

99€

Kontratatuta optikan kanpainaren ezaguerriek.



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
Gipuzkoako optika sarerik handiena


E.P.S. 91/20



KORONABIRUSA


Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



Dagoeneko 20.549 txerto-dosi banatu dituzte Debagoienez

Debagoiendarren %22,65ek hartu dute txertoaren lehenengo dosia, eta, aldiz, %9,45 daude immunizatuta edo horretarako bidean. Bestetik, azken zazpi egunetan gora egin du positibo kopuruak; 296 lagun kutsatu dira

Maialen Santos ARRASATE
Debagoieneko ESItik (Erakunde Sanitario Integratua) azaldu dute txertoen 20.549 dosi banatu dituztela dagoeneko. Jarritako lehen dosiak 14.423 dira, denera, eta dosi bakarria hartuko dutenen kasuan –esaterako, gaitza gainditu dutelako–, 258 lagun ziztatu dituzte orain artean. Hori

horrela, eskualdeko herritarren %22,65 ziztatu dituzte behin. Bigarren dosia hartu dutenak, bestetik, 5.868 dira. Gauzak horrela, debagoiendarren %9,45 daude immunizatuta edota immune izateko bidean. Pfizer, Astrazeneca eta Janssen –joan den astean iritsi zen– txer-toekin lanean ari dira bailaran

eta ohartarazi dute 60 urtetik gorako herritarrak eta arrisku taldeetakoak txertatzen jarraitzen dutela, adin tarteen arabera.

296 kutsatu berri
Azken zazpi egunetan 296 koronabirus kutsatu berri hauteman dituzte eskualdean. Joan den astean, ostera, 266 izan ziren

kasu berriak; azken egunetan baino 30 gutxiago.

Herrikoa, Arrasaten hauteman dituzte COVID-19 kasu gehien (93), eta azken asteetan zerrendaren gorenean izan den Oñati bigarrena izan da azken zazpi egunetan (84). Aipatzekoa da Bergaran gora egin dutela kutsatuek; joan den astean 36 izan

ziren eta astean, 53. Joera bera izan da Elgetan; izan ere, joan den egunetik eguazten honetara hamaika kasu baieztatu dituzte, eta aipatzekoa da herri horretan urtarrilaren 27az geroztik ez zutela kasu berririk.

Azken astean sei pertsona hil dira, gainera, birusaz: bost Arrasaten eta bakarria Eskoriatzan.

Zazpi herritan, neurriak
Bailarako herri guztiek dute azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko 400ndik gorako intzidentzia-tasa, eta, Osasun Sailak astelehenero argitaratzen duen ebazpenari jarraiki, Leintz Gatzagan eta Aramaion izan ezik gainerako herri guztietan daude indarrean neurri murriztaileak. Hain zuzen, azken herri

ARNasa GARA

EGUNEROKOAN ZER?




Arnasa Gara kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen arnaguneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerriak dira arnaguneak. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.


www.arnasagara.eus

martxoaren 22tik maiatzaren 14ra astero bideo bat eta elkarrizketa bat



Baieztatutako positibo metatuak Debagoiengan

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA



horretan asteen deuseztatu dira horiek, azken egunetan positibo gutxi izan direlako –nahiz eta intzidentziak 400dik gorakoa izaten jarraitzen duen–. Bestalde, Antzuolan, Bergaran eta Elgetan asteen sartu dira indarrean neurriak, eta, beraz, itxiera perimetrara, establezimendu barruetako ordutegia eta barruko kirolari dagozkion mugak errespetatu beharko dituzte.

Orotara, 7.265 kutsatu

Pandemia hasi zenetik, 7.265 debagoiendar kutsatu ditu COVID-19ak, eta, ildo horretatik, aipatzekoa da apirilaren 23an 7.000 kutsatuen langa gainditu zela, martxoaren 17an 6.000 kutsatu erregistratu eta 36 egunera. Azken hilabeteetako denborarik laburrena da hori; izan ere, 52 egun behar izan ziren 4.000 kutsatuetatik 5.000ra igartzeko abendu eta urtarril artean; eta, aldiz, 47 egun 5.000tik 6.000ra iristeko –urtariletik martxora–. Urrian eta azaroan, hamabost egunetan izan zen 2.000 kutsatutik 3.000rako saltoa.

Ibarreko tasa, altuena

Azken astean gorabeherak izan ditu Debagoieneko intzidentziasak, eta atzo 867,16an kokatu zen. Gipuzkoan eta Bizkaian gora egin du zertxobait azken astean, nahiz eta azken bi egunetan beheranzko joera hartu

Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	93	79	2.940	133,14
Oñati	84	93	1.275	111,18
Bergara	53	36	1.505	100,09
Aretxabaleta	28	29	730	103,11
Eskoriatza	19	14	366	89,20
Elgeta	11	0	62	54,82
Antzuola	8	7	227	104,18
Aramaio	0	7	151	102,03
Gatzaga	0	1	9	36,00
GUZTIRA	296	266	7.265	112,10

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

duen. Nafarroan eta Araban, azkenik, behera egin du intzidentziak, eta azken lurralde horretan, gainera, 400etik behera jaitsi zen atzo (397,93). Hori horrela, lurraldekoekin alderatuta eskualdeko tasa da altuena. Azkenik, martxoaren 14tik oinarritzko birsorkuntza datua ez da 1etik behera egon EAEn; eta atzo 0,97an zegoen; horren arabera, beraz, pandemia ez da hedatzen ari.

Azkenik, Osakidetzak aste honetan jakinarazi du "premiakoak" ez diren ebakuntzak atzeratu dituztela; izan ere, Gotzone Sagardui sailburuak adierazi du ZIUetako ohe gehienak, %61,9, COVID-19a duten pazientez beteta daudela. Debagoieneko ESItik adierazi dute ospitaleratzea behar ez duten pazienteak eta larrialdiak "lehenetsi" dituztela. Ingresatuta zeuden gaixoak, bestetik, zortzi ziren atzo.



Webgunearen aurkezpena. AITOR MARTINEZ

Lanbide Heziketako eskaintzak batzen dituen webgunea, abian

'Goiaz!' webgune berria aurkeztu dute asteon, eta eskualdeko zazpi zentrokek egin dute bat ekimenarekin


M.S. ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak Foru Aldundiaren laguntzarekin eta Lanbide Heziketako eskualdeko ikastetxeekin elkarlanean sortu du *Goiaz!* atari berria. Lanbide Heziketako eskualdeko zazpi ikastetxeen informazioa aurkitu daiteke bertan, hala nola Lanbide Heziketa nola antolatu dagoen, ibilbide profesionalei buruzko informazioa, edota zeintzuk diren Lanbide Heziketan sartzeko baldintzak.

Atari berriaren sortzaileek Lanbide Heziketaren eskaintza

"oso aberatsa" dela azpimarratu dute, eta azaldu, Debagoieneko zazpi ikastetxeetan 1.500 ikaslelik gora daudela. Aitor Guridik, Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketako arduradunak, formakuntza zikloak hobeto ezaizteza falta dela adierazi du.

Aurtengo eskaintza ezagutzeko zentro bakoitzak antolatutako ate irekien jardunaldietan parte hartu ahal izango da, eta, gehienak presentzialak izango diren arren, batzuk online egingo dituzte. *Goiaz!* webgunean eskura daiteke informazioa.



2021ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiako Batzar Orokorera deitzen da. Batzara Aretxabaletan, Copreci kalean, Basabe Poligonoko C1 eta C2 pabiloietan egingo da 2021eko maiatzaren 7an, 09:15ean lehen dela eta, kasua balitz, bigarrenean 09:30ean, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

GAI ZERRENDA

1. Aktak onartzeari buruzko txostena eta akordioa
2. Memoria irakurtzea eta onartzea
 - 2.1. 2020ko Gestioari buruzko akordioa
 - 2.2. 2021-2024 Plan Estrategikoaren politika eta estrategiak onartzea
 - 2.3. 2021eko Gestio Plana onartzea
3. 2020ko Memoria ez-finantzarioa
4. 2020ko Urteko Kontuen azterketa
5. 2020ko Eraitzen banaketa
6. Erregimen ekonomikoari buruzko estatutu xedapenak
7. Fagor S.Coop.en Estatutu Sozialen aldaketak
8. Copreci S.Coop.en Estatutu Sozialen aldaketak
9. Copreci S.Coop.en Estatutu Sozialen 53. artikulua eta Taldeko 3/2016 Eraitzen Banaketarako Arauaren aldaketa
10. Copreci S.Coop.en Barne Erregelamenduko 56 eta 72. artikulua eta 2/2013 Plusen Tarifaren Arauaren aldaketa
11. Copreci S.Coop.en Barne Erregelamenduko 58, 59, 73 eta 74. artikulua aldaketa
12. Osagaien Dibisioa eta Fagor Taldeari buruzko txostenak
13. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak
14. Kontseilu Errektorea berritzea
15. Kontseilu Soziala berritzea
16. Fagor S.Coop.eko Batzar Orokorerako ordezkariak hautatzea.
17. Galderak eta eskaerak

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Aretxabaleta, 2021eko apirilaren 22an



Herritar bat Arrasaten, Maiatzaren Lehenerako aldarriak prest dituzten sindikatuen kartelak atzean dituela. M.A./A.A.

Ezohiko egoeran bada ere, langileen eskubideen alde borrokatzeko deia

"Lan, bizitza eta pentsio duinak" aldarrikatuz "Maiatzaren 1 bateratua" egiteko dei egin dute bailarako hainbat sindikatu, talde eta eragilek, 20:00etan Bergarako plazatik abiatuta. Kontseilu Sozialistak 18:30ean egingo du manifestazioa herrian

Jone Olabarria ARRASATE

Iazkoan baino aukera zabala-goarekin bada ere, ezohikoak izango dira 2021ean Maiatzaren Leheneko aldarrikapen eta mobilizazioak. COVID-19a dela eta ezarritako mugikortasun arauak guztiz baldintzatutako deialdia izango da aurtengoa. Sindikatuek eta eragileek mobilizazioak "segurtasun neurriak bermatuz" egingo direla behin eta berriz errepikatu arren, azken unera arte "ezjakintasuna" nagusi izango dela aurreikusten dute.

Hiriburuak, kolokan

Aldaketa garaia da lelopean, ELAk lehen aldiz Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan deitu ditu Maiatzaren Leheneko manifestazioak. ESK sindikatuak ere lau hiriburuetan egin ditu deialdiak, *Eskubideak jokoan ditugu* leloarekin. LABek Gas-

teizen, Bilbon eta Donostian ditu aurreikusitako mobilizazioak. Baita UGTk eta CCOO, *Langile klaseari zor diogu* lelopean.

Eusko Jaurlaritzatik, ordea, "itxiera perimetralaren baldintzak bermatzeko" eskaria jaso dute sindikatuek asteon, Ertzaintzaren bidez.

Sindikatuak, aldiz, "lanera joateko itxitako herrietatik atara daitekeen bezala, Maiatzaren Lehenekoa bezalako jardueretara joateko eskubidea bermatuta" egon beharko litzatekeela salatu dute, "pertsonek manifestazio-eskubidea bermatuz".

"LANERA JOATEKO HERRIETATIK IRTEN DAITEKE, ETA HALAKO JARDUERAK BERMATU EGIN BEHAR DIRA"


Guztiak bat etorri dira, eta jakinarazi dute deialdietan beharrezkoak diren segurtasun neurriak bermatuko direla, hala nola maskaren erabilera eta pertsonen arteko distantzia.

Bailaran, deialdi bateratua

Hiriburuetara joateko zailtasunak eta mugikortasunean mugak direla eta, eskualde mailako mobilizazio bateratuak antolatu dituzte Debagoienean ere. Maiatzaren Lehena aldarrikatzeko asmotan, hainbat ekintza daude deituta zapatarako Bergaran. Bi izango dira bihar herriko kaleak aldarrikatzeko manifestazioak; 18:30erako deitu du Debagoieneko Kontseilu Sozialistak manifestazioa, *Klase gorrotoa antolatu* lelopean. 20:00etan egingo dute, aldiz, hainbat eragile eta sindikaturen "deialdi bateratua".

Mitxel Lakuntza, 'Harira' saioan

ELA sindikatuko idazkari nagusi Mitxel Lakuntza izan da *Harira* saioan asteon. ELAko idazkari nagusi izendatu zutela bi urte beteko dira laster. Maiatzaren Lehenaren atarian, azken unera arte ezjakintasuna nagusi izango dela aurreikusten duten arren, ospatuko dutela baieztatu du ELAko idazkari nagusiak: "Hemen funtsezko eskubide batez ari gara. Jendea egunero ateratzen da lan egiteko".



Lakuntza, Goienako platoon. E.A.

Gogorarazi du ELAK ekitaldi laburrak proposatzen dituela, segurtasun neurri guztiekin, kalean egitekoak, distantzia gordeta eta maskarekin: "Hor argi dago ez dagoela beste tokietan dagoen arriskurik". Ertzaintzatik iritsi den eta hiriburuetara herritarren mugikortasuna debekatzen duen oharra dela eta, helegitea aurkeztuko dutela bai, baina erantzuna erabaki politiko baten menpekoa izango dela uste dute: "Erabaki horren atzean erabaki politiko bat dago, Gobernuak hartu duena, Eusko Jaurlaritzak. Berez, Eusko Jaurlaritzari dagokio hemen esatea zergatik gauza batzuetarako uzten den eta beste batzuk ez".

Aldaketa garaia da leloa aukeratzearren arrazoia azaldu du: "Pentsatu beharra dago krisi humanitario honetatik aterako garela, baina ondorioak egongo direla: jendearen lan-baldintzak, pentsioak... Hori guztiori da orain jokoan dagoena. Batzuek diote, besteak beste, lehendakariak, ezin direla pandemia erdian erabakiak hartu. Guk kontrakoa esaten dugu, orain da garaia".

"Duintasuna" aldarrikatuz

"Lan, bizitza eta pentsio duinak" aldarrikatuz "Maiatzaren 1 bateratua" egiteko dei egin dute herriko hainbat talde eta eragilek. San Martin plazatik abiatuko da manifestazioa, 20:00etan. Besteak beste, honako hauek dira deialdi horrekin bat egin duten sindikatu eta eragileak: LAB, ESK, ELA, Martxanterak, Pensiadunak, Ernai, Ikama, Neska gazteak, Gure Artera, Xaxau konpartsa, tabernari eta ostalariak...

Mugikortasunerako ziurtagiria

Bailaran aurreikusitako manifestazioetan parte hartu, herri arteko mugikortasuna bermatu eta herritarrek Maiatzaren Leheneko aldarrikapenekin bat egin ahal izateko ziurtagiriak prest dituztela azaldu dute sindikatuetako ordezkariak, eta, nahi izanez gero, sindikatuetara jo

"LANGILE KLASEA MISERIARA KONDENATZEN DUEN SISTEMA KAPITALISTA GAINDITU BEHAR DA"

edo Internet bidez eskura daitezkeela jakinarazi dute.

Gaur, hitzaldia Bergaran

Era berean, gaurko, egubakoitza, hitzaldia deitu dute LABek eta Ernaik, 18:00etan, kartzela zaharrean. *Tubacex borrokan!* izenpean, Aiaraldeko Ernaiko Mad-di Isasik eta Ixone Retesek, Tubacexeko LABeko delegatuak, eskainiko dute hitzaldia.

Kontseilu Sozialistaren deialdia

Kontseilu Sozialista Deba Bailarako Maiatzaren Leheneko manifestazioa deitu du, 18:30ean Bergarako San Martin plazatik abiatuta. *Klase gorrotoa antolatu* lelopean egingo dute, eta Maiatzaren lehen mobilizatzeko arrazoiak ugariak direla zehaztu dute: "Gaur egun bizi dugun testuinguruan areagotutako kontrol soziala salatu, langile klasea miseriara kondenatzen duen sistema kapitalista gaindituko duen antolakuntza aldarrikatu, edota maiatzaren lehena borroka eguna dela aldarrikatzea".

Manifestazioan parte hartu eta deialdiarekin bat egiteko mezua zabaldu nahi izan dute.

EKINTZAILTZETA GARAIA



Hirugarren aldiz hartuko du Garaia Parke Teknologikoak hitzaldi sorta. G.P.T.

'Pertsonen berrikuntza hilabetea' bueltan da bere hirugarren aldian

Diziplina askotariko profesionalak tresnak, hausnarketak eta irtenbide praktikoak eskainiko dituzte, hitzaldi bidez

J.O. ARRASATE

2019az geroztik urtero bezala, Garaia Parke Teknologikoa "pertsonen berrikuntzarako topagune" bilakatuko da maiatzean zehar. Hainbat diziplinatariko profesionalak tresnak, hausnarketak eta irtenbide praktikoak proposatuko dituzte antolatutako hainbat hitzaldi eta saioren bitartez: "Erakundeek pertsonen kudeaketaren, talentuaren, adimen emozionalaren eta lidergoaren inguruan ditugun egoerarako tresnak izango dira".

Berrikuntzen atzean, pertsonak

"Gaur egungo ingurune ziurgabe eta aldakorra geratzeko etorri da, eta horrek erronka garrantzitsuak dakartza erakundeendako, eta, batez ere, pertsonendako", azaldu dute Garaiaiko ordezkariak. Garaiotan hainbat erakundetan garatzen ari diren irtenbide zientifiko eta teknologiko guztien atzean pertsonak daudela gogorarazi dute, "beren talentua aplikatzen eta soluzioak aurkitzen".

Lan egiteko eta lankidetzan aritzeko moduak aldatu egin direla azaldu dute, baita premiak eta gabeziak ere: "Arreta jarri behar dugu behar bezala prestatzeko. Orain, ezinbestekotzat jotzen dugu pertsonen kudeaketaren profesionalak eskaini diezaguketinari arreta jartzea".

Saio bereziak asteartero

Maiatzeko asteartean, pertsonen eta erakundearen talentuaren kudeaketari, adimen emoziona-

lari eta eraldaketa kulturalari lotutako jardunaldiak eta tailerak egingo dituzte, 09:00etan.

WeBring-eko kide Amaia Munnuerak parte hartuko du, lehenik, jardunaldian, hilaren 4an. *Nola erakarki talentua eta ez hil saiakeran. Deskubritu nola bultzatu zure employer brandinga* saioa eskainiko du.

Izen ematea zabalik dago

Maiatzaren 11n, Equiliakoko bazkide fundatzaile Judith Castilloren *Nola gidatu balio partekatuek bultzatutako erakundeak?* saioa izango da. Era berean, Alaitz Osa eta Romu Artechek Kruce enpresaren fundatzaileek lider orok kontuan izan behar dituen *Lidergo transformazionalaren 5 ardatzak* planteatutako dituzte hilaren 18an: "Ezpatizatzea, inspiratzea, eragitea, haztea eta eraldatzea".

Pertsonen berrikuntzaren hilabetea amaitzeko, Zuriñe Altubek *Adimen emozionala, talentua garatzeko giltzarria* tailerra emango du, egungo lan ingurunean talentua indartzeak duen garrantziaz hitz egiteko.

Jardunaldietan parte hartu ahal izateko, izena online eman beharko da, www.ptgaraia.eus webgunean.

"EGUNGO INGURUNE ALDAKORRAK ERRONKA GARRANTZITSUAK DAKARTZA"

Banketxeen jarduna salatu dute Debagoieneko pentsiodunek

Oraingo asteko asteleheneko mobilizazioak bereziak izan dira; izan ere, bankuekiko desadostasuna agertu dute

J.O. ARRASATE

Aste honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan eta 65 herritan egin dituzte protestak pentsiodunek; tartean, Bergaran, Antzuolan eta Arrasaten. Pentsiodunek salatzen

duenez, besteak beste, arreta presentziala jasotzeko arazoak dituzte, eta horrek zailtasunak dakartza adineko jendearentzat, baita komisio gehiago ordaindu beharra ere. Banketxeek herrietan gero eta bulego gutxiago

izatearen ondorioak ere salatu zituzten: "Auzoetako bulego guztiak kendu dituzte, erdigunera joatera behartuz adineko pertsona asko".

Egoerari buelta emateko aurrez aurreko arreta indartzea aldarrikatzen dute pentsiodunek: "Sentsibleagoak izatea, ilarak ezabatzea eta presentzialki atenditzea, baina komisiorik kobratu gabe zerbitzu horregatik". Horrez gain, eskariak gutunetan jaso eta herriko banketxeetako arduradunei eman zizkieten.



Gure ikasleen ahotsan



"Asko gustatzen zait Mondragon Unibertsitatearen metodologia, ikasleen jarduera praktikoei garrantzi handia ematen baitie"

Aloña Salegi Alkorta (Itziar, 18 urte) Sukaldaritza Artearen graduko lehen maila ikasten ari da, Mondragon Unibertsitateko Basque Culinary Centerren.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?

Itziartik Debara joaten gara eskolara, eta bertan ikasi nuen, batxilergora arte; azken hori Elgoibarren egin nuen. Arraunlaria izan nintzen, baina, lesio bat tarteko, albo batera utzi behar izan nuen. Nire denbora libre lagunekin, bikotekidearekin eta sukaldean pasatzen dut.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomía eta Sukaldaritza Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Urteak neramatzen zer ikasi pentsatzen, eta erabakia hartzeko momentua heldu zitzaidanean nahiko garbi izan nuen gastronomiaren mundura sartu nahi nuela. Zalantzak izan nituen, goi-mailako ziklo bat egin edo unibertsitateara sartu, baina gurasoek

unibertsitateara sartzera animatu ninduten. Gainera, Mondragon Unibertsitatearen metodologiaz hitz egin ziguten eskolan, eta asko gustatu zitzaidan, irakaskuntza tradizionala albo batera utziz ikasleen jarduera praktikoei garrantzi handia ematen baitie.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Esperientzia bikaina da. Banekien mundu hau gustuko nuela, baina aurrean, are eta gehiago.

Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerren jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Oso ona eta eramangarria da. Taldeetan banatzen gaituzte; bi astez, gutxi gorabehera, arlo teorikoa lantzen dugu, eta beste bi astez tailer praktikokoak. Oso metodologia egokia da, tailerrek benetako jate

batean lan egitea bezalakoak dira, esperientzia erreal bat bezala definituko nuke.

Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta ezer hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana da asko dakiten irakasleak ditugula. Hobetzeko, eta tailerrek guztiz onak izateko, produktu gehiago landu eta ezagutzeko aukera izatea izango litzateke.

Zer-nolako ekarpena egiten dizu praktikak egiteak?

Munduarekiko duzun ikuspuntua zabaltzea, ezagutzak areagotzea eta benetako jate batean egunerokotasunean bizi ohi diren egoerak bizitzea. Horrez gain, gaur egun gehien erabiltzen diren sukaldaritza teknikak praktikan jartzeko aukera izaten dugu. Gaur egun, nire ideia sukaldaria izatea da, baina ez diot ezeri aterik ixten.

Agur, Juan Karlos. Bidaia on, eta egun handira arte!

LOLI ORDOKI, XABIER UGARTE ETA JESUS MARI ARAMBURU

OÑATI

Apirilaren 22an, Juan Karlos Irizar musikagilea, laguna, joan zaigu. Doluminak etxekoei.

1982ko neguan, abesbatzan Aita Madinaren *Arantzazu* entseatzan ari ginen, Udalarren laguntzaz disko bat grabatu behar genuelako, Juan Karlosen zuzendaritzapean, eta Bartzelonan, Orquesta Ciutat de Barcelonarekin. Imanol Muruak zuen abesbatzaren ardura. Oñatiko eta Elgoibarko parrokiatako kideek gertatu genuen lana. Bakarkako lanak, Loli Ordokik, Imanol Muruak eta Elgoibarko Angelo Iriondok. Apirilean abiatu ginen Bartzelonara. Ordurako, Juan Karlosek orkestra harekin hitzartu eta grabatua zuen lan osoa; kantariok atzetik grabatu behar genituen ahotsak. Gero, grabaketa-etxeko teknikariak Juan Karlosekin nahasketak egin, eta dena gertu utzi zuten. Imanol arduratu zen diskoaren testuarekin. Ekainaren 1ean Oñatiko Unibertsitatean aurkeztu genuen. Mahaian, Eli Galdos, Arana Martija, Iñaki Zumalde, Imanol Murua eta Juan Karlos Irizar.

Hau dena gogoan genuela pentsatu genuen: ze adore zeukan mutil hark! Bartzelonara joan, orkestra kontratatu, *particella*-k banatu,

entseguak egin eta grabatu, eta, ondoren, abesbatzak eramanean, orkestraren gainean ahotsak ipini eta diskoa duina argitaratu.

Juan Karlosek zuzenduta egin genuen lana eta ateratako produktua oso duina izan zen.

Gero, *Donosti romántico* etorri zen. Jesus Marik lagundu zion baxuarekin eta Xabierrek gitarra klasikoarekin diskoa grabatzen. Handik aurrera, Juan Karlosek bide hau aukeratu zuen bizitzeko. Musika erromantikoa, melodia gozokoa. Hortxe sentitzen zen gustura, eta 30 disko baino gehiago egin zituen. Baita umeendako egindako musikak, partiturak, bandak eta abesbatzak zuzentzen emandako urteak, eta Aita Mennin eta Oñatiko Erresidentzian musika terapia moduan erakusten emandako urteak.

Lagunak egiten zekien, eskuzabala zen, sinpatikoa, dena ematen zuena. Berarekin bizitako garaiak gomutan esan genuen: agur, Juan Karlos. Bidaia on, eta egun handira arte!

Maiatzaren 8an, Udalatxera eta Kurtzetxikira

ENRIKE LETONA

ARRASATEKO SAREREN IZENEAN
ARRASATE

Sarek urriaren 3an 650 tontor egitea proposatu zuen. Arrasateko Sarek bi tontor aukeratu zituen: Udalatx eta Kurtzetxiki.

Ekintza bertan behera gelditu zen une hartan, eguraldi txarrarengatik, baina garbi utziz aurrerago egingo genuela, eta data ere jarri genuen, maiatzaren 8a. Hurbiltzen ari da eguna eta motorrak martxan jarri behar ditugu.

Arrasaten Udalatxera joateko Aita Menni ospitaletik irtengo gara. Zergatik? Bada, Kepa Arronategi euskal preso dagoelako bertan eta ekintza xume honekin aldarrikatu nahi dugulako Kepak ez duela Aita Menni ospitalean egon behar, etxean baizik. Legeak dio preso gaixoei etxean egon behar dutela; bete dezatela, beraz, hainbeste aipatzen duten legea eta utz dezatela Kepa etxekoekin aske.

Gero eta preso gehiago dago Euskal Herritik gertu, eta gutxi batzuk bertan ere bai. Arrasateko preso bakarra, Unai, Leonera ekarri dute. Unai 31 urte daramatza espetxean eta zigorra beteta du. Kanean egoteko baldintza guztiak betetzen ditu. Bigarren gradu sailkatu dute, eta irteteko baimenak ere izan beharko lituzke. Ea, ba, hori laster ikusteko aukera dugun.

Madrildik behera asko dira oraindik. Legea betetzea besterik ez dugu eskatzen; lehenik, ekar ditzatela Euskal Herrira, eta ondoren, aske utzi. Gaur egun, ez dago inolako arrazoirik pertsona horiek espetxean egoteko; izan ere, mendekua eta gorrotoa ez dira arrazoi. ETA amaitu zen, eta, pertsona horiek objektiboki aztertuta, legeak azpimarratzen

duen bezala, ez dakarte inolako arriskurik gizartearentzat; alderantziz, bizikidetzarako ezinbestekoak dira kanean.

Maiatzaren 8an mendi tontor bat egiteko arrazoi batzuk aipatu ditugu, baina ehunka arrazoi daude; presoak adina arrazoi. Legea betetzeko borondatea baduzue, ekarri preso guztiak Euskal Herrira, atera kalera gaixoak, hiru laurdenak bete dituztenak, hasi baimenak ematen eta baldintzapeko askatasunak aplikatu.

Denon artean lortuko dugu; ezin gara etxean geratu. Etorri gurekin Udalatxera edo Kurtzetxikira. Izan bidea presoen kaleratzea lortzeko!

Gerrako umeak

IRAITZ LAZKANO

ELGETAKO ALKATEA

ELGETA

Apirilaren 24an, Debagoieneko gerrako umeak omendu genituen. Egun berean, 84 urte bete ziren frankistak Elgetan sartu zirela, zazpi hilabeteko erresistentziaren ondoren. Izan ere, apirilaren 23an Elorrion sartzea lortu zuten, eta, Intxortako frontea hausterik lortu ez bazuten ere, atzetik eraso egiten zietela ikusita erretiratu beharrean izan ziren gudariak.

1937ko apirilaren 24a eta 25a Elgetako historiaren liburuko orri beltzenetakoak izan ziren. Ugari izan ziren bortxaketak, lapurretak eta erailketak. Oraindik epaitu gabe dauden gizateriaren kontrako krimenak. Hurrengo 40

urteetan, gainera, diktadura, zapalkuntza, isiltasuna eta ahanztura izan ziren nagusi. Diktadorearen heriotzak ere ez zuen justiziarik ekarri.

Gerratik eta frankismoaren basakeriatik alde egin nahian Elgeta utzi zuten asko izan ziren. Familiartekoen etxeetara, fronteko lerrotik urrun, baita atzerrira ere. Historia pertsonal horietan guztietan haurrek bizi izandakoak ekarri nahi izan genituen gogora. Gehiago izan daitezkeen arren, bi dira Intxorta kultur elkarteak identifikatu dituen Elgetako gerrako haurrak: Jose Luis Arantzeta eta Pilar Gorrotxategi.

Apirilaren 24a. 96 urte beteko zituen omendu genuen egunean bertan Jose Luis Arantzeta Arregik. Omenaldi xume baina hunkigarria izan zion bere herriak. Lastima, lehenago egin ez izana.

Azkenaldian bolo-bolo ibili da *mena* –lagundu gabeko atzerriko haur– hitza. Espainian hauteskunde kanpainako kartel bilakatu dute batzuek, Euskal Herrian mena izandako batek bere buruaz beste egin duela esan dute beste batzuek.

Ez al ziren bada gure aiton-amonak ere mena izan? Ez al zioten gerratik eta txirotasunetik ihesi beste herrialde batzuetan beraien bizitzari berrekin behar izan?

Balio beza Elgetako 1936 eta 1937ko gudako haurrei egin genien omenaldiak gaur egungo erbesteratutako haurrei ere aitortza egiteko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





ZABALIK

JOXEMARI MUXIKA ARRIETA

Estatu gabe garapena?

Kanpotarren agindupean bizi gara, gure Euskal Estatua ez dago onartua –Baskonia, Nafarroa edo Euskal Herria-. Menperatzen gaituzten legeak ez dira gure beharretarako eginak, kolonizatua gauzkatzen Frantziaren edo Espainiaren interesak zaintzeko ezarriak baizik.

Mendeak daramatzagu bi estatu –inperio– horien menpe, eta, estaturik ez duten beste herriei gertatu ohi zaien bezala, gure komunitatearen hizkuntza, kultura, historia eta ekonomia propioa garatzeko ezinean gabilta.

Euskaldunak trinkotu eta gure herri ikuspegi berezia garatzeko, ez daukagu beharrezko den estatua. Israeldarrei, adibidez, 1947an onartu zieten beraien estatua, eta begira nola garatu eta finkatu dituzten euren hizkuntza eta nortasuna ekonomiarekin batera.

GELDI EGON EZ, BEHINTZAT; ZAILA BADA ERE, JOKA DEZAGUN ESTATUA BAGENU BEZALA

Zer egin estatu propioarekiko dependentsia honekin? Geldi egon ez, behintzat; zaila bada ere, joka dezagun estatua bagenu bezala.


Estatu propio garatu bat genukeen ikuspegitik abiatuz herritarrak batu eta herri bezala iraun eta indartzeko bitartekoak eraikitzen jarraitu behar dugu. Dinamika hauek elkarri lagunduz herritarrak indarrak pilotzen eta biderkatzen lagunduko lukete. Estatu ikuspegi honetara bildu ditzagun orain arteko ekimenak: AEK, Laborantza Ganbera, ikastolak, kooperatiba industrialak, kirol elkarteak...

Garatu ditzagun gizarte balioak, arauak eta instituzioak geure estatu propioaren ikuspegitik: hezkuntza bidez transmitituz, arlo sozioekonomikoan komunikazio hizkuntza euskara ezarri, euskararen ezagutza unibertsalizatuz eta, bitartean, itzulpen eta interpretetza sistemak garatuz, hedabideak informazioa eta ikuspegia zabaltzeko indartzuz –bai paperezkoak eta bai digitalak–, aisialdirako bitartekoak garatuz...

Ez dezagun ahaztu euskaraz jakitea eta erabilera bultzatzea ez dela nahikoa, beharrezkoa da erabiltzeko aukerak ezartzea.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Herri batean bizi naizenetik

JUNE FERNANDEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Herri txiki batean bizi naizenetik, kalean eskelak begiratzeko gelditzen naiz eta parkean beste gurasoei galdetzen diet ea haien umeak nire alabaren kintoak diren.

Herri txiki batean bizi naizenetik, kontuan hartu behar dut bankuak astean bi egunetan baino ez duela arreta ematen; Korreosek egunean ordubete baino ez duela zabaltzen; fruta saltzen duen kamioia astelehenetan datorrela eta ambulatorioa defendatzen ez badugu, kenduko digutela. [...]

Herri batean bizi naizenetik konturatu naiz Bizkaibuseko prezio politika bidegabea dela, isolamendua eta autoarekiko dependentsia indartzen dituela. Larrabetzuren kasuan, ulergaitza da 2 zonan dauden Galdakao eta Lezama herrien artean kokatuta egon arren, 3 zona esleitu izana.

Larrabetzun bizi naizenetik, Bilbora noanean benetan kontziente naiz lehen errotuta nuen gaztelaniaren hegemoniaz. Orain ulertu dut *arnasgune* kontzeptua. [...]

Landa eremuan bizi naizenetik konturatu naiz hiritarrek erabakitzen dituztela politika publikoak. Zentzugabea dela Sestaoko

biztanleek eta Karrantzakoek pandemia garaian murrizketa neurri berberak bete beharra. [...]

Larrabetzura heldu eta gutxira, landa-despopulazioari buruzko artikulu batean irakurri nuen *zolatutako pentsamoldeak (mentalidades pavimentadas)* esamoldea. Naturan bizi nahi duten hiritarrak definitzeko darabil Julen Rekondo ingurumen adituak. Lotsatu ninduen ni hori izateak.

Bada, urtebete ondoren, beldur hori baretu da. Herrikoa sentitzen naiz, oraindik ere herrikoa izaten ikasten banabil ere. Azala aldatzea ederra da.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailtetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Jakiak ondo mantentzeko polimeroak garatzen ditut"

AINARA SANGRONIZ POLIMEROETAN ADITUA DEN KIMIKARIA

Hasier Larrea ELGETA

Doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikulu onenaren saria eskuratu du elgetarrak, asteen, CAF-Elhuyarrek antolatutako sariketan, *Polimero jasagarrien garapena elikagaien ontziratzerako* artikuluarekin. **Hasteko, zer dira polimeroak?**

Material makromolekularrak dira. Polimeroen barruan sartzen dira ontziratzean erabiltzen diren plastikoak eta plastiko-poltsak, esaterako. Pneumatikoak egiteko erabiltzen diren kautxuak ere polimeroak dira. **Zertan datza zure lana?**

Ontziratzen diren elikagaien kalitatea eta segurtasuna hobeto mantentzeko egiten dut lan. Elikagaiak ondo babestuta ez badaude, mikroorganismoak sortzen dira elikagaietan; esaterako, koipeak oxidatu egiten dira, eta jakiaren zaporea kaltetu. Nire lantaldean bi estrategia lantzen ditugu: alde batetik, polimero biodegradagarrien



Ainara Sangroniz. AINARA SANGRONIZ

erabilera, eta, bestetik, kimikoki birziklagarriak diren polimeroen erabilera. **Ze desberdintasun dago bien artean?**

Biodegradagarriak dira baldintza egokietan

biomasarekin, urarekin eta halako substantziekin degradatzen direnak. Horiekin ez dira hondakinak sortzen, baina arazoa da ez direla merkaturatzeko egokiak, kanpoko gasei pasatzen uzten

dietenez elikagaiak hondatzen direlako. Gainera, oso hauskorak dira. Bestalde, kimikoki birziklagarriak diren polimeroak, behin erabilia, hasierako materiala berreskuratzeraino berrerabili daitezke, berriz sintetizatzea ahalbidetuz.

Ze hobekuntza txertatu dituzue bi estrategiek?

Polimero biodegradagarrien kasuan, horien propietateak hobetzeko beste material batekin nahasten ditugu. Aldi berean degradazio abiadura mantentzen dutenez, posible da merkaturatzeko erabiltzea. Kimikoki birziklagarriak diren plastikoaren abantaila da, mekanikoki birziklagarriak diren plastikoekin gertatzen ez den bezala, behin eta berriz erabili daitezkeela. Orain arte, mekanikoki birziklagarriak diren polimeroak erabili dituzte kimikariek elikagaiak ontziratzeako orduan, baina, birziklatze prozesuan tenperatura altuak erabiltzen direnez, materiala hondatu egiten da, eta behin eta berriz erabiltzea eragozten du.

Kimikoki birziklagarriak diren polimeroak ezagunak ziren. Zergatik ez dira elikagaien ontziratzean erabiltzen?

Ez direlako aplikazioetarako bideratu. Guk diseinu polimero bat garatu dugu,

materialen propietateak modu egokian tratatuz. Lortu dugu erakustea posible dela kimikoki birziklagarria den plastikoa ontziratzerako erabiltzea.

Espero zenuen CAF-Elhuyar saria jasotzea?

Ez. Plastikoek nahiko fama txarra baitute gaur egun, ingurunean sortzen duten kalteagatik, batez ere. Egia da plastikoak arazo larriak sortzen dituela ingurumenean, hondakinen kudeaketa desegokiagatik, baina beharrezkoak dira elikagaien segurtasuna eta kalitatea bermatzeko.

Gainera, zure ahizpa bikiari eman zioten sari berbera iaz.

Bai. Batera ikasi dugu Kimika, eta biok espezializatu gara polimeroetan. Diferentzia da bera aplikazio orokorretan dabilela lanean eta ni, berriz, ontziratzean.

Sari banaketara ez zinen agertu, eta beste pertsona batek jaso zuen zure orde.

Coloradon bainago! Tesia egiten ari nintzela egonaldi bat egin nuen bertan; oso gustura egon nintzen eta tesia amaituta gero berriz itzuli nintzen, apirilaren 1ean. Coloradoko Unibertsitate Estatalean nabil lanean orain. Aurretik EHU eta Polimat Institutuan aritu naiz.

ITURRI ONETIK

UDAK 75. urteurrena ospatuko du

Aretxabaletako futbol elkarteak, UDAk, 75 urte beteko ditu irailean, eta hainbat ekimenekin ospatuko du 2021-2022 denboraldian. 50 urte bete zituztenean, liburu dotorea argitaratu zuten, klubaren historia testu eta argazki bidez jasota. Oraingoan, besteak beste, ikus-entzunezkoa egin nahi dute, hitzaldiak eta mahai-inguruak, goi mailako futbol taldeen aurkako partidua... Leixargarateko aterpetxeak 50 urte beteko ditu aurtengo irailean, eta hari ere keinu egin nahiko liokete.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-04-24

Alkatearen aurkako zentsura mozioak, porrot

ETAk Isaias Carrasco erail ostean, handik hilabete eta erdira Arrasateko alkate Ino Galparsororen aurka EAJK eta PSE-EEk aurkeztutako zentsura mozioak porrot egin zuen, alderdi horiek bakarrik bozkatu zutelako alde. Beste lau mozio aurkeztu ziren eta horiek ere ez ziren aurrera atera. Tentsio handiko ezohiko osoko bilkuran, hainbat agintari sozialista izan ziren udaletxean: Ernesto Gasco, Rodolfo Ares, Jesus Eguiguren, Barbara Dührkop...



HAU BE BADOGU!

Gernikako bonbardaketa gogoan

Astlehenean, apirilaren 26an, faxistek Gernika bonbardatu zuteneko 84. urteurrena izan zen:

@etxebarre: "1937ko apirilaren 26an, Alemania naziko eta Italia faxistako 57 gerla-hegazkinek Gernika bonbardatu zuten. Ez ahazterik, ez parkatzerik".

@goraxaho: "Gure historiaren une lagarri bat. Gernika. Ahaztu ezin dena".

@i_zelaia: "Gure amona Gernikako bonbardaketan izan zen 3 urte zituela. Oraindik gogoan ditu egun hartako sugarrak".

@begigorri: "Memoria. Duintasuna. Mina. #Gernika".

Herri barruan, gehienez, 30 kilometro orduko

Astelehenean, trafiko seinaleak aldatzen eta radarrak eguneratzen hasiko dira udal langileak. Izan ere, maiatzaren 10etik aurrera, 30 kilometro ordukoa izango da herri barruko gehienezko abiadura, hainbat tokitan salbuespen batzuk egongo diren arren

Eneko Azurmendi ARRASATE

Udaltzaingoak 2021ko lehen hiruhilekoan egindako esku-hartzeen berri eman dute asteon Maria Ubarretxena alkateak eta Zigor Andino udaltzainburuak, eta zirkulazioan egongo diren aldaketak aipatu dituzte. Hala, herri barruan ezingo da 30 kilometro orduko abiadura gainditu maiatzaren 10etik aurrera, salbuespenak egongo diren arren. Izan ere, Araba etorbidean eta Arrasate pasealekuan 20 kilometro ordukoa izango da gehienezko abiadura, plataforma bakarria delako, eta Aretxabaletarako irteerako zuzenean, *Meka* izenez ezagunagoa denean, 40 kilometro ordukoa izango da abiadura maximoa.



Nafarroa etorbideko radarra, eta auto bi errepidean. ENEKO AZURMENDI

1.500 esku-hartzetik gora

Udaltzaingoak 1.500 interbentzio baino gehiago egin ditu 2021eko lehen hiruhilekoan, eta horietatik 435 izan dira koronabirusarekin lotutakoak. Pandemiaren aparte egindako 1.111 esku-hartzeetatik 55 salaketa jaso dituzte, horietatik 52 ondare ebazpenak edo ebazpen sozioekonomikoak: zortzi, ebasketagatik; hemeretzi, jabetza publiko edo pribatuaren eginiko kalteengatik -fatxadak, leihoak, autoetako ispiluak...-; hamabost, iruzurragatik; eta lau, alkohola eta drogak kontsumituz gidatzeagatik.

COVID-19aren alorrean egindako 435 esku-hartzeetatik, gehienak kontrolak egitea eta pandemia kontrolatzeko ematen zaizkien bestelako lanak izan direla adierazi du udaltzainburuak. "Horiez gain, 178 zehapen proposamen aurkeztu ditugu, gehienak maskara gabe ibiltzeagatik eta etxeratze agindua ez errespetatzeagatik".

Otsailaren 4ko interbentzioa

Prentsa agerraldian, "interbentzio berezi" bat ere azpimarratu gura izan du Andinok. "Otsai-

GAUR, 12:00ETATIK 17:00ETARA, ZIRKULAZIOA ITXITA EGONGO DA GAZTELUONDON

laren 4an, bi udaltzainek bi pertsona atxilotu zituzten, osasun publikoaren aurkako delitu bat egotzita. Pertsona horietako bati bere motxilan substantzia begetal bat aurkitu genion, 1.775 gramo. Ustez, kalamua zen. Atxilotu ostean, Ertzaintzara biderratu ziren. Ekintza horren ondorioz, bi udaltzain zauritu ziren eta ospitalean artatu behar izan zituzten".

Kriminalitate-tasak, behera

Arlo administratiboan 388 interbentzio egin dituzte eta horietatik 179 segurtasun arlokoak izan dira: liskarrak, ebasketak, abisu faltsuak eta kalte materialak. Hala ere, kriminalitate-tasa 7,05 puntu jaitsi dela nabarmendu du Andinok; hain zuzen, %35,77tik %28,72ra.

Era berean, kriminalitate mailaren baitan, asko hazten ari

den delitua da Internet bidezko iruzurrarena. "Txarteleko datuak baliatuz erosketak egitea, esaterako. Igoera nabarmena izan da, %200ekoa", dio Andinok. "Beraz, kontuz ibiltzeko dei egiten diegu herritarrei".

Trafikoan, 146 esku-hartze

Trafikoari dagokionez, 146 esku-hartze egin dituzte. "Trafiko laguntzak 68 izan dira, eta 43 istripu ere bai. Hildakorik ez da egon eta gehienak zauritu arinak edo zauritu gabeak izan dira. Halaber, oinezkoen bi harrapaketa ere izan dira. Kontuan hartu behar da ukitu txiki bat izanda ere guri deitzen badigute, istripu gisa hartzen ditugula", gaineratu du udaltzainburuak.

Zirkulazio itxiera Gazteluondon

Gazteluondon, Arrasate pasealekutik abiatuta, zirkulazioa itxita egongo da gaur, 12:00etatik 17:00ak arte, zuhaitzetan egongo dituzten lanak direla eta. Dena den, larrialdi edo ezinbesteko arrazoiren bat medio kale horietan sartzeko beharra izanez gero, Udaltzaingoarekin harremanetan jartzeko aukera egongo da, 943 25 20 10 telefonoan.



Martitzenean Sarek egin zuen prentsa agerraldia, Aldai parkean. E.A.

Maiatzaren 8an Kurtzetxikira eta Udalatxera igotzeko deia

Izan Bidea ekimenaren baitan, bi mendietara igo eta goian argazkia ateratzeko dei egin die Sarek herritarrei

E.A. ARRASATE

Urriaren 3an egitekoak ziren bi mendi igoera egingo dituzte maiatzaren 8an eta tontorretan argazkia aterako dute, 12:00etan. "Udalatxera igotzeko, Aita Menni ospitalean elkartuko gara, 09:00etan, Kepa Arronategi gaitxo eta presoak etxean egon behar duela aldarrikatzeko", azaldu dute Sareko kideek. Kurtzetxikira igotzeko, berriz, Biteritik irtengo dira, 10:30ean.

"Ekintza hau korrikalariak eta mendizaleak aurkeztu ari gara. Mendian edo korrika sentitzen dugun askatasuna maite dugu eta zaila egiten zaigu irudikatzea nola egon daitekeen hainbeste urte espetxean eta hain egoera gogorretan", adierazi dute. ETak indarkeria utzi zuenetik hamar urte igaro dira, eta espetxeetan COVID-19ak eta konfinamenduak egoera "okertzea" ekarri dutela diote. Horrez

gain, Sareko kideen esanetan, pandemiak "ziurgabetasuna muturrera" eraman du presoentzat zein senideentzat. "Milaka kilometro egin behar dituzte euren senideak ikusiko dituzten jakin gabe. Egoera tamalgarri hau amaitu behar dugu eta horretarako guztiok gara ezinbestekoak", aldarrikatu dute; hala, herritarrei igoera horietan parte hartzeko dei egin diete.

Askotariko eskaerak

Elkarbizitza, konponbidea eta bakea lortzea da egitasmoaren helburua, eta, horretarako, salbuespeneko legedia amaitu eta lege arrunta betetzeak lagundu egingo lukeela nabarmendu dute Sareko kideek. Hala, besteak beste, larri dauden presoak Euskal Herriratzea exijitu dute, eta preso guztiak Euskal Herriko espetxeetan edukitzea "ezinbestekoa" dela gaineratu.

Kiroldegia eta frontoia itxita egongo dira bihar, zapatua

Maiatzaren Lehena Langileen Nazioarteko Eguna denez, Musakolako kiroldegia eta Uarkapeko frontoia itxita egongo dira. Bestalde, ipar martxako ikastarorako izen-ematea zabalik dagoela gogorarazi du Udalak. Ikastaroa lau ordukoa izango da eta maiatzaren 5ean, 12an, 19an eta 26an egingo dute, 17:30etik 18:30era. Prezioa 23 euro da.

Abesbatza arloko taldeek protesta egingo dute domekan

Txorbelak, Goikobaluk, Izaskun Murgiak eta Portaloik, besteak beste, salatu dute abesbatza profesional edo "elitekoak" ez direnek debekatuta dituztela entseguak eta kontzertuak, eta horrek "arrisku handian" jartzen dituela hainbat talde. Hala, Seber Altuben elkartuko dira, 13:00etan, eta, manifestua irakurtzeaz gain, abesti bat kantatuko dute.



Astelehenean Kulturateko areto nagusian egindako saioa, Emoki elkarteko kide Jone Zalduegik gidatuta. E.A.

Umeak, gazteak, espazio digitalak eta gurasoak

Emoki elkarteak eta Udaleko Prebentzio Zerbitzuek antolatuta, pantailen eta espazio digitalen erabilera osasuntsua sustatzeko solasaldia egin dute asteon, eta maiatzaren 6an beste saio bat egingo dute, 12 eta 18 urte arteko seme-alabak dituztenendako

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Heldu moduan, gu gara haurren eredu, eskolan, familian, guraso moduan edota lagunekin, eta haiek egingo dute guk egiten duguna. Kontzientzia hartu behar dugu, mugikorren erabilera sutsua egiten dugulako guk ere", adierazi du Jone Zalduegik, Emoki elkarteko kideak.

Haren esanetan, inportantea da nola harremantzen diren helduak eta harremantzeko "be-rehalakotasun" horrek nola eragiten dien aisialdia orekatzeko. "Garbi dago etxeko esparrua izan beharko litzatekeela sostengurik handiena. Baina espazio hori nolakoa da haur-erentzat? Segurua da? Gure jorkabideak egokiak dira haien-erentzat?", azaldu du. "Batuetan, badirudi kosta egiten zaigula haurrak etxetik ateratzea, tabletarekin egon gura dutelako edo bideo-jokoekin, eta gu eroso gaude egoera horretan, guk ere ez daukagulako motibaziorik edo estresatuta gaudelako. Hain

zuzen, erosotasunaren eta errua- ren arteko oreka horren inguruan ere aritu ginen".

Mugak, baina malguak

Zalduegik onartu du gurasoek hainbat kezka azaldu zituztela etxean hainbat ohitura edo muga ezartzeko ardurari buruz. "Haurrari muga bat jartzen diozunean garbi eduki behar du haurra denetik, eta ez nagusiago egiten denean. Demagun, 20:00etatik aurrera mugikorrik ezin badu erabili, garbi izan behar du, eta bere logelan, esaterako, ezin du pantailarik izan. Halaber, haurrak bakarrik ez, gurasoek ere argi izan behar dute hori".

Bestalde, jartzen diren muga horiek ere malguak izan behar

KULTURATEKO ARETO NAGUSIAN IZANGO DA BIGARREN SAIOA ETA MARTITZENERA ARTE EMAN DAITEKE IZENA

dutela nabarmendu du Emoki elkarteko kideak. "Muga zehatzak jarri behar dizkiegu gure seme-alabei, baina muga horien malgutasuna neurtuz. Izan ere, debekatzen dugunak zirrara sortzen du, eta horrekin kontuz ibili behar dugu. Gainera, muga horiek eguneratzen ere joan behar dugu, haien identitateak ere aldatzen doazelako".

Izen-ematea, 'Arrasate.eus'-en

Bestalde, Zeintzuk dira nire alaba-semearen erreferentzia gune eta pertsonak espazio digitalean? solasaldia egingo dute maiatzaren 6an, Kulturaten, 17:30ean hasita. Hasiera batean, euskaraz zein gaztelaniaz egiteko aukera egongo da, bata areto nagusian eta bestea Jokin Zaitegi gelan, eta biak ala biak 12-18 urte arteko seme-alabak dituzten gurasei zuzendutakoak izango dira. Era berean, saio horietarako interesa dutenek Arrasate.eus webgunean eman dezakete izena, maiatzaren 4ra arte.

Metatutako energia kostua eta kontsumoa jaitsi egin da

Udalak aditzera eman duenez, 2017-2020 urte artean 255.145,53 euro murriztu da kostua

E.A. ARRASATE

Udalak dioenez, trantsizio energetikora bidean azken urteotan egindako lana fruituak ematen ari da. "Horren adierazle dira, esaterako, metatutako energia kostuan zein kontsumoan lortutako jaitziera datuak". Kostua 255.145,53 euro murriztu da eta kontsumoa, aldiz, 1.447.217 kWh gutxiagokoa izan da azken hiru urteetan. "2017ko abenduan, esaterako, kostua 78.947 eurokoa zen eta kontsumoa 433.659 kWh-koa, eta 2020an, 51.298 eurokoa eta 328.699 kWh-koa izan da".

Kale argiterian egindako hobekuntzen emaitzak ere azaldu ditu. "4.550etik 2.110 luminaria ordezkatu dira, eta LED argiteria jarri". Ondorioz, 2017tik 2020ra kostua 197.335 euro jaitsi da eta kontsumoa 1.569.212 kWh gutxiagokoa izan da.

Horrez gain, Udalak 30.000 euro bideratuko ditu aurten Bedoñabeko argiteria aldatzera -268 luminaria aldatu eta LED argiekin ordezkatu dituzte-, aurreko urteetan BAZen eta Erguinen egin zuten moduan. "Esaterako, Erguinen eskolan egindako inbertsioari esker, bost hilabeteko epean energia kostua 1.748 euro murriztu da eta kontsumoa, aldiz, 5.691 kWh".



NIRE USTEZ

ITSASO
ERRETOLATZA

Rasmia

Helburu baterako borondate sendoa, barne energiak elikatzen den ekintza trebetasuna eta kemenez lortzeari deritzo rasmia.

Kontatu didate, familiako norbaiten zaintzarako kontratatu nahian, migratzaileek egiten dutela lan hau gehienetan, eta paperik ez dutenei eskura ordaintzen zaiela. Baita ospitalean inoren arretarako, aukeraren batez baliatu behar eta erizainek erakutsiko dizute zerrenda. Hala nola, etxeko lanetarako.

Kontatu didate ez nekiena, migratzaileek hiru urte jardunean egin artean ezin eskuratuko dituztela paperak. Eta ondoren, norbaitek gomendio gutun bat idatzi beharko du, zein langile fina den ziurtatuz... herritartasuna eskatzeko eskubidea izan dezan. Halabeharrez, beltzean beharra egitera behartzen ditugu.

Ez da, bada, hobe izango guztion zergekin zerbitzu publikoak mantendu, eta haiek sistemaren parte aktibo izatea? Bada, eman bezaie behin-behineko paperak hasieratik.

Urrutitik etorri, larrutik eta poltsikotik, garesti ordaindutako beldurgarritzko bidaia egin ondoren, zer ez lukete emango paperak emango bagenizkie.

Euskal Herria hobetzeko prest?

OROTARIKO ZERBITZUA · 100 €-tik / hileko
Arrunta 70€-tik / hileko

Garaia Berrikuntza Gunea · 20.500 Arrasate | 943 903 450
info@bertako.eus | www.bertako.eus



Ignacio Zuloaga kaleko 2. zenbakian egingo dute beilatoki berria. E.A.

2022ko urtarrilean ireki gura dute beilatoki berria

Ohiko batzar orokorra egin zuen joan den egubakoitzean San Felipe Elkarlaguntzak, eta onartuta geratu zen beilatoki berriaren proiektua; lokala hilabeteko epean erosi dute eta urtearen amaierarako egokitu, Tanatorio San Felipe Beilatokia izenarekin

Eneko Azurmendi ARRASATE

Apirilaren 23an Amaia antzokian egindako batzar orokorrean aurreko ekitaldirako kudeaketa-txostena eta urteko kontuak irakurri eta aho batez onartzeaz gain, gai-zerrendan ezohiko proposamen bat ere jaso zen, Ignacio Zuloaga kalean dagoen lokal bat eta haren ekipamendua eta alokairua erosteari buruzkoa, gero beilatoki gisa erabiltzeko.

San Felipe Elkarlaguntzako ordezkariak azaldu dutenez, alde zuzenetik adostu zuten batzarrera gerturatutako edo ordezkaturako botoen 2/3ko gehien-go kualifikatua lortuz gero bakarrik onartzea, "proposamenaren irismena eta garrantzia kontuan hartuta".

Eta hala izan zen. Izan ere, "informazio zabal eta zehatza eman ondoren eta galdera-erantzunen txanda gainditu ondoren", aurrez adostutako bi heren horiek "aise" gainditu zituen proposamenak, 434 bototatik 316 izan ziren-eta baiezkoak.

Kokalekua, inbertsioa, eta abar

Horrez gain, kokalekuaren abantailak ere azaldu zituzten, eta baita banaketa funtzionala eta zeremonia zibil edo erlijiosoak ahalbidetuko dituen atari zabal ere. "UNE-EN 15017:2020 arauak proiektuari ezartzen dizkion kalitate- eta segurtasun-baldintzak ere nabarmendu ziren, eta, azkenik, inbertsioaren zenbatekoari eta erakundearen erreserbetan izandako eraginari buruzko informazioa eman zen. Era berean, kanpoko aktuario batek egindako inbertsioaren bideragarritasun-azterlan baten aldeko ondorioak aurkeztu ziren, baita San Felipe Elkarlaguntzako kideek ordainetan izango dituzten onurak ere".

OJANGUREN EHORZTETXEAK HARTUKO DITU BERE GAIN USTIAPENA ETA GESTIO INTEGRALA

Bazkideek, deskontuak

Behin proposamena onartuta, lokala hilabeteko epean erosi dute aurreratu dute elkarteko kideek, eta urtearen amaierarako egokituta egotea aurrekusten dute, 2022ko urtarriletik aurrera hiru beilatoki operatibo eskaini ahal izateko, Tanatorio San Felipe Beilatokia izenarekin.

Ojanguren Ehorztetxea arduratuko da beilatokiaren kudeaketa integralaz eta ustiapenez, eta Arrasateri eta Debagoien osoari eskainiko dizkio zerbitzuak. "San Felipe Elkarlaguntzako kideek deskontuak izango dituzte irekiera egunetik, eta deskontu horiek %50era iritsiko dira urte batzuetan".

San Felipek nabarmendu du bazkideentzako abantaila berri horrek ez dakarrela inolako igoerarik urteko kuotetan, ezta sarrera-kuotetan ere, "ohiko prestazio guztiak mantenduz konpentsazio-zenbateko berberekin eta familiari emandako laguntza edo ekarpenarekin".



Udaltzaingoaren egoitza parean jarritako pankarta. EHE.

Udaltzainek gaztelaniaz berba egiten dutela salatzen du EHEk

Lehen hitza euskaraz jaso gura dutela eta jaso behar dutela exijitu dute, eta "benetako konpromisoa" eskatu

E.A. ARRASATE

"Euskaraldia bukatu zen, eta, tamalez, gauzak ez dira batere aldatu. Beste behin, argi geratu da Euskaraldia haien zentzuz ez dela ekintza sinboliko bat besterik izan, haien burua herriaren aurrean zurrizko modu soil bat. Udaltzainek gaztelaniaz hitz egiten jarraitzen dute, Euskaraldia aurretik egiten zuten bezalaxe", adierazi dute Arrasateko Euskal Herriaren Euskaraz taldeko kideek, ohar bidez.

Udaltzain batzuek lanorduetan darabilten hizkuntzaren inguruko eztabaida berpiztu gura dute. "Udaltzainak udal-langileak diren heinean, ezinbestekoa da baldintza minimo batzuk betetzea". Langile ororen kalitatea neurtzeko orduan, azaldu dutenez, irizpide garrantzitsua da hizkuntza. "Euskaraz aritzea ez da bigarren mailako kontua, funtsezkoa baizik. Langile pu-

blikoak dira, zerbitzu publiko bat ematen dute eta kalean -hau da, esparru publikoan- egiten dute lan; horrek ardura bat dakar berekin".

Euskara hizkuntza "zapaldua" dela argudiatuz, nabarmendu dute euskaldunen eskubideak ez daudela bermatuta eta, ondorioz, udaltzainek lanorduetan erreferentziak hizkuntza gisa gaztelania izatea herritarren eskubideen urraketa bat dela. "Bestalde, ez dauka inongo zentzurik euskararen aldeko ekintzetan parte hartzeak eta herriaren aurrean euskararekiko konpromisoa hartzeak, Euskaraldian kasu, gero ez betetzeko".

Udalak, erantzunik ez

Arrasateko Udalak ez du erantzunik eman gura izan. Soilik azaldu du Udaleko zerbitzu guztietan euskara lehenetsi eta bermatzen dela.

San Andresko jaien baitan, hainbat lehiaketa asteburuan

Asteburu honetan ziren ospatzekoak San Andres auzoko jaiak, baina, batzordeak sare sozialen bidez jakinarazi duenez, "denon segurtasuna eta gaur egun bizi dugun egoerari erreparatuta", ezin izango dituzte jaiak "normaltasunez" ospatu.

Ekintzak egin ahal izateko mugak dituztela kontuan hartuta, eta jaiak "mugagabeak eta

denontzako" izan behar dutela iritzita, kaleetan ekintzarik ez egitea erabaki dute. "Denon segurtasuna bermatzea lehentasuna dela jakin badakigu". Hori dela eta, hainbat lehiaketa antolatu dituzte, hala nola balkoi eta leiho apainketa lehiaketa, kartel lehiaketa eta marrazki lehiaketa antolatu dituzte. Bakoitzak bere epemugak ditu, eta *Goiena.eus* webgunean zehaztuta daude horiek. Parte hartzeko, *sanandresjaiak@outlook.es*-era idatzi behar da.

Erakusleiho ezin hobea aurkitu dute Laburbiran

Xabi Vallina arrasatearrak zuzenduriko 'Ilunabarrean esan' film laburak Huhezineman ikusi zuen argia lehen aldiz, eta, han fikzio onenaren saria jaso ostean, orain Euskal Herri osoko hainbat herritan proiektatuko dute lana, Laburbira egitasmoaren baitan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Mondragon Unibertsitatearen Aretxabaletako Komunikazio Fakultatean jaio zen *Ilunabarrean esan* film laburra. "Fikziozko film labur bat sortzea eskatu ziguten. Filmak askotariko ibilbideak izan ditzake, eta, gure kasuan, Huhezinemara aurkeztu genuen", azaldu du Vallinak.

Huhezineman bertan, gainera, fikzio onenaren saria eskuratu zuen lanak. "Aitortza hori izatea beti da polita. Espero dugu horrek balio izatea kontatzen dugun istorioa leku gehiagotara iristeko", gaineratu du.



Filma egin duen lantaldea; ezkerretik hasita lehena, Alonso; bosgarrena, Vallina. X.V.

Debagoieneko hiru herritan

Horretarako aukera eskainiko die, hain zuzen, Laburbirak, Debagoieneko hiru herritan proiektatuko baitute film laburra. Aramaion, hasiera batean, maiatzaren 13an izango da, nahiz eta oraindik ez duten erabat zehaztu -kultura etxean, 18:30ean-. Maiatzaren 19an, berriz, Bergarako Seminarixoan ikusi ahalko da filma, 18:30ean hasita, eta Arrasaten, aldiz, hilaren 22an, gaztetxean, 19:00etan.

"Oraingo, filma ez dago inon ikusgai eta Laburbirak lagunduko digu gure lana gehiago zabaltzen. Oso polita da unibertsitateko lan bat gure herrietan erakusteko aukera izatea. Lan txukuna da eta oso pozik gaude egin dugunarekin. Beraz, merezi du herritarrei erakustea", adierazi du soinuaz arduratzen den Sara Alonso aramaioarrak.

Barruko ezinegona, islatuta

"Hilabete luzez" hausnartutako proiektu bat izan da, arrasatearraren esanetan. "Filmak ez du islatzen nire bizipen pertsonala, baina bai barruan neukan ezinegon bat, homosexualitatearen gaia lantzeko motibazioa, hain zuzen. Gainera, nik uste dut lortu dudala barruan neukan hori filmaren bitartez islatzea,

XABI VALLINA ARRASATEARRA ETA SARA ALONSO ARAMAIOARRA DIRA LANTALDEKO KIDE

beste hainbat asperturekin batera, eta pozik nago".

2002an girotuta, Iruñean

Urkoren bizipenak kontatzen ditu filmak eta 2002an girotuta dago, Iruñean. "Ezker abertzaleko Segi antolakundeko militantea da Urko. Batetik, bere bizitza publikoa dauka, ohiko militantzia erudian. Bestetik, bizitza pribatua edo ezkututzen duen aldea dauka, bere homosexualitatea, alegia. Hor hainbat kontu nahasten dira eta nahasmen horretan garatzen da istorioa", azaldu du arrasatearrak.

Homosexualitatea aitortzeko prozesu horretan "kasu askotan bizitzen den bakardade sentimendua" azaleratzen duela aitortu du zuzendariak. "Horrez gain, Iruñean homosexualitatea aitortzeko egon izan diren esparru klandestinoez ere badihar-

du filmak, eta baita euskal gaztaz eta euskal militantzian homosexual izateak ekarri ahal izan duenaz ere".

Pandemia betean eginikoa

Gidoia sortzeko prozesua pandemiaren hasierarekin batera etorri zen, 2020ko martxoan gidoia sortzen ari ziren eta. "Aurreproduktzioa etxetik egin genuen, horrek ekarri zizkigun zailtasun guztiak. Modu telematikoan elkartu behar izaten genuen, eta lokalizazioak Google Maps aplikazioaren bitartez bilatu behar izan genituen. Nahiko zaila eta etsigarria izan zen", dio Vallinak, eta zera gaineratu du aramaioarrak: "Nola ibili garen kontuan hartuta, oso ondo irten da".

Soinua, uste baino zailagoa

Soinuaren ardura uste baino zailagoa dela esan du Alonsok. "Erraza ematen duen alorra da soinuarena, baina oso konplikatu da; batez ere, grabaketan. Soinu mota asko ez daude norberaren kontrolpean, hori kudeatzea oso zaila da. Gero, moldaketa txiki asko egin behar izaten dira, soinua orekatua izan dadin".

Mendi bizikleta irteera egingo dute bihar, Besaidek antolatuta

40 pertsonak hartuko dute parte eta talde txikietan egingo dute; talde bakoitzak arduradun bat edukiko du

E.A. ARRASATE

09:30ean irtengo dira, Garibaitik. 28 kilometroko ibilbidea izango den arren, lau puntutan mozteko aukera egingo da eta taldeak horren arabera egingo dituzte. "Osorik egin gura dutenak talde berean elkartuko dira eta moztazkoa egin gura dutenak ere bai. Arduradunaren zeregina izango da taldekideen beharren arabera ibilbidea egokitzea", dio Besaideko kide Olatz Igartuak.

Gaineratu duenez, lehen gehiago egiten zituzten horrelako martxak, baina azken urteetan Mondranbike martxan bakarrik zentratu izan dira. "Orain, egoera berri honekin, moldatu egin behar izan ditugu egutegia eta ekintzak. Gainera, bidali genuen galdetegian jende askok egin zuen mendi bizikleta irteeraren alde eta horri erantzunez ere antolatu gura izan dugu".

Azpimarratzekoa da, bestalde, hamaika emakumezko eman dutela izena. "Orain arteko martxetan hiru emakumezko izan dira gehienez", nabarmendu du.

Maiatzaren 3an, film emanaldia

Granito Buffet-Vagabundos Pirineicos filma proiektatuko dute Kulturateko areto nagusian, astelehenean, 18:00etan. "Iru-k, Rouko lankidearekin batera, Pirinioetako 214 hirumilakotara igotzea erabaki zuen, baina ibilgailurik erabili gabe, kanpoko laguntzarik gabe, aterpeetan lo egin gabe, ia baliabiderik gabe", diote Besaidetik. "44 egunetako espedizioa kontatzen du filmak, eguneroko irudiek".

Federatu txartelak, lokalean

Martitzen eta eguaztenetan 19:30etik 20:30era jaso behar dira txartelak, Besaideren lokalean.

Txatxilipurdi: "Plaza mugatuak jarri izana ez da gure nahia izan"

Aurten Txatxilipurdiko udaleku irekietako izen-ematean plaza mugatuak jarri behar izana euren eskuetatik kanpo geratzen diren baldintzen ezarpenengatik izan dela adierazi du elkarteak, eta, hain zuzen, ratioaren jaitsierari atxikitzen diote "udalekuak zeharo garestitu" izana.

Ratio jaitziera joan den urteko ekaineko dekretutik ateratako

datua dela eta, aisialdiak, beste sektore batzuekin batera, "azkenetarikoa" izaten jarraitzen duela adierazi dute, "ia informazio gabe geratuz". Ez dakite uztaila baino lehen dekretu berririk irtengo den: "Itxarotzerrenda osatzea erabaki dugu, ratioak igotzekotan taldeak handitu egingo genituzkeelako. Dena den, hau ez dago gure esku, eta honekin, esan bezala, aisialdiak gizartean duen baliorik eza islatuta geratzen da". Informazio osoagoa, *Goiena.eus*-en.

OHARRAK

'COVID-19aren prebentzioa' hitzaldia

Maiatzaren 4an, 17:30ean, hitzaldia egingo dute Kulturateko areto nagusian Jose Ramon Bardeci Osakidetzako erizainak eta Rosa Domingo txertoen Debagoieneko arduradunak.

'Natura bizia' dokumentala Amaia antzokian

Maiatzaren 4an, martitzena, *Natura bizia* lana proiektatuko dute Amaia antzokian, 19:00etan. Sarrera bost euro da.

Erorikoak prebenitzeko ikastaroa Etxaluzen

Maiatzaren 6an eta 13an egingo dute, 09:00etatik 10:00etara, eta doakoa izango da. Dagoeneko izena eman daiteke BAZen edo *Arrasate.eus* webgunean. Edukiera mugatua izango da.

Ligako onenen artean arituko da Kanpanzar

Ordiziako klubarekin indarrak batuta, laugarren postuan amaitu dute aurtengo liga ARTko gizonezkoek, Durangoren, Sararen eta Gernikaren atzetik; ondorioz, lau talde horiek elkarren arteko ligaxka jokatu dute, zapatuan hasi eta ekainaren 20ra arte

Hasier Larrea ARRASATE

"Erdipurdi" hasitako denboraldiari tankera hartzen joan da astez aste Kanpanzar-Ordizia, eta Txingudiren aurka lortutako azken jardunaldiko garaipenak sasoiko bigarren fasea sailkapeneko goiko aldean kokatutakoekin lehiatzeko baimena eman zien. Julen Barrutia entrenatzaileak hainbat gako eman ditu taldearen bilakaera positiboa nolakoa izan den deskribatzeko orduan: "Gure ustez, Federazioak modu prezipitatu eman zion hasiera lehiaketari; hau da, jokalariei behar bezala prestatzeko tarterik eman gabe. Horretaz aparte, ordiziarrekin orduantxe bat egin genuenez, jokalariek ez zuten elkar ezagutzen; beraz, aurkariak parean genituenean, gailendu egiten zitzaizkigun hasieran".

Joera hori, baina, atzean uztea lortu zuten denborarekin, errugbilariek elkarren artean konfiantza hartzeaz bat. Zazpi partidutatik hiru garaipen erdietsita, pilatutako 15 puntuak nahikoa izan zaizkie Barrutiak zuzentzen dituen mutilei liga lau onenen artean amaitzeko. Azken momentura arte saiatu behar izan dute, ordea. Apirilaren 17an, COVID-19agatik atzeratutako neurketa jokatu zuten



Kanpanzar-Ordiziako eta Txingudiko jokalariek lehiatzen. RICARDO SANTA CRISTINA

HASIERAKO EMAITZA TXARREI BUELTA EMANDA, SASOIARI MODU DUINEAN ESAN NAHI DIO AGUR ART-K

Txingudirekin Mojategin; irabazlea goiko ligaxkara sailkatuko zen eta galtzaileak, berriz, beheko beste hiru taldeekin jokatu beharko zuen hurrengo fasea. Amaieran, 19-10 nagusitu ziren etxeokak.

Datorrena, "presio gabe"

Hala, denboraldia bukatu arte sei partidu jokatu ditu Kanpanzar-Ordiziak, joaneko eta itzulerako neurketetan banatuta. Lehenengo hitzordua bihar eguerdian izango du Mojategin, eta Sarako Izarra izango du aurrean. Datorren astean zelai berean neurtuko ditu indarrak Gernikaren aurka, eta hurrengo hitzordua ez da maiatzaren 23ra arte iritsiko.

Zaleen babesik gabe bada ere, denboraldiari modu duinean agur esaten saiatuko da ART.



Mugarri Ingouko gizonezkoen senior mailako taldea. JOSU HERRERO

Mugarri Ingou, gaztetuta, mailari eusteko urratsaren bila

Euskadiko senior mailako plaza ez galtzeko bi neurketa jokatu ditu; lehena, domeka honetan, Iturripen

H.L. ARRASATE

Beste kirol txapelketa askotan gertatu den bezala, eskubaloian ere liga formatua aldatu behar izan du aurtengo sasoiaren Euskal Eskubaloi Federazioak. Hala, gizonezkoen senior mailan, bi ligaxkatan banatu zuten lehiaketa eta Arrasateko taldeari B ligaxkan jokatzeko egokitu zitzaion. Sei partidutatik bakarria irabaztea lortu du Mugarri Ingouk, eta, ondorioz, jaitsiera saihesteko kanporaketetan lehiatzen ari da. Lehen kanporaketa gaitzuta, bigarrenari ekingo dio etzi: Urnietarekin neurtuko ditu indarrak, joaneko eta itzuliko partidu banatan. Lehena etzi jokatu du, Iturripeko kantxan, 11:30ean, eta bigarrena datorren astean, Urnietan. Euren aldeko emaitzak lortzen badituzte, datorren sasoiaren bermatuta izango dute maila berean jarraitzeko txartela. Baina kale

eginez gero, goiko mailatik ze talde jaitsiko zain egon beharko lukete; euskal taldea izango baltz, kategoria galtzeko arriskuan murgilduko lirake. Aurrekari modura, otsailean jokatu zuen Mugarri Ingouk Urnietaren aurka, baita irabazi ere.

Filosofiar eusten

Aurten partidu gutxi jokatzeko mesede handirik egin ez diela aipatu du Josu Herrero jokalaria eta klubeko zuzendari teknikoak: "Beterano batzuek lehen taldea utzi, eta gazte mailatik hamar jokalaria igo dira; gazteak minutuak izaten ari badira ere, denbora behar dute kategoriara moldatzeko, normala den bezala". Hala ere, belaunaldi aldatzarekin kluba "norabide onean" dagoela nabarmendu du: "Daugunarekin aurrera goaz, eta datozen urteetarako blokea mantenduko dugula dirudi".

Euskal selekzioaren deialdian

ARTk aste honetan jakinarazi duenez, harrobiko jokalaria Morgana Via eta Ane Uribarren euskal selekzioaren 18 urtez azpiko taldearekin entrenatzeko deitu dituzte. Klubetik berri hau jasotzeaz "harro" daudela adierazi dute. Via hiru laurdenetako postuan ibiltzen da: "Bizkorra eta langilea" da. Uribarren, berriz, lehen lerroko jokalaria "indartsua" da.



Morgana Via eta Ane Uribarren, erasoan. ART

Mondratek Otxartabe jasoko du domekan, igoera lortzeko lehiatzen

Euskal Ligatik Hirugarren Mailara jauzi egiteko amesten jarraitu nahi dute areto futboleko Arrasateko jokalariek. Ligaxkako partiden erdiak jokatuta, sailkapenean bigarren postuan dago Mondrate, partidu bat irabazi, bi berdindu eta bakarria galduta. Postu hori mantentzea nahikoa izango zaie Jon Zabalak entrenatzen dituen

mutilei mailaz igotzeko. Musakolako kiroldegian etzi 17:30ean hasiko den neurketa irabaziz gero, helburua lortzeko "aurre-rapauso handia" emango luke-tela adierazi du Zabalak.

Datorren astean Usansoloren kantxan jokatu dute futbolariak eta hurrengo neurketan Leioa hartuko dute Musakolan. Azken norgehiagokan Jarrille-rosi egingo diote bisita. Falta diren lau partiduetatik etxeko biak irabazita, "esku-eskura" izango lukete igoera.

"Arimek osasuna ematea, horixe da nire helburua"

ROBERTO WHITE GORPUTZ TXOTXONGILOLARIA

Udal Bibliotekak antolatuta, Kulturaren izango da maiatzaren 7an, 19:00etatik aurrera, 16 urtetik gorakoendako 'Izaki bereziak' ikuskizun mutua aurkezten

Hasier Larrea ARRASATE

Malabarista, kaleko antzezle, pailazo eta titiritero aritzetik gorputz txotxongiloen munduarekin topo egitera pasa zen Roberto White. 15 urte daramatza arlo horretan lanean.

Nola amaitzen du Argentinako antzezle batek Oretetan bizitzen?

Maitasunagatik. Duela zazpi urte iritsi nintzen hona, eta orain, familia eta alaba txikia dauzkat.

Aurretik asko bidaiatu duzu, baina.

Argentinatik Costa Ricara joan nintzen gaztetan, eta han 4 urtez ibili nintzen ikuskizunak egiten. Pataclown konpainiako zuzendaria ezagutu nuen orduan, beraiekin batu eta beka bat lortu nuen Perun ikasteko.

Eta Perun diziplina ugaritan espezializatzeko aukera izan zenuen.

Hala da. Hugo Suarez maisua ezagutu nuen, gorputz txotxongiloen mundua ireki zidana. Berarekin eta beste bi kiderekin batera Santa Rodilla konpainia eratu genuen. Bost urtez ibili



Roberto White, *Izaki bereziak* funtzioa aurkezten. PARQUE DE LAS MARIONETAS

ginen laurok hara eta hona, funtzioak eskaintzen.

Gero, bakarkako saioetara egin zenuen salto. Ze moduz zabilta?

Oso gustura. Pentsa, *Izaki bereziak* saioa 2006an sortu nuen, eta lantzean behin aldaketak

txertatzen dizkiot emanaldiari, berau fresko mantendu eta ni neu ez aspertzeko.

Nondik dator kizua inspirazioa?

Naturatik, musikatik, literaturatik, baina, batez ere, objektuen ezaugarrietatik. Askok errepara-

tzen diet objektu sinpleei, pistak ematen eta gogoia pizten dizkirate. Azken batean, objektuetatik hasita joaten gara istorioak sortzen; hori da gorputz txotxongiloen berezitasun nagusia. Panpinen sinpletasunak aukera ugari zabaltzen dizkigu artistoi.

Zer-nolako harremana izaten duzu funtzioan protagonistarekin?

Txotxongiloaren eta txotxongilolariaren artean beti da interesgarria gatazka planteatzea. Manipulatu ailela aldentzea, ondoren istorioan berriro murgiltzeko, publikoak dezente eskertzen du efektu hori; joko ematen du.

Publikoa aipatu duzula, nolakoak gara hemen?

Orokorrean, oso harrera ona jaso dut Euskal Herriko zirkuituetan. Jendea oso konplizea eta parte hartzailea izaten da obran zehar. Egia da batzuek ikuskizun familiar bat umeei bakarrik zuzendutakoa dela pentsatzen dutela, baina hori gaia ezagutzen ez dutelako gertatzen da. Halere, askok badakite mundu honetan adin guztiendako obrak egiten ditugula, eta hori pozgarria da.

Inprobisaziorako tarterik uzten al duzu funtzioetan?

Saioaren lehen hamabost minutuetan jolas batzuk egiten ditut. Emanaldiaren unerik irekiena izaten da, bat-batekotasunarentzat aproposa. Baina saioan murgiltzean nahiko neurtuta dago gutzia aurrez: koreografia antzeko bat dela esan dezakegu, musikaren erritmora doalako.

Gainera, pandemiarekin, murriztu egin zaizkigu inprobisatzeko aukerak: ezin dugu publiko ukitu, adibidez.

Hori ez da egungo egoerak eragindako eragozpen bakarra izango.

Ez horixe. Azken urteetan Asiarra joaten nintzen sarri lanera, baina iaztik bira gehienak bertan behera utzi ditut. Penintsulako merkaturan nabil lanean orain, joan den abuztua ezkeror. Lan gutxi dago, baina geroz eta gehiago. Kultura segurua izateko protokoloak bermatuz, sektorea berraktibatzea espero dut.

Nazioartean sari ugari jaso dituzu.

Zer esaten dizu horrek? Sari mota ugari daude, baina niretzat onena publikoaren saria jasotzea izaten da. Tolosan eta Lleidan, adibidez, publiko gazteak erabakitzen du nor saritu, eta bi kasuetan jaso dut nik.

Lehen aldia duzu Kulturaren, baina Debagoiena ezagutzen duzu zertxobait, ezta?

Bai! Bergarako Nazioarteko Mostrara hiruzpalau aldiz gonbidatu naute Taun Taun Teatroko antolatzaileek. Oso harreman ona daukat eurekin eta gustura etortzen naiz hona. Ea aurten ere gonbidatzen nauten!

"PANPINAK ZENBAT ETA SINPLEGOAK IZAN, ORDUAN ETA JOKO GEHIAGO EMATEN DIOTE ISTORIOARI"

Udalekuekin, antzerki eskolak udan ere ez du etenik izango

Aurtengo ikasturtean irekitako Doke antzerki eskolak 9 eta 14 urte artekoendako ekintzak antolatuko ditu

H.L. ARRASATE

Haurrek eta gazteek antzerkiak "era dibertigarrian, euskaraz eta lagun artean gozatzeko" helburuarekin, diziplina ugari jorratzeko aukera izango dute neska-mutuek, ekainaren 28tik uztailearen 23ra bitartean, astelehenerik egubakoitzera arteko goizetan, Doke antzerki eskolaren eskutik. "Jolasaren bidez komunikatuko gara, ipuinak sortuz eta kontatuz, txotxongiloak eraikiz eta horiekin gidoi txikiak prestatuz, maskarekin esperimentatuz eta itzal antzerkiak

ezagutzuz", zehaztu du Maider Alzelai antzezle eta irakasleak.

Udalekuek iraungo duten lau asteak lau txandatan egongo dira banatuta, adin-tartearen arabera: 9, 10 eta 11 urte artekoek ekainaren 28tik uztailearen 2ra eta uztailearen 5etik 9rako txandaren batean eman ahalko dute izena; eta 12, 13 eta 14 urte artekoek, ostera, uztailearen 12tik 16ra eta 19tik 23ra. Taldeak, gehienez, zortzi pertsonaz osatuta egongo dira, eta partaide bakoitzak astebetetzat aprobetxatu ahalko du eskaintza. "Ahal diren

ekintzak" eremu itxian beharrean kalean egingo dituztela gaineratu du Alzelaiak.

Astebeteko egonaldiek 100 euroko kostua izango dute neska-mutuek bakoitzeko. Interesatuak bi modu izango dute izena emateko, 665 11 85 72 telefonora deituta eta dokeikastaroak@gmail.com helbidera idatzita.

Ikasleak, "fin"

Joan den udazkenean zabaldu zituen ateak Doke konpainiaren hezkuntza egitasmoak. Esperientzia "polita" izaten ari dela dio Alzelaiak: "Ume zein guraso, oso gustura daudela diote; datorren ikasturtean probatu nahi duenarentzat aukera ona da udalekuek etortzea". Orain, klaseetan idatzitako gidoiak taularatzeko entseguetan dabilta buru-belarri.

159 lan aurkeztu dituzte 34. Arrasate literatur lehiaketara

lazio bakoitzeko parte hartze handiagoga egon dela aipatu dute antolatzaileek: "Pozgarria da, gazteak indartsu daude"

H.L. ARRASATE

Joan den domekan amaitu zen AEDk antolatzen duen urteroko literatur lehiaketan sormen lanak entregatzeko epea. Itxaro Artola antolatzaileak aipatu du "aurten beldur pixka bat" izan dutela parte hartzeari dagokionez, "egungo egoerak behartuta, ikasleak arlo emozionalean pataltal" egongo ote zirelakoan. Uste hori, baina, ezerezean gelditu zen, 2020an baino hogeita lan gehiago jaso dituzte eta.

Hala, 33 bertso paper, 19 narrazio eta 69 ilustrazio aurkeztu

dituzte LH-5 eta DBH-2 mailen arteko sortzaileek; eta 17 mikroipuin, 19 poema eta bi komiki DBH-3tik batxilergoko bigarren mailara artekoek.

Artolak nabarmendu du gazteak "motibatze" balio izaten duela egitasmoak: "Aurreko aldie-tako bi ohiko saridun, Maria Osas eta Oihana Arana, euren lan propioak argitaratzen ari dira gaur egun".

Hain zuzen, Arana izango da maiatzaren 27ko sariketako gonbidatua. Saioa Abaok grabatu eta Goienak emitituko du.

Material bilketa eta hitzaldiak Lorabarrin

Lorabarrin asteko egitaraua prest dute dagoeneko. Martitzenean, elektromagnetismoaren inguruko solasaldia egingo dute; eta, eguaztenean, gaitasunen eta dohainen ekonomiaz jardungo dute. Azoka maiatzaren 8an izango da

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Lorabarrin azoka hutsa baino askoz gehiago da. Hori erakutsi dute azken urteetan, eta aurten ere helburu berarekin datoz. Zailtasunak zailtasun eta egoerak egoera, Lorabarrin asteko egitaraua prest dute antolatzaileek. Hitzaldiak, erakusketak, bigarren eskuko azoka eta bertako ekoizleen azoka izango dira aurten ere.

Bigarren eskuko azokan salgai jarriko duten materiala jasotzen hasi dira dagoeneko, ekonomatua. Lehenengo hitzaldia, berriz, martitzenean izango da.

Eremu elektromagnetikoak

Martitzenean, eremu elektromagnetikoen eta osasunaren arteko harremanaz hitz egingo du Asier Arregi geobiologoak. *5G, osasuna eta elektromagnetismoa* izango da hitzaldiaren gaia, eta elektromagnetismoak eta teknologia berriek izan dezaketen eraginez arituko da. Hitzaldia 18:30ean izango da, kultura etxean.

Eguaztenean, berriz, Nekane Juradok eskainiko du hitzaldia: *Gaitasunen eta dohainen ekonomia* –gazteleraz izango da–. "Gaur egun bizi dugun osasun krisia ze momentutan gertatu den azalduko du. Osasun krisia baino zerbait gehiago dela ikuspuntutik abiatuta, gaitasunen eta dohainen inguruan arituko da", azaldu du Irati Mujikak, Lorabarrin antolatzaileak. Norbakoak dituen gaitasunen inguruan hausnartu eta hortik abiatuta beste ekonomia bat posible dela azalduko du Juradok.

Sarrerak erreserbatu

Hitzaldiak kultura etxean izango dira; hori horrela, kultura etxeko arauak bete beharko dira. Sarrerak doan izango diren arren, aurrez erreserbatzea komeni da. Sarrerak udal atarian erreserba daitezke, eta egunean bertan,



2020an egindako Lorabarrin azoka. GOIENA

EGINGO DITUZTEN HITZALDIETARAKO SARRERAK ERRESERBATZEA KOMENI DA

sarrerarik geratuko balitz, kultura etxean bertan erreserbatzeko aukera egongo litzateke.

Eskolaren parte-hartzea

San Martin eskolak aspalditik parte hartzen du Lorabarrin as-

tean. Aurten, parkean eraiki berri duten zume bizidun jolasguneari buruzko ekimena egingo dute. Egubakoitzean, maiatzaren 7an, eskolako umeek jolastokiari buruzko azalpenak emango dituzte; eta zapatuan, zume bizidun jolasguneari buruzko argazki erakusketa jarriko dute ikusgai.

Azoka maiatzaren 8an izango da: "Nahiz eta baldintzatuta egon, azoka mantentzea erabaki dugu". Herriko ekoizleen produktuak eta beste zenbait produktu egongo dira salgai.

Materiala ekonomatuta eraman

Maiatzaren 8an egingo duten bigarren eskuko azokarako materiala ekonomatuta jasoko dute. Arropak eta osagarriak jasoko dituzte, eta baita umeendako tronak, motxilak, bainuontziak, bizikletak, motorrak, patineteak... Bigarren eskuko azokako antolatzaileek azaldu dute umeen jostailurik ez dutela jasoko. Materiala martitzenean eta egunean eraman daiteke ekonomatuta, 17:30etik 20:00etara; eta zapatuan, 11:00etatik 13:00etara. Antolatzaileek gaineratu dute erabilgarri ez dagoena birziklatzera botako dutela; eta azoka ondoren saldu gabe geratzen dena Emausera eramango dela. Bigarren eskuko azokan jasotzen den dirua Irati Garaitonandia Martelo gazteari bideratuko zaio, behar duen aulki berezia erosten laguntzeko.



Papargorri abesbatza, artxiboko irudi batean. GOIENA

Kantatzea segurua dela aldarrikatuko du Papargorrik

Abesbatzen Federazioak egin duen deira batu, eta elkarretaratzea egingo dute domekan, parkean

A.E. ARAMAIO

Euskal Herriko Abesbatzen Federazioak deituta elkarretaratzeak egingo dituzten EAEko hiriburuetan domekan. Kantatzea segurua dela aldarrikatu nahi dute, "abestea nahi eta behar" dutela.

Hala, Aramaioko Papargorri abesbatza Arabako Haur Federazioaren parte denez, elkarretaratzera batuko dira aramaioarrak ere. "Gasteizera ezin garenz joan, hemen, parkean egingo dugu elkarretaratzea", azaldu du Larraitx Arriolabengoak, Papargorri abesbatzako zuzen-

dariak. 12:00etan elkartuko dira, parkean, eta 10 minutuko elkarretaratzea egingo dute, segurtasun neurriak errespetatuta.

Kantatzeko baimena

Arriolabengoak azaldu du 2020ko azaroaz geroztik ezin elkartuta daudela, eta zenbait abesbatzak betirako itxi dituztela atea. Beste kultur edo kirol jarduerak batzuetan federatuek baimenak dituzte, eta federatutako abesbatzei ere baimenak ematea eskatzen dute. "Segurtasun neurriak betetzen badira kantatzea segurua" dela gaineratu dute.

Bihartik aurrera Correoseko bulegoa itxita egongo da

Aurrerantzean Arrasateko bulegoan egin beharko dira tramiteak; Udala erabakiaren aurka agertu da

A.E. ARAMAIO

Aramaioko Correoseko bulegoa behin betiko itxiko dute bihar, maiatzaren 1ean. Korrespondentzia banatzen jarraituko dute Aramaion, baina bulego zerbitzua bertan behera geratuko da. Hori horrela, paketeak edo bestelakoak jasotzera ere Arrasateko bulegora joan beharko da –abisua jaso ondoren–; aldiz, Aramaion lanean ibiliko den langileak herritarren paketeak jaso ahal izango ditu, eta berak eraman Arrasateko bulegora tramiteak egiteko.

Arrasateko bulegoko ordutegia astelehene ostiralera 08:30etik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara izango da.

Aramaioko Udalak erabaki horren aurkako mezua zabaldu du: "Correos enpresa publiko bat izanik [...] egun batetik bestera lotsagarria iruditzen zaigu. Zonako arduriaren konpromisoa eta laguntza publikoki eskertzen dugu [...] Dagokien arduradunei, eskatzen diegu gauzak era integrean aztertzeke, eta ez soilik era ekonomiko kapitalistan".



Saridunek talde argazkia egin zuten kultura etxearen kanpoaldean. TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

Mikroipuinen sailak arrakasta izan du

Gehenez 100 hitzez osatutako ipuinak sortzeko aukera eskaini dute aurten helduen kategorian; hamahiru lan aurkeztu dituzte, eta onena Manex Agirreren 'Gabiria' izan da. Gaztetxoen ipuin lehiaketan 68 umek parte hartu dute, sei kategoriatan banatuta

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Txirritolak antolatzen duen Literatura Lehiaketak baditu irabazleak. Helduen kategorian, mikroipuinen saila sortu dute aurten; hala, irabazlea Manex Agirre izan da, *Gabiria* lanarekin. Bigarren saria Mainer Aldayk irabazi du, *Zigor bat arren* mikroipuinarekin. Sail berri horren helburua lehiaketa erakargarriago egitea izan da. "Uste dugu parte hartzean lagundu duela", dio Txirritola elkarte Oihana Amezkuak. Guztira, hamahiru mikroipuin jaso dituzte: "Kontakizun arinak, amaira irekiak dutenak izan dira mikroipuina".

Gaztetxoetan, 68 partaide

Gaztetxoen kategorian, ipuinak eskolaren bitartez bideratu dituzte: "Ipuin lehiaketan 68 umek parte hartu dute". Kategoriaka sailkatuta, ondorengoak izan dira irabazleak: LHko 6. mailan, Danel Igoak lehenengo saria, *Belarrizuri basoa* lanarekin, eta

Ibai Torresek bigarren saria, *Zelulak*-ekin; LHko 5. mailan, Izaro Ezpeleta lehena, *Satorren eskualdea* lanarekin, eta Manex Astola bigarren, *Kawaki eta magu tximiñoa*-rekin; LHko 4. mailan, June Nafarrete lehena, *Among Us-era* bidaia lanarekin, eta Haitz Torres bigarren, *Patata erraldoi arriskutsua*-rekin; eta LHko 3. mailan, Lide Abarrategi lehena,

Sofa denona da, ama lanarekin eta Oxel Astola bigarren, *Hiru anaiak eta piratak*-ekin.

Pandemia egoera dela-eta ezin izan dute sari banaketa ekitaldirik egin. Saridunei diploma banatu zieten, eta talde argazkia egin zuten; horrez gain, LHko 1. eta 2. mailetakoez taldeka egin dute lana, eta taldeko saria jaso dute gaztetxo horiek.

Mikroipuin irabazlea: 'Gabiria'

Uztaileko bazkaloste sargoria ez da jolaserako girorik onena, eta neskatoak gogotxartuta jo du baloia ostikoz. Uste baino indartsuago eman dio, ordea, eta elizaren atzealderaino joan da baloia jauzika. Hormaren kontrako sasi artean baloiaren bila ari zela tanta epel bat erori zaio burura, bazkalaurreko euri-zaparradatik elizaren teilatuan geratzen zen azkenetakoa. Begiak gora jasotzea eragin dio, instintuz. Han dago. Ahaztuta zeukan. Berehala egin du plana. Untzillan gauzez ez da inor kanpoan ibiltzen. Anaia nagusiaren arnesa eta sokak. Frontala. Adatsa garondan lotu, gomaz.

Globoak, bonbak, sumendiak. Lehertzer bideratutako zerbait lehertu gabe uztea ez da justua.

Lau bertsolari aramaioar pasa dira Gasteizko finalerdira

Lehenengo faseko hiru saioak jokatu ostean erabaki da ze sei bikote pasako diren Arabako Binakako Bertsolari Txapelketako finalerdietara. Martin Abarrategik eta Manex Agirrek zuzenean lortu zuten finalerdietarako txartela. Sailkapenari begira jarrita, beste bi bertsolari aramaioar ere egongo dira finalerdietan: batetik, Peru Aba-

rategi, Beñat Garaio bikoteki-dearekin; eta, bestetik, Xabi Igoa, Felipe Zelaia bikoteki-dearekin. Laurek saio berean abestuko dute: maiatzaren 9an, 17:30ean, Gasteizko Felix Petite antzokian. Lehenengo finalerdia maiatzaren 8an izango da, 17:30ean, Amurrioko antzokian. Irati Anda eta Aroa Arrizubieta, Iñaki Viñaspre eta Unai Anda, eta Manuel Bendala eta Oihane Perea lehiatuko dira. Sarrerak bertsosarrerak.eus atarian eros daitezke 8 euroren truke.

Udaleko Kultura Sailak bi dirulaguntza deialdi publikatu ditu

Bi dirulaguntza lerro publikatu ditu Udalak. Kultura, kirol eta gizarte arloko laguntzara 15.000 euro bideratuko ditu, eta, apirilaren 23tik hasita, hogeitau eguneko epea dago eskaerak egiteko. Bestalde, auzoetako jaiak antolatu eta egiteko laguntzara 13.500 euro bideratu dituzte. Bi epe daude eskaerarako: ekainaren 1era arte da lehena.

Gazte Eguneko txartelak salgai daude Añai tabernan

Maiatzaren 8an, zapatua, ospatuko du ATGAK Gazte Eguna. Parkean egingo duten bazkari-rako txartelak salgai jarri dituzte, 5 euroren truke, Añai tabernan. Goizean, hitzaldia izango dute kulturaren inguruan, eta bazkalostean mahai-ingurua, okupazio eta gune gestionatuak aztertzeke. Musikarekin amaituko dute eguna.



JULEN OLAIZOLA

Olaizola, Bizkaiko txapeldun

Julen Olaizola pilotari aramaioarrak Bizkaiko binakako txapelketako txapela irabazi du. Apirilaren 24an Zeanurin jokaturako finalean, Arkaitz Eskuza audioarra lagun zuela, 22-9 gailendu ziren Xabi Rekalderen eta Ioritz Arbaizaren aurka. Gazte mailako txapela lortu du Olaizolak. Partiduaren tarteko emaitza 11-1, 13-5 eta 18-8 izan ziren.

Irakurketa saioa gaur, marrazkiek lagun eginda

Tere Irastortza idazlea eta herriko beste hainbat elkartuko dira Arkupen, liburueta pasarteak irakurtzeko, eta, bien bitartean Jokin Mitxelena ilustratzaileak hitzak irudi bihurtuko ditu 'Hitz-arte' ekitaldiaren barruan

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Liburuaren Nazioarteko Egurenaren harira idazleei lekua egin gura izan die Udaleko Kultura Sailak, eta gaurko, egubakoitza, *Hitz-arte* ekitaldia antolatu du. Besteak beste, elkartuko dira Tere Irastortza idazlea eta herriko beste hainbat idazle, eta, haiek liburueta pasarteak irakurri bitartean, Jokin Mitxelena ilustratzaile donostiarrak hitzak irudi bihurtuko ditu. Arkupen izango da ekitaldia, 19:00etan.

Herritarak, gonbidatuta

Karmele Igartua idazle aretxabaletarra izango du gogoan Irastortzak (Zaldibia, 1961), haren poesiak irakurriko ditu. Harekin batera izango dira Josune Murgoitio (Arrasate, 1985), Judit Ruiz de Munain (Agurain, 1973) eta Luis Jose Errasti (Aretxabaleta, 1954), hirurak hainbat libururen egileak. Eta horiekin batera Udane Oñate gaztetxo



Jokin Mitxelena ilustratzailea marrazten. JAKINTZA IKASTOLA

egongo da pasarteak irakurtzen. "Adin guztietako jendea gonbidatzen saiatu gara. Ea hurrengoan gehiago garen!", adierazi du Ruiz de Munainek, eta gaineratu: "Gertura daitezela herritarak irakurketa saiora. Geuk

idatzitako liburuak ere izango ditugu bertan eskuragai".

Herriko idazleek taldetxoak daukate sortuta, elkarlanean jarduteko. Udalarekin ere badute harremana, lankidetzan ekitaldiak antolatzen.

Zer irakurriko duzu? Zer deritsozu ekimenari?



JUDIT RUIZ DE MUNAIN IDAZLEA

"*Itsasaldia* izeneko ipuin bat irakurriko dut, neuk idatzitakoa. Urtean behin, behintzat, halakoak antolatzea ideia bikaina da; hala, jendea gehiago animatu dadin idaztera eta irakurtzera. Liburu bat editatzen nabil, baina oraindik ez dago aurkezteko moduan; ea datorren hilabeterako gertu dadin".



JOSUNE MURGOITIO IDAZLEA

"*Destino Estambul* liburuaren zatitxo bat irakurriko dut. Herrian jendeak ezagutzen gaitu, baina halako ekimenek beti laguntzen dute; idazleondako erakusleio bat dela uste dut. Pandemia sasoiaren irakurzaletasunak gora egin duela esango nuke, eta nik neuk ondo saldu ditut liburuak".



LUIS JOSE ERRASTI IDAZLEA

"Pena handiz baina ekitaldian egoterik ez dut izango, kanpoan bizi naizelako orain. Dena den, neuk sortuta nuen kontakizun bat grabatu dut eta bidali egin diet, ekitaldian jar dezaten. Halako ekimenak politikak dira, eta jarrai dezatela antolatzen; ea hurrengoan herritar gehiago animatzen diren irakurtzera".



NIRE USTEZ

OIHANA GARCIA INSAUSTI

Hamasei

Duela hilabete batzuk, Zarauzko ekimen baten berri izan nuen: guraso batzuk elkartu dira, 16 urte bete arte euren seme-alabei mugikorrik ez erosteko helburuarekin. Bideak helduen erabileraz gogoeta egitera ere eraman ditu, gaztetxoengan ikusten dugun horrek gutaz ere asko esaten baitigu.

Marc Masip psikologoaren arabera, giza garunak ez du nahikoa heldutasun mendekotasuna sortzen duen horrelako gailu bat erabiltzeko gutxienez 16 urtera arte, eta, alkoholarekin edo tabakoarekin egin den moduan, mugikorra izateko gutxieneko adina arautzearen aldekoa da. Hainbat adituk gaineratzen dute teknologia berrien erabilera arduratsua sustatu aurretik beste konpetentzia batzuk garatu behar direla nerabeengan.

Artaldea doan kontrako norabidean joatea, ordea, ez da hautu samurra, eta nekez egingo dute horrelako ekimenek aurrera, atzetik konbentzimenduz eta ilusioz lanean ari den talde temati samar bat izan ezean. Debagoienean ere ausartuko gara?

Lau eta erdiko finala jokatu du gaur Barandiaranek

Lau eta erdiko Gipuzkoako hegoaldeko pilota txapelketako bi final jokatu dira gaur, egubakoitza, Iturrigorri pilotalekuan, 18:30ean hasita. Gazteen bigarren mailan, Aretxabaleta kirol elkarteke Julen Barandiaranek Beasaingo Burumendi elkarteke Usabiaga izango du aurkari.

Aurretik, kadeteek jokatu dute, baina ez da aretxabaletarrik izango. Azpeitiko Ezamaren eta Azkoitiko Etxanizen aurkako norgehiagoka izango da.

Aste honetan, gainera, Udaberri pilota txapelketari ekingo diote. Aretxabaletarrek bi partidua kanpoan jokatu dituzte: gazteek Zestoan eta nagusiek, berriz, Bergaran.

Paul Casal musikaria elkarrizketatu dute 'Galdegazte' saioan

Kurtzebarri institutuko Ariel Garcia, Ariane Perez, Lierni Irusta, Nahia Martinez, Yandee eta Arantzazu Blazquez ikasleek Paul Casal elkarrizketatu dute, Wood Strings taldeko musikari aretxabaletarra. Maiatzaren 5ean, eguaztenean, emango dute elkarrizketa hori Goiena telebistako *Galdegazte* saioan, 21:30ean eta 23:30ean.

Mendi tontorretara igotzera gonbidatu ditu herritarak Sarek

Maiatzaren 8an mendi tontorretara igotzeko deialdiarekin bat egin du Aretxabaletako Sarek, *Gari Atxabaltara* leloarekin, eta herritarak ere horretara gonbidatu ditu.

Bost tontor dituzte aukeran aretxabaletarrek: Murugain (778 metro), Aranguren (1.136 metro), Elorreta (1.141 metro), Arlutz (1.126 metro) eta Erlaitz (1.108 metro). Gailurretan 11:30ean egoteko dei egin dute, eta han argazkiak aterako dituzte.

Izan Bidea dinamikaren baitako ekitaldia izango da, "preso eta iheslarien etxeratzearen alde eta elkarbizitza eta bakearen alde". Euskal Herriko 650 tontor ezagun igoko dira egun horretan.



Eskaintza oparoa Zaraian, uda iritsi aurretik

Arkupek maiatzean agurtuko du Zaraiako denboraldia, antzerkiarekin, musikarekin, film laburren emanaldiarekin, bertso saioarekin eta dokumental baten proiektioarekin; lehen saioa etzi izango da, 'Antonia' antzezanarekin; 2.023 ikusle igaro dira aurten aretotik

Hasier Larrea ARETXABAETA

Orotariko diziplina artistikoak jasoko ditu Zaraia aretoak datorren maiatzean zehar. Nabarmenezkoa izango da, besteak beste, Zinegoak jaialdiko film laburren emanaldia. Bilboko Gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Festivalak maiatzaren 16an egingo du geldialdia Arkupen, *Escames*, *On my way* eta *Carne* film laburren emanaldiarekin.

Kontzertuei dagokienez, hilaren 23an etorriko da Estitxu Pinatxo abeslari eta piano-jole beratarra *Haize gorri batek* izeneko saioa aurkeztera. Bertan, bere lehen diskoan konposatutako abestiak joko ditu.

Bi egun geroago, liburutegiak Bego Alabazan narratzailea gonbidatuko du, 2 eta 5 urte arteko ez zuzendutako *Sagu txiki, sagu maite* ikuskizuna aurkezteko.

Bestalde, EHUK eta Garabide elkarteak antolatuta, *Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen* erakusketa izango da ikusgai, maiatzaren 5etik 31ra bitartean. Antolatzaileen esanetan, "kooperazio linguistikoan sakontzeko" balioko du galeriak.

Hasteko, antzerkia

Guztira, bi antzezlan ez gozatu ahaliko da Zaraian datozen as-



Javier Liñera aktore eta zuzendaria, *Antonia* obrako kartelean. EKOLA TEATRO

teotan. Lehena, *Antonia* izenekoa, domeka honetarako dago programatuta, 19:00etan hasita. Kontaketak oroitzapenen arteko bidaia planteatuko du, eta protagonistaren amona eta haren anaia agertuko dira bere oroimenean. Sarrerak Arkupen daude salgai. Maiatzaren 9an, berriz, Trokolo Teatroak *Zurginaren ipuina* ikuskizun familiarra taularatuko du.

Datorren ostiralean, gaur zortzi, Oihana Arana, Martin Abarrategi, Beñat Lizaso eta Nerea Ibarzabal bertsolariek eskainiko

dute saioa, Lekaixoka bertso eskolaren eskutik.

Mendiko dokumentalak gus-tuko dituztenek, bestalde, *Granito Buffet: Vagabundos pirenaicos* ikusi ahaliko dute hilaren 14an eta 21ean.

Denboraldi "ona"

Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak "ondo" baloratu du Arkupek zazpi hilabete hauetan emandakoa: "Edukiera erdira murriztu bada ere, 2.023 ikusle etorri dira". Ekainean kaleko ikuskizunen txanda izango da.



2019ko udaleku irekietako aisialdi ekintza bateko irudia. GOIENA

Udaleku irekietako izen-ematea maiatzaren 10ean amaituko da

Inskripzio prozesua Internet bidez egitea gomendatu dute; udalekuak uztailearen 5etik 23ra izango dira

H.L. ARETXABAETA

Joan den asteazkenean ireki zuten Aretxabaletako Udalak 2021eko udaleku irekietan parte hartzeko izen-ematea. Aurten, joan den urtean bezala, pandemiaren gaineko segurtasun aholkuei jarraituta, online eran bideratuko du udalekuan apuntatzeko prozesua -*goiena.eus*-eko albistean dago lotura-, "protokoloak ahalik eta paper gutxien erabiltzea" gomendatzen du eta. Dena den, norbaitek arazoren bat baldin badu, 943 71 18 62 telefono zenbakira deitu edo Gazteria Zerbitzuarekin harremanetan jar daiteke izen-ematea bideratzen laguntzeko.

Interneten izena emateko formularioa bete ostean, *aretxabaletakoudalekuak2021@gmail.com* helbidera bidali beharko da dokumentazio hori, ordainketa-agiriarekin batera. Ordainagirian haurraren izen-abizenak eta


jaiotza-urtea jarri beharko dira. Haur bakoitzeko izen-emate formulario bana eta ordainketa-ordainagiri bana bidaltzea komeni da, gainera.

4 eta 12 urte artekoentzat

Uztaileko udaleku irekiak 2009 eta 2017 urte bitartean jaiotako haurrei daude zuzenduta. Partaide bakoitzagatik 85 euro ordaindu beharko dute haren arduradunek; salbuespen gisa, hirugarren anai-arrebaren inskripzioa doan izango da.

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00ak arte jasoko dute zerbitzua 2017an jaiotakoek, eta 09:00etatik 13:00ak artean, berriz, gainontzeko neska-mutil guztiek.

Guztira, 300 neska-mutil ingururantzako tokia egongo da. Iazko dekretuan oinarrituz, haurrak hamabiko taldeetan eta seiko burbuiletan banatuko dira.



Odontologia estetikoa
Endodontzia
Inplantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55



Joan den zapatuan omenaldia jaso zuten gerrako umeak eta horien senideak. IMANOL SORIANO

Gerrako umeen zerrendak zabalik jarraitzen du

Zazpi aretxabaletar omendu zituzten joan den zapatuan Intxorta 1937 Kultur Elkarteak antolatutako ekitaldian. Guztira, 43 herritar izan ziren erbestera joan beharra izan zutenak gerratik ihesi, umetan, eta horiek guztiak izan zituzten gogoan

Mirari Altube ARETXABALETA

Frantziara, Britainia Handira, Belgikara eta Mexikora joan ziren hainbat aretxabaletar, Espainiako gerratik ihesi. Umeak ziren asko; Aretxabaletan, esaterako, 43. Seik –zazpigarrena orain dela hilabete hil zen– bizirik jarraitzen dute, eta horiei aitortza egin zieten zapatuan, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak sustatuta; Udalak eta Foru Aldundiak ere bat egin zuten eta Iñigo Arregik egindako oroigarria jaso zuten.

Erbestera ihesi

Monge Andres izan zen aitortza jaso zuen familietako bat. Zamorarik etorri ziren Aretxabaletara, 1932an, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Gazteena, Francisca, Eibarko adinekoen egoitzan dago gaur egun, baina ez zuen etortzerik izan ekitaldira.

Alberdi Bengoetxea familiako Amaia ere omendu zuten. 1937an jaio zen hura, aita –Saseta batailoiko sarjentua– hil zioten urte berean, eta Frantziara joan zen Imanol anaiarekin eta amarekin.

Zubillaga Altube familian Maria Pilar eta Fernando izan ziren omenduak; azken hori martxoaren 22an hil zen, eta Miren Elor-

za emazteak hartu zuen oroigarria. Frantziara joan behar izan zuten hiru anai-arrebak: Pilarrek (7 urte), Fernandok (6 urte) eta Alvarok (5 urte); Manolo (laugarrena), ostera, handik bueltan, Aretxabaletan jaio zen.

Azkenik, Etxebarrieta Oteiza anai-arrebak igo ziren oholtzara. Dragones batailoiko gudaria izan zen horien aita, eta 1937ko martxoan, Untzillako frontean, larri zauritu eta Basurtoko ospitalera bidean hil zen. Hiru anaia-arreba nagusiak, Juanita (7 urte), Fernando (5 urte) eta Manolo (2 urte eta erdi), Belgikara eroan zituzten eta jaioberrira zen Olga Begoña amarekin geratu zen Frantzian.

Erbestetik itzulera ere ez zela gozoa izan gogorarazi zuen Intxorta 1937 Kultur Elkarteko Juan Ramon Intxauspe aretxabaletarrak: "Zenbat errepresio eta miseria. Etxe hustuak, irainak, baina zoritxarren aurrean zutik jarraitu zuten guztiek".


GERO ETA INFORMAZIO GEHIAGO JASOTZEN DABILTA, ETA HORI AZTERTZEKO ASMOA DUTE

Familia "zigortuak"

Gerrako umeen zerrenda ez dago itxita. "Gero eta informazio gehiago topatzen gabiltza, eta guztia jasotzeko eta aztertzeko denbora behar dugu", adierazi zuen Intxauspek. Oraingoz, 43 aretxabaletarren izenak dauzkate jasota; 21 dira mutikoak eta 22 neskak. Horien artean daude Antxia Galdos familiakoak; batzuk Britainia Handira joan ziren eta beste batzuk, Frantziara.


Sauquillo Etxebarria familia nabarmendu gura izan zuen Intxauspek, gerrak "gehien zigortu" zuen familia izan zelako: "Bi seme, Dragones batailoikoak, hil egin zituzten; beste batek ezintasun bat zuen; eta beste bi Britainia Handira eroan zituzten. Gerra bukatu arren, azken horiek ez zuten gurasoekin elkartzeko aukerarik izan. Eta Luciok Ingalaterrako armadan eman zuen izena, paraxutisten artean. 1944ko ekainaren 13an, II. Mundu Gerran hil zen, Normandiako lehorreatzean. 21 urte zituen".

Aitor Antxia Leturiak halako kontuak jasotzearen garrantzia azpimarratu zuen: "Gazteek entzutea badute, baina urrutiko kontua iruditzen zaie gerra; eta ez da hala, atzo gertatu zen".




OLGA BEGOÑA ETXEBARRIETA OTEIZA
FRANTZIAN ERBESTERATUA

Hiru anaia-arreba nagusiak Belgikara eroan zituzten eta Olga Begoña jaioberrira, Frantziara: "Martxoaren 31n hil zen aita, Untzillan larri zauritu ostean, eta ni hurrengo egunean jaio nintzen. Amak lanak izan zituen ni inskribatzeko, gizonak bakarrik egin zezaketelako hori. Erbesteratu beharra zegoen Bilbotik, eta Frantziara joan ginen. Anaia-arreba nagusiek Belgikara eroan zituzten, eta Juanitari, bi anaiak zaintzeko ardua eman zion amak; eta zelan zaindu zituen gero! Herrira itzulera ere gogorra izan zen, *gorriak* ginelako gu".




MARIA PILAR ZUBILLAGA ALTUBE
FRANTZIAN ERBESTERATUA

Herritik ihesi, lehenik, Bizkai aldera joan ziren; eta gero, Frantziara: "Sestaoko bonbardaketa dut gogoan, hegazkinak pasatzen ziren oso baxu eta gu ortuan etzanda egoten ginen, jan egingo gintuztela zirudielako. Gero, Santander inguruan itsasontzia hartu eta Frantziara eroan gintuzten, Bordelera. Erizainek hartu gintuzten han; injekzio bat jarri ziguten, eta ogitarkeko bat eman. Harrera beroa jaso genuen eta oso ondo egon ginen han. II. Mundu Gerra hastekotan zela itzuli ginen, pena handiarekin. Familia harekin urteetan mantendu genuen harremana".



AMAIA ALBERDI BENGOTXEA
FRANTZIAN ERBESTERATUA

1937ko martxoan jaio zen Amaia, eta haren aita, Saseta batailoiko Felix Alberdi gudaria, Bilboko Larrinagako kartzelan hil zuten abenduan. Aitor Antxia Alberdi semeak dio apenas hitz egin izan dutela etxean, "sufrimendu" handiko garaia izan zelako: "Sestaora jo zuten eta Aramaioko familia batek lagundu zien; han jaio zen ama. Osaba Imanolek kontaktzen zuen aita bisitatzerara joan izan zela kartzelara eta barroteen artean iltzeak zeudela elkar ez ukitzeko. Frantziara joan ziren gero, eta hango oroitzapen onak zituzten. Itzuleran, ostera, ez zuten ezer topatu; dena kendu zieten".



AITOR ANTIXIA LETURIA
AITA FRANTZIAN ERBESTERATUA

Antxia Galdos familia osoak joan behar izan zuen erbestera: "Garbantu lapiko batekin irten ziren Bizkai aldera. Pepe aitajauna han hil zen eta Ramon aita, eta familia osoa, *Marrarakech* izeneko itsasontzia hartu eta Frantziara joan ziren, Bordelera; handik Frantzia erdialdera eroan zituzten. I. Mundu Gerrako kuarter zahar batean egon ziren. Toribio Elkorok bota egin zituen, lehenengo, herritik, eta gero, erreklamatu; baina itzulera ez zuten topatu ezer, ez etxe, ez altzari... Amandrea, sei seme-alabekin, ganbara batean egon zen hasieran, ezer barik. Oso gogorra izan zen".

Udaleku artistikoak musika eskolaren eskutik

Beheko Errota Musika Eskolak uztailaren 5etik 23ra bitartean udaleku artistikoak antolatu ditu 4 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Musikari eta dantzari garrantzi berezia emanda, askotariko diziplinak praktikan jartzeko aukera izango da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolak udaleku artistikoak antolatu ditu, herriko haurrentzat. Uztailaren 5etik 23ra bitartean gauzatuko dira, eta asmoa musikarekin eta dantzarekin disfrutatzea izango da, horiek jolasen bidez praktikan jarri. Hiru asteko iraupena izango dute Beheko Errotako udaleku artistikoek, eta parte hartzen duten 4 eta 8 urte bitarteko haurrek musika, dantza eta beste diziplina artistiko batzuk modu dibertigarrian ezagutzeko aukera izango dute. Hori horrela, izena emateko ez dela beharrezkoa izango musika eskolako ikaslea izatea edo musika eta dantza jakitea adierazi dute antolatzaileek.

Udaleku artistikoak astelehenetik egubakoitza bitartean burutuko dira, 09:00etatik 13:00era bitartean, eta bi taldek parte hartuko dute, talde batean haur txikiak egongo dira eta bestean helduenak. Hala, guz-

tira, 24 umez osatutako udalekuak izango dira.

Maskara eta garbitasuna

Aurtengo osasun egoeraren arabera neurriak hartuko dituztela adierazi dute musika eskolatik. "Hain zuzen ere, gelak aireztatuz, maskara erabili behar dutenek erabiliz eta garbitasun neurriak mantenduz. Gainera, saiaturako gara ahalik eta ekintza gehienak kanpoan egiten, eguraldiak laguntzen badu".

Udaleku artistikoetako irakasleak Cristina Cubillo eta Oihane Vicente izango dira, biak musika eskolako irakasleak. Cubillo hizkuntza musikaleko, musika tailerreko eta ahots

**MUSIKA, DANTZA ETA
BESTE ZENBAIT
DIZIPLINA LANDUKO
DITUZTELA ADIERAZI
DUTE ANTOLATZAILEEK**

teknikako irakaslea da eta Vicente, berriz, dantzako irakaslea. Gainera, irakasle gonbidatuak ere izango dituztela aurreratu nahi izan dute.

Musikaren bitartez erritmoa lantzea izango da udaleku artistikoen helburuetako bat. Horrekin batera, dantzari ere garrantzia emango zaio, eta beste diziplina artistiko batzuk praktikan jartzeko aukera izango da. Hain zuzen ere, antzerkia, zirkua, eskulanak, margoak...

Izen-ematea eta informazioa

Beheko Errota Musika Eskolako udaleku artistikoetan parte hartu gura dutenek, eta, bide batez, informazio gehiago eskatu edo zalantzak argitu, *behekoerrotaudalekuak@gmail.com* helbide elektronikora idatzi, 943 71 49 95 telefono zenbakira deitu edo musika eskolara bertara joanda egin dezakete. Hurrei zuzendutako udaleku horien prezioa 150 eurokoa dela jakinarazi dute.

'Mugikortasuna landa eremuan' topaketa saioa Ibarraundin

Debagoieneko landa eremuetan mugikortasun inklusiboa sustatzeko hitzordua maiatzaren 10ean

I.B. ESKORIATZA

Mugikortasuna landa eremuan lehenengo topaketa herritarrei zuzendutako saioa izango da, Ibarraundi museoa, maiatzaren 10ean, 18:00etatik 20:30era bitartean. Hitzordu honetan parte hartu nahi duenak *mm@conexionessimprobables.com* helbidera idatzi beharko du, bere izen-abizenak zehaztuta, eta herritar guztiei zuzendutakoa izango da. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, saioa gaztelaz izango da.

Debagoieneko landa eremuetan mugikortasun inklusiboa sustatzeko proiektu hau Fundacion La Caixak finantzaturikoa da eta 2020ko *Landa eremuetako ekintza soziala* programaren barruan kokatzen da. VIC Vivero de Iniciativas Ciudadanas-ek eta Conexiones Improbables-ek dihardute elkarlanean, Eskoriatzako Udalaren babesarekin.

Esperientziak aztertu

Bailarako ezaugarri sozial eta geografikoak kontuan izanda, proiektuan proposatzen diren esperientzia pilotuen baliozkotasuna aztertzea izango da topaketaren helburua. Hala, nor-

banakoen mugikortasun ohiturak behatuko dira eta ibilgailu pribatuaren erabilera, bideragarritasuna eta jasangarria dena baloratu eta eztabaidatuko dira.

Saioaren metodologia, berriz, parte hartzailea izango da. Horregatik, ahalik eta herritar gehienengana iristea lortu nahi dute antolatzaileek: administrazioetara, elkarteetara, eragile sozialetara, mugikortasuna ahalbidetzen duten zerbitzuetara eta sorkuntza jasangarri horretan interesatua dagoen edonorengana.

Alternatiba barik daudenak

Landa eremuan ere mugikortasun iraunkorraren erronka dago, eta ibilgailu partikularren erabilera murriztu nahi da proiektu horrekin. Debagoienean, beste landa eremu batzuetan bezala, garraio publikoaren aukerak urriak dira edo ez dira existitzen; Eskoriatzako elizateetan, esaterako. Ibilgailu pribatuarekin mugitzeko alternatibarik ez egoteak gizarte multzo bat ere bazterten du: adineko jendea, gidabaimenik ez dutenak... Hala, horiei ere egingo zaie erreferentzia.

300.000 euroko kreditu aldaketa proiektu berrietarako

EAJk eta Elizateek alde bozkatu zuten eta EH Bildu abstenitu egin zen kreditu aldaketa horren aurrean

I.B. ESKORIATZA

Martitzeneko osoko bilkuran, kreditu aldaketak izan zituzten berba. Eskola-kirolari 1.386 euroko dirulaguntza bideratzea onartu zuten, batetik, behar bereziko gazteei ikastaroak emateko, eta egoitzari ur zerbitzuan duen kostuan laguntzeko 3.000 euroko laguntza, bestetik.

Gero, 300.000 euroko kreditu aldaketa planteatu zuten, zenbait proiektu bideratzeko: kirol instalazioetara, hiri altzarietara, eskolako patioa konpontzerara... bideratuko dena. Gainera,

hiru proiektu nagusi ere aipatu zituzten: Intxaurtxueta plazatik gorako eskaileretan arrapala jartzea, Dorletako haur parkea berritzea eta udaletxeko sarrera eta lehenengo solairua berritzea. EAJk eta EEEk baiezko botoa eman zuten eta Bildu abstenitu egin zen. Oposizioa kideek adierazi zuten ekainean eskatutako murrizketen aurrean ez direla eroso sentitzen. Iazko aurrekontuen likidazioa egitean Udalak 757.000 euroko irabaziak izanda ez daudela eroso esan zuten.



Cristina Cubillo eta Oihane Vicente izango dira udaleku artistikoen irakasleak. BEHEKO ERROTA MUSIKA ESKOLA



Haizeder eta Nahia Arguiz ahizpak eta Maialen Apraiz gimnastak. MIREIA BIKUÑA

Hiru gimnastak lortu dute Espainiakorako txartela

Nahia eta Haizeder Arguiz ahizpek eta Maialen Apraizek Espainiakorako txartela lortu zuten Durangon jokatuako Euskadiko Gimnasia Txapelketan. Arguiz ahizpek urrea lortu zuten eta Apraiz bederatzigarren postuan sailkatu zen bere kategorian

Imanol Beloki ESKORIATZA

Joan den domekan, Euskadiko Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu zen Durangon. Erabakigarria izan zen Espainiako Txapelketarako sailkatzeko, eta Eskoriatzako ordezkariak seculako emaitzak lortu zituen.

Haizeder eta Nahia Arguiz ahizpek urrezko domina lortu zuten, nork bere kategorian, eta

Maialen Apraiz, berriz, bederatzigarren postuan sailkatu zen. Hala ere, hirurek lortu dute denboraldi honetako helburua, eta hirurak izango dira Espainiako Txapelketan.

Eskoriatzarrak izan arren, Eibarko Ipurua taldean ari dira hiru gimnasta horiek. Elkarrekin entrenatzeaz batera, elkarrengandik ikasteko tartea ere

hartzten dute, eta, diziplinari eutsiz, hazten ari dira gimnasia erritmikoan.

Mazoezin ariketa bikaina

Haizeder Arguiz maila indibidualean lehiatu zen Durangon jokatuako Euskadiko Txapelketan, eta mazoezin egindako ariketarekin urrezko domina eskuratu zuen, 13.167 puntu lor-

tuta. Hala, Euskadiko txapeldun da, kadete mailan, eta maiatzaren 31tik ekainaren 6ra egingo den Espainiako Txapelketarako sailkatu zen, oraindik egoitza zehazteke duena. "Joan den domekako saioan, hogeit lagunetatik hamar sailkatzen ziren Espainiako Txapelketarako, eta, ariketan egin beharreko guztiak ondo eginda, lehenengo postuarekin oso pozik nago. Orain, Espainiako Txapelketa prestatzea tokatzen da, eta dena ematea izango da nire helburua. Hori horrela, joan den asteburuan egin nuen ariketa astean lau aldiz, behintzat, egin beharko dut perfekzioa lortzeko".

Urrezko domina taldean

Nahia Arguiz, Haizederren ahizpa nagusia, berriz, taldekako kategorian lehiatu zen Euskadiko Txapelketan. June, Arrate, Sara eta Indira taldekideekin batera hamar mazoezin egindako ariketarekin urrezko domina lortuta, aurtengo helburua bete dutela adierazi du: "Urduri geunden gimnasta guztiok, Espainiako Txapelketarako sailkatzea helburu genuelako. Hala, hori lortuta, pozik gaude. Orain, aurrera begirakoak prestatzen jarraitzea da asmoa. Hala ere, esan beharra dago txapelketa berezia izan dela. Izan ere, urtebete da ez genuela halako lehiaketa bat izaten, publiko gabe izan zen; sentsazio bereziarekin egin genuen ariketa".

Errutinaren beharra

Aste barruan entrenamenduak izateak eta asteburua iristean lehiaketarik ez izateak psikologikoki eragin handia izan duela gimnastengan azpimarratu du Nahia Arguizek: "Ohituta

gaude astean entrenamendua izan eta asteburuan lehiaketa izatera. Hala ere, ematen du normalitatera bueltatzen hasi garela, eta errutinara bueltatzea positiboa izango da".

Nahia Arguiz aste honetan hasi da bakarkako denboraldiarekin. Uztaiarekin arituko da urte osoan, eta, etorkizunera begira jartzen ez den arren, gimnasia erritmikoa egiten jarraitzeko gogoz dagoela dio: "Gimnasia erritmikoa gauza asko ematen ditu. Diziplina handia behar duzu, eta antolatzen eta denbora ondo aprobetxatzen irakatsi dit. Txikitatik hasten den kirol bat da, eta jende askok goiz uzten duen arren, urte gehiagoz egon zaitezke lehiatzen. Ikusiko dugu...".

Apraiz, justu-justuan sailkatua

Maialen Apraiz ere Espainiako Txapelketarako sailkatu da, mazoezin egindako ariketarekin. Hobeto egitea aurreikusten zuen arren, helburua bete duela dio: "Bederatzigarren postuan sailkatu nintzen, eta txartela lortzearekin pozik nago. Edozelan ere, hobeto egitea espero nuen... Mazoezin aritu nintzen, baina nik nahiago dut pilotarekin diren ariketak egin. Kadeteoi mazoezin tokatu zitzaigun; izan ere, urtero egokitzen digute objektu bat, eta, hala, kadeteoi mazoak jarri zizkiguten. Helburua beteta, baina, datozen erronkei aurre egitea geratzen zaigu orain".

MAIATZAREN 31TIK EKAINAREN 6RA EGINGO DA ESPAINIAKO TXAPELKETA

Leire Rato combat sanboko Espainiako txapelketan izango da

Domeka honetan, combat sanbo modalitatean Espainiako Txapelketan arituko da Leire Rato, Atama Eskoriatza taldeko borrokalaria. Senior mailako txapelketa San Agustin del Guadalix (Madril) herrian jokatu da, eta borrokak 09:00etatik 13:00etara bitartean izango dira.

Hurrengo asteburuan, maiatzaren 8an eta 9an, berriz, klu-

ben arteko kenpoko Espainiako Txapelketa jokatu da, Guadalajaran, Alovera herrian. Atama Eskoriatza taldeko hamaika borrokalari arituko dira han: sei gizonetako eta bost emakumeetako. Gainera, entrenatzaile bat eta nazional mailako epaile bat ere eramango dituzte hemendik. Infantil eta master mailara bitarteko borrokak izango dira han, eta guztiak RFE Karate Youtube kanaletik zuzenean jarraitzeko aukera izango da.

Igoera fase erdi pasata, lider geratzeko zailtasunak

Iker Molinaren mutilak Bigarren B Mailara igotzeko fasean ari dira. Zortzi taldez eta jardunaldiz osatutako erdiak jokatu dituzte dagoeneko, eta sailkapenean seigarren postuan daude. Asteburuan, Eskoriatza Afantxo Pescados Ferreres-en aurka jokatu du Eskoriatzak, zapatuan, 17:00etan, Manuel Muñoz kiroldegian.



"Liburu bat idatzi ahala hobetzen joaten zara"

Irakurlearengan askotariko erreakzioak sorrarazteko osagai guztiak batzen dituen nobela da 'Lo que no se esconde', Jon Isazelaia 24 urteko eskoriatzarrak argitaratu duen liburua. Zapatuan, Arrasateko Kajoi tabernan aurkeztuko du lana

Imanol Beloki ESKORIATZA

Jon Isazelaia gazte eskoriatzarrak *Lo que no se esconde* nobela argitaratu berri du asteen. Konfinamendu garaian idatzitako liburua da, eta zapatuan egingo du bere lanaren aurkezpena Arrasaten, Kajoi tabernan, 13:00etan.

Iazko apirilean hasi zen liburua idazten, eta, argitaratu berri, ilusionatuta dago jaso dituen zorian mezuekin. Hala, liburu bat idaztea nola okurritu zizaion adierazi gura izan du: "Iaz, Madrileria bizitzera joan, eta hiru astera pandemiagatik etxera bueltatu behar izan nuen. Hala, lan barik, denbora libreaz zanda, kontatzea gustatuko litzaidakeen istorio bat idazten hasi nintzen. Pixkanaka garatzen hasi, eta forma hartzen joan zen, eta motibatu egin nintzen. Hala, liburua amaitzeko erronka jarri nion neure buruari, eta gaur arte. Orain, irakurtzen dutenen erreakzioak ikustea geratzen da. Ea gustuko duten...".

Artistikoki ez du sekula ezer idatzi Isazelaia, baina bidearekin gozatu egin duela eta egiten ikasi egin duela nabarmendu du: "Orain, idatzitakoa aztertzerakoan, idatzi ahala hobetzen joaten dela nire idazteko modua konturatu naiz...".



Jon Isazelaia eskoriatzarra, argitaratu berri duen liburuarekin. JON ISAZELAIA

Editorialaren ezustekoa

232 orri dituen liburua irailen amaituta, hainbat editorialetara eta lehiaketetara bidali zuen. "Modu honetan zerbait lortzea zaila da, eta, leku askotara bidali arren, ez nuen inongo erantzunik jaso. Hala, hilabetera nire lanaren bidalketa berrartu, eta gaur egun nire editoriala den Libros Indietik deitu zidaten. Liburua nola promozionatuko nukeen idatzi bat bidaltzeko eskatu, eta argitaratuko zidate-la esan zidaten. Kasualitatez izan zen, ez nuen espero".

Intrigaz betetako istorioa

Beni da *Lo que no se esconde* liburuaren istorioko protagonista, eta akusazio gogor bat egiten diote. Bere unibertsitateko lagunak hil ondoren, bera da susmargarri nagusia, eta lehenbailehen gogoratu behar du zer gertatu zen zehazki udako oporretan, bizitza osoa gatibu egon nahi ez badu. Etsipenaren erdian, Susana Luengo psikoterapeutarengana joatera behartuta sentitzen da, eta bere hipnosi terapiaren bidez oroitzapenak berpizten hasiko zaizkio.

Buzoien erretratuak

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatuta, mendiko buzoien argazki erakusketa jarriko dute zapatu honetan Inkeren ikusgai. Aramaioko, Gatzagako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako tontorretako 30 buzoitako argazkiz osatuta dago, eta, zenbait buzoi izendatu barik egonda, horiek asmatzen dituztenen artean saria izango da.



INAKI KORTAZAR



Gatzagako haurrak herrian zehar jolasean. GOIENA

Orientazioa lantzeko jolasak egingo dituzte datorren asteen

Astelehenean prestaketa lanak eta egubakoitzean ekintza berezia izango dute ludotekako haurrek

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Aste honetan ez dira batu ludotekako haurrak, baina datorren asteen hitzordu berezia izango dute, aste honetako hutsuneari buelta eman eta behar bezala disfrutatzen. Hain zuzen ere, orientazio edo ginkana proba egitea aurreikusi dute, astelehenean ondo zehaztu eta egubakoitzean gauzatzeko.

"Astelehenean 17:30etik 19:00etara eta egubakoitzean ordu berean batuko gara ludotekan. Normalean, asteen behin batzen gara, baina, aste honetan saiorik egin ez dugunez, datorren

asteen bi egunez batu eta zerbait berezia egingo dugu. Ekintza egubakoitzean izango da, eta haurren gustukoa izateko prestatuko dugu", adierazi du Miren Zubillagak, Gatzagako ludotekako arduradunak.

Eguraldi ona bada, kanpoan

Orain arte ahal izan dutenean ere egin duten arren, ludotekako arduradunak adierazi duenez, ludotekako gelatik atera eta ekintzak aire librean ahalik eta gehien egitea da asmoa hemendik aurrera; eguraldiak laguntzen badu, behintzat.



GARAZI OROBENGOA

Makila Korta jaian gozatuta

Joan den zapatuan egindako Makila Korta jaia arrakastatsua izan zela adierazi dute antolatzaileek. Goizean, Makila Korta mendira paseoa egin zuten hamabi gaztek; han jolasak egin eta hamaiketako hartu ostean, herrira jaitsi ziren. 17:30ean, Azken Sustraiak eta Talka musika taldeen kontzertuak izan ziren.

Ortu komunitarioetarako prozesua martxan dago

Herrian ortu publikoak jartzeko asmoz eguaztenean abiatutako partaidetza prozesuak zehaztuko du ia proiektu osoa, eta, Udal Gobernuak esku artean duen "kronograma orientagarriaren" arabera, posible litzateke 2022ko udaberrirako ortuok gertu egotea

Jokin Bereziartua BERGARA

Eguaztenean egin zuten, UNEDen, ortu komunitarioetarako lehen bilera irekia. Udal Gobernuak deitu zuen bilera, besteak beste, ortu komunitario horien helburuak, kokapena, arautegia eta funtzionamendua partaidetza prozesu baten bidez zehaztu nahi dituztelako. Boluko lur-jausiaren ingurua eta San Joxepe gaineko belardia izan dira orain arte Udalak ikertu dituen kokapenak. Izan ere, ortuetarako proposamena hainbat aldiz jaso du Udalak azken agintaldietan.

Herritarrekin eta eragileekin

Prozesua eguaztenean abiatu zuten, eta herritarren arloko arduradun-zinogotzi Ekaitz Aranberrik argi utzi zuen interesa duten herritarrekin eta eragileekin batera zehaztu nahi dutela prozesua. Ortua izan nahi duten eta lurrik ez duten herritarrentzako lur zati bat lagatzea eta lagapen horren funtzionamendua adostu nahi dute prozesuan zehar; betiere, eskualde mailan egon daitezkeen ekimenak ezagutuz eta horien bideragarritasuna aztertuz.

Gainera, ortuen alderdi hezitzailean sakontzeko, herriko ikastetxeekin eta umeekin ortuen inguruko lanketak handitzeko



Eguazten iluntzeko batzar irekia, UNEDen, ortu komunitarioez jarduteko. BERGARAKO UDALA

aukera aztertu nahiko lukete abiatu berri den prozesuan.

Eta, helburuei dagokienez, honako hauek ditu begiz jota Udal Gobernuak: hirigune inguruko espazioa erabilera publikorako berreskuratzea; ortuen izaera hezitzailea eta ludikoa sustatzea; autokontsumoa bultzatzea; hiri inguruneak dinamizatzea eta gizarte loturak indartzea; hirigintza parte-hartzaileagoa martxan jartzea; bazterkeria egoeran egon daitezkeen familia eta elkarbizitza unitateei lehenatasuna ematea norbere

kontsumorako barazki eta ortuariak izateko; bergararren artean bizimodu jasangarrirako ohiturak sustatzea, hala nola nekazaritza ekologikoa edo energiaren optimizazioa; eta baserri bizimoduaren eta kaleko bizimoduaren arteko oreka bilatzea.

Kronograma "orientagarria"

Hasiera baten, partaideak izango dira ortua lantzeko gertu dauden herritarrak eta ortuokin harremana izan dezaketen proiektuak martxan jartzeko gertu daudenak. "Lehen bilerara, nor-



Pandemiak eraginda, oraindik ere erdi-presentziala izan zen bilkura. A. M.

Partaidetza prozesuaz eztabaidatzen

Asteleheneko bilkuran ortu komunitarioetarako partaidetza prozesuaz eztabaidatu zuten EH Bilduk eta EAJK. Jeltzaleek atera zuen gaia, galderen tartean, EH Bilduk prozesua nola definitu duen jakiteko. "Eskatu diegu kontuan hartzeko oposizioa prozesua zehazterakoan. Partaidetzaz ari dira askotan, baina ez dute oposizioarekin ezertaroko kontatzen; proaktiboak bi aldeak izan behar gara, baina lidergoia Gobernuarena da". EH Bilduk dio EAJK izan dituela aukerak parte hartzeko, hilabete badela asmoen berri eman ziola: "Eztabaida eterno baten gaude, batak besteari partaidetza bilatzen ez dugula leporatzen; osoko bilkura foro interesgarria izan daiteke edozer galdetu edo salatzeke, baina informazioa eskatzeko uste dugu egunerokoan badaudela aukerak eta moduak", adierazi du EH Bilduko eledun Nagore Iñurrategik.

banakoez gain, beste eragile batzuk etorri dira, hala nola ikastetxe batzuk eta Debagoiena 2030 proiektuaren bueltan dabilen talde bat. Proiektu integral bat nahi dugu, ez norbanakoen ortu soilak, eta, beraz, eragile horiek ere lekua izan dezaten lan egingo dugu", adierazi du Aranberrik.

Epeez galdetuta, Aranberrik dio "erabat orientagarria" den kronograma bat badutela: "Prozesuak esango digu proiektua nola idatzi; adibidez, kokapenaren arabera oso ezberdinak

izango dira proiektuak". Kronograman jasotzen denez, 2021eko abenduan exekutatuko lirateke ortuak, 2022ko urtarril eta otsailan osatuko litzateke lurra landuko luketenen zerrenda eta 2022ko martxoan adostuko litzateke arautegia erabiltzaileekin.

ORTUEN HELBURUAK, KOKAPENA ETA FUNTZIONAMENDUA ZEHAZTU NAHI DITUZTE PROZESUAN



NIRE USTEZ

ASIER ELORTZA

Kaka zaharra

Probau dozuze trenbidera igotzeko bidietan montau deben ginkana?

Kontuz! Txorongo fresko bat ezkerretara... salto! Diarrea bat eskumaldian... finta!

Txakurrak edozein gauza ikasteko gai omen dia, denok ikusi izan dittugu tximiñokerixa pila bat egitten.

Askotan, pertsonak baiño inteligentiauk diela erakusten dabe... Ez da posible txakur bati etxian kaka egitten erakustia? Munduko erregia banintz, hau konponduta legoke.

Txakur bakoitzai sensore bat ipiñiko notsake ipurtzuluan, eta sensoriai konektuta -wifi mesh bidez-, 2.000 volteko kalanbria emoten daben

mikrotxip bat, jabiai perineo inguruan lotuta.

Txakurrak kaka egitteko esfinterra zabalitzen dabenian, *descarga que te cagas* bat jabiai, adi egon dain plastikuakin txorongua jasotzeko.

Horrekin nahikua ez bada, topautako mokorduekin bizkotxo bat egin eta... *Mekauen la mierda!*

Mariaren Lagundia: bi hitzaldi maiatzerako, naturan hezteko

Maiatzaren 4an, Huheziko ikerlari Iñaki Larreak *Jolas libre naturan* izenburu duen hitzaldia egingo du eta maiatzaren 11n, Kutxa Ekoguneko Baso Eskolako teknikari Maialen Sistiagak *Baso eskola proiektua* izeneko saioa izango du hizpide. Aurrez aurre edo online jarraitu daiteke; izena emateko, 943 76 25 40 telefono zenbakira deitu behar du.

"Ez adierazi arren, amak asko sufritu zuen gerran"

LUCIA FARRAS LASKURAIN GERRAKO UME BERGARARRA

1936ko irailean Euskal Herritik alde egin behar izan zuten ia 500 adin txikikoen arteko bat izan zen Lucia Farras Laskurain; gerran "kalamidade handiak" bizi izan zituztela dio

Jokin Bereziartua BERGARA

1926ko abenduaren 13an, Santa Luzia egunean, jaio zen Lucia Farras Laskurain, San Antonio auzoan. 94 urte ditu gaur egun, eta, gerratik urte asko igaro badira ere, iltzatuta ditu zenbait oroitzapen. Eskertuta jaso zuen aitortza, hilaren 26an: "Akordatu dira gurekin, pozten naiz".

Nolakoa izan zen erbesteratzea?

Guk gerra ez genuen ikusi. Hasteko, Castrora joan ginen, gure osaba bat hango neska batekin ezkontuta zegoelako. Denbora batez egon ginen han, txalet elegante baten. Handik Cabezón de la Salera joan ginen; han ehungintzarako fabrika bat ze-



Lucia Farras Laskurain, San Martin plazan, zapatuko omenaldiaren ostean. O. ELORTZA

goen. Bergarako emakume batzuek egin zuten lan, sektorea ezagutzen zuten eta. Gero Ribadesellan sekulako itsasontzi bat hartu genuen Frantziara joateko. Frantzian lurreratu bai, baina gero, trenean sartu gintuzten Kataluniara joateko. Gironako herri txiki baten egon ginen, abadearen etxean, abadea ihes eginda zegoelako. Ez dakit zenbat denbora egon ginen han, baina, tropa frankistak gerturatzeko ari zirela enteratzeaz bat, handik eroan gintuzten Frantziarantz; bide hartan bai ikusi genituela bonbak jausten, metraila eta guzti. Gure kamioiari errubera bat irten, eta bide eretzean geratu ginen. Beste kamioi batek lagundu zigun...

Aita, baina, ez zegoen zuekin...

Ez; kontzentrazio-eremu baten zegoen. Aitak izeba bat zuen moja zena eta garai hartan oraindik apaizek eta mojek botere handia zuten; izeba mojarri esker paperak egin zituzten, berriz ere aitarekin elkartu ahal izateko. Biarritz ondoan euskal gobernuak etxe ederra zuen eta osasun arazoren bat zutenak hara eroaten zituzten. Aitaren izeba mojarri

esker lortu genuen aita hara eroatea; gorabehera handiko urteak izan ziren.

1939an bueltatu zineten jaioterrira. Nolako Bergara aurkitu zenuten?

Gure etxean ez zegoen ezer, dena eroan zuten. Aita eskribaua zen, bost hizkuntza zekizkien, eta balio handiko liburuak zituen etxean. Izquierda Republicana-ko militantea ere bazen; hainbat dokumentu konprometigarri zituen, baina amandreak garaiz erre zituen. Hori bai, gure amandrea frankistak baino azkarragoa izan zen liburuekin: kaxa batzuetan sartu, eta ortuan lurperatu zituen. Horrez gain, gure amaren baserritar-soinekoa ere gorde zuen, halakoak beti konfiskatzen zituzten eta.

Zer gertatu zen aitarekin?

1940an Bergarara etortzen saiatu zen, baina atxilotu egin zuten, komisario politikoa izateagatik; 1941eko abenduaren 15ean atera zuten kartzelatik. Etxera etorri zen, baina bi urtera, 1943ko abenduaren 15ean, afaldu ostean ohera sartu eta bertan hil zen, agurririk gabe. Amak ez zuen gerraz hitz egiten; ez adierazi arren, asko sufritu zuen amak gerran.

DEBAGOIENEN
PROFESIONAL LIBERALAK

<p>ABOKATUAK</p> <p>BERNARDINO MAIZTEGI BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>BEGOÑA LASAGABASTER ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08 blasaga@conet.es</p> <p>RAFAEL ARANBURU BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>AHOLKULARITZAK</p> <p>ANDRA MARI AHOLKULARITZA ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxe: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es</p> <p>ALBERDI ASESOREAK BERGARA / Matxiategi 36 Tel.: 943 76 90 83</p>	<p>ARKITEKTOAK</p> <p>BIARK ARKITEKTOAK ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net</p> <p>LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA Arkitektoa eta tradesperson formazioa Tel.: 636 89 92 11 larraitz.arkiestudioa@gmail.com</p> <p>ETXE ADMINISTRATIOAK</p> <p>URIBESALGO ADMINISTRATIOAK ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es</p>
--	---

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Euskal tomatea, mundu osoko hazietatik sortua

Euskal tomatearen 'jack' barietatea eta Aretxabaletako tomatea aztertu ditu Marta Barba Gasso antropologoak bere doktore tesian. Euskal Tomatea markaren barruan 'jack' barietatearen haziek jasaten duten prozesua azaldu du kartzela zaharrean

Jone Olabarria BERGARA

Martxanterek eta Etxaldeko emakumeek antolatuta, *Hazien ekoizpen transnazonala begirada feminista batetik* izeneko hitzaldia izan zen atzo kartzela zaharrean. Debagoienean ezagun den Aretxabaletako tomatea eta Euskal Tomatearen *jack* barietatea aztertu ditu Marta Barba Gasso ikerlariak bere doktore tesian, eta landutako horren berri eman zuen atzo: "Hemen ereiten dugun hazi bat ekoizteko prozesua uste baino askoz konplexuagoa da, eta hainbat lekutan egiten da".



Aretxabaletako tomatea. GOIENA

Bi kasu zehatz

Bi barietatetan zentratu du Barbak bere doktore tesirako ikerketa: Aretxabaletako tomate arrosa eta *jack* tomatea. Hitzaldian zehar, baina, gehiago garatu zuen *jack* tomatearen kasua, ekoizpen prozesu transnazonalagoa duela eta. Aretxabaletako haziaren kasuan ekoizpena lokalagoa dela esan zuen.

Euskal Tomatea, 'jack' haziekin

Jack haziak Euskal Tomatea markaren barruan sartzen direla azaldu du Barbak: "Euskal Tomateak ekoizteko gehien *jack* haziak erabiltzen dira, eta hazi horiek orain Bayern enpresarenak dira. Iruditzen zait badugula zer pentsatu Euskal Tomateak Bayern-ekoak eta haziak Txilen, Txinan edo Peru ekoiztuak direla ikusita".


Euskal Tomatearen ideia "esplotazioa erabilita" sortu diren hazi batzuetan oinarrituta egotearen arriskua azpimarratu

"ARRETA NAGUSIA TOMATEAN JARTZEN DA, BAINA BERDIN ZAIGU HAZIA NONDIK ETORRI DEN"

du: "Urtero aldatzen joaten dira hazien ekoizpenerako lekua, eta gero, demagun, Txiletik Amsterdamera bidaltzen dituzte bestelako prozesuak egitera, handik Andaluziako biberotara askotan, eta bertatik lan-

darea etortzen da Euskal Herriko etxaldeetara".

Herritaren artean ere informazio falta dagoela azaldu du: "Jendeak ez daki, arreta tomatean jartzen da eta berdin zaigu haziak nondik datorren".



Maddi Zumalabek egindako ilustrazioek hazien prozesua biltzen dute. M.Z.

Ikuspuntu feministatik landua

"Feminismoak azken urteetan egin dituen zenbait hausnarketa eta ekarpen ere hazien ekoizpenean aplikatu ahal ditugu egun".

Ilustrazioen laguntzaz

Hitzaldian zehar, eta prozesua hobeto ulertzeko asmotan, Maddi Zumalabe ilustratzaileak egindako ilustrazioak izan ziren ikusgai.

"Poliziaren mapa guztiz kaotikoa da, eskumenak nahasten direlako"

JULEN ARZUAGA EH BILDUKO LEGEBILTZARKIDEA
Eredu polizialaren gaineko hitzaldia egin du asteen

J.O. BERGARA

EH Bilduko legebiltzarkide Julen Arzuaga abokatua Bergaran izan zen martitzenean, UNEDen berbaldia egiten.


1.000 biztanleko zazpi agenteko ratioa dago Euskal Autonomia Erkidegoan; zerk justifikatzen du hori?

Mendebaldeko Europako ratio polizial handiena da. Gatazka politiko batetik dator eta ez da hori arindu nahi, nahiz eta ratioa egun dugun delituen tasarekin lotu beharko litzatekeen. Poliziaren mapa ere guztiz kaotikoa da, eskumenak nahasten direlako; beste begirada batetik ordenatu behar da. Badaude polizia indar batzuk ez ditugunak behar, ez dutelako inolako rolik jokatzeko.

Diozue EAJren mesederako polizia dela egungo ereduaren baitakoa...

EAJk, batez ere, baina baita PSE-EEK beren beharretarako eta interes politikorako eredu bat eraiki dute. Gaur-gaurkoz, sektore batzuekiko departamentuak daukan jarreraren nabari daiteke, langileak direla, gazteak direla, ezker abertzaleko edo sektore politizatu batzuekiko jarrera... Funtzionarioen sektore guztiak gizartearen isla dira: hezkuntza, osasungintza... Zergatik, egun, Ertzaintzaren konposizio kulturala, soziala edo politikoa ez da herri honen isla? Zein da EH Bilduk begi onez ikusten duen eredu poliziala egun?

Bata, eskoziarra da, polizia desarmatu eta ardurak hartzen dituenarekin. Britainia Handiko polizia osoa egon ordez, beharren



Arzuaga, UNEDeko gela nagusian. J.O.

araberako polizia metropolitanoak egiten dira. Nolabait, udaltzaingoaren figura modukoa dutenak; udaltzaingoa da hementxo gertutasun poliziala, jendearekin lan egiten duena, udalak, nolabait, autoritatea ematen dielako, misio bat dutelako. Egun beharko zukeen beste polizia bat goitik, beste funtzio bat betetzen duena, eta hori izango zatekeen kasu honetan Ertzaintza, lan espezializatuagoetarako. Horretarako, piramideari buelta eman behar zaio; pertsonal asko herrietan, gertutasuneko edo lan komunitarioa egiten, eta pertsona gutxiago lan espezializatueta. Kataluniakoa ere begiz onez ikusten dugu; batez ere, CUPek eta ERCK bultzatutako brigada mugikorraren desegitea. Hemen ere desagertu beharko luke, eta egoera liskartsuetan nola interbenitu aztertu.

OHARRAK

Mendia Bizirik sailaren topaketa informatiboa

Pol-Poleko Mendia Bizirik sailak natura eta bioaniztasuna sustatzeko urtean zehar hainbat ekintza egiten ditu, bertako fauna, landaretza eta natura-guneak ezagutzeko. Aurtengo ekintzen berri zehatzago izan edo parte hartzeko, bilera irekia egingo dute hilaren 30ean, 18:30ean, Pol-Polen egoitzan.

Osintxuko eskolako azokarako material bilteta

Osintxuko eskolaren aldeko bigarren eskuko azokarako material bilteta egingo dute maiatzaren 8an, 10:00etan, plazan. Etxeko arropak, altzariak, umeendako jostailuak edo beste edozein gauza eramateko aukera dago, bertan saltzeko. Osintxu jasotzen dituzte, 615 73 45 53 telefonora deituta.

Datorren denboraldian lehiari berrekiteko zain

Bergara Kirol Elkarteko saskibaloia saileko hamar taldeetatik mutilen errendimendu mailako kadeteek bakarrik jokatuko dute partiduren bat sasoi amaitu bitartean; gainontzekoak entrenatzen dabilta, Labegaraietan eta Mariaren Lagundiko kantzian

Hasier Larrea BERGARA

Maiatza ate joka dagoen arren, urtea hasi zenetik ia ez dute txapelketarik jokatuko aukerarik izan Bergarako saskibaloia taldeek. Irailean kadeteek eta seniorrek denboraldiari norgehiagoka ofizialak jokatzen ekin bazioten ere, federazioek berehala eten zituzten herriko taldeak parte hartzen zebiltzan ligak, osasun egoeraren kaskartzeara medio. "Gizonezkoetan zein emakumezkoetan, seniorrek, juniorrek, kadeteek eta infantilek astean zehar soilik entrenamenduak egitearekin konformatu behar izan dute", adierazi du BKEko saskibaloia saileko presidente Marian Melladok.

Aurtengo lehortean oasi txiki bat agertu zen joan den asteburuan, mutilen kadete mailako errendimenduko ligako taldeak Euskal Ligara igotzeko kanporaketan parte hartzeko gonbidapena izan baitzuen. Melladok azaldu duenez, "Euskal Ligan bi plaza zeuden hutsik; eta beheko ligan gaudenoi esan ziguten ea kopa txiki bat jokatu nahi genuen; baiezko erantzuna eman genion Federazioari". Gauzak horrela, hilaren 24an, La Cerve Askatuaren kantzara, Donostiara, joan ziren saskibaloia jokalariek, finalerdi kutsuko neurketari aurre egiteko. Irabazlea zuzenean sailkatuko zen datorren denboraldiko Euskal Ligarako. Hala ere, herriko taldea ez zen aurkaria garaitzeko gai izan.

Kontuak kontu, hor ez da amaituko talde horren aurtengo ibilbidea, jokalariek lagunarteko txapelketa batean parte hartuko baitute maiatz eta ekain artean.

Instalazio berritua

Albiste onak ere jaso ditu, halaber, saskibaloia sailak, Labegaraietako kiroldegi berriak atek ireki baitzituen otsailaren hasieran, herriko kirolariei zer-



Mutilen kadete errendimenduko jokalarien talde argazkia. BKE

SASKIBALOA PRAKTIKATU NAHI DUENAK ATEAK IREKITA DAUZKALA DIO KIROL ELKARTEAK

bitzu integral hobetua eskainita. Saskibaloia saileko presidentek kiroldegia "ondo" dagoela nabarmendu du: "Egin dituzten lanak positiboki baloratzen ditugu, igartzen baita hobekuntza kantzian, saskietan, aldageletan eta gimnasioan, besteak beste".

Nolanahi ere, eragozpen txiki bat ikusten die instalazioei: kirol talde guztien beharrak asetzeko toki falta: "Erabiltzaile asko gaude Labegaraietan, eta ez gara guztiok sartzen; guk, esaterako, Mariaren Lagundian eta kiroldegian entrenatzen gara, txandaka, egutegiaren eta ordu-tegiaren arabera".

Hain zuzen, Mariaren Lagundian aritu dira Labegaraietako obrek iraun duten hilabeteetan entrenatzen. Gainera, astean birritan Arrasateko kiroldegira ere joan izan dira lan-saioak burutzera.

Hiruko txapelketa, "nolabait"

Urteko ekintza ikusgarri eta indartsuenetako bat izaten da herriko saskibaloia sailarentzat San Martin plazan antolatzen duten hiruko txapelketa (3x3). Antolatuko ote duten galdetuta, Melladok "zail" ikusten du, baina argi dauka euren eskuetan dagoena egingo dutela "zerbait" aurrera ateratzeko: "Jokalarien arteko kontaktua debekatzen badute, beste formularen bat pentsatuko dugu; aurreratu dezakedan bakarra da ekainaren 19ko eta 20ko egunak gordeta dauzkagula eta Udala jakitun dela".

Ateak irekita

Bestalde, zuzendaritzatik gogoratu nahi izan dute saskibaloian jokatze gogo duen orok taldekako kirol hori praktikatzeko atek irekita dituela: "Klubaren parte izan nahi dutenak gure ondora erakartzea da orain garrantzitsua".

Gaur-gaurkoz, hiru talde daude seniorretan, bakarra junior mailan eta beste hiruna infantil eta kadeteetan, emakume eta gizonezko kategoriak aintzat hartuta. Saski eskola ere martxan dago, 8 eta 12 urte artekoentzat.

Gipuzkoako finalerdia jokatuko du gaur Lazpiurrek lau eta erdikoan

Lazkaoko Erauskinen kontra neurtuko ditu indarrak kadeteetako bigarren mailako partiduan, 19:45ean

H.L. BERGARA

Bergarako udal pilotalekuak txapelketa ofizialei dagozkien hitzordu ugari jasoko ditu asteburuan zehar. Alde batetik, kadeteetako bigarren mailan, Gipuzkoako lau eta erdiko finalerako txartela izango dute jokoan gaur arratsaldean Bergarako pilota elkarteko Lazpiurrek eta Lazkaoko elkarteko Erauskinak.

Etzi, ostera, Udaberri txapelketako neurketetan onena ematen saiatuko dira pilotari bergararrak. Lazpiurrek eta Gilek osatutako bikotea Oiartzunen

aurka saiatuko da irabazten gazteen bigarren mailako norgehiagokan. Ostean, nagusien bigarren mailan, Bergarak eta Iñarrak Aretxabaletako bikotearen aurka jokatuko dute.

11:30ean hasita, gainera, Mendaldeko lau eta erdiko finalak jokatuko dituzte. Barrocalek Zestoako Agirre izango du aurkari kadeteetan. Eguerdian izango da nagusitako lehen mailan Etxanizen txanda, eta Azpeitiko Ilunpe elkarteko Egiguren izango du aurrean txapela eskuratzeko lehian.



2019ko udako campuseko neska-mutilak. BKE

Udako futbol campusean izena eman daiteke maiatzaren 7a arte

Bergara Kirol Elkartek ekainaren 21 eta 25 artean antolatuko du hainbat ekintzaz jositako eskaintza

H.L. BERGARA

Futbolarekin lotutako entrenamenduz, jolasez, txangoz eta jokalariek profesionalen bisitaz gozatu nahi duten 2007 eta 2012 urteen artean jaiotako neska-mutilak aukera polita izango dute ikasturtea bukatzearekin bat, BKEko futbol sailak III. Udako Futbol Campusa antolatu baitu aurrean. Horretarako, kanpusbke@gmail.com helbidean eman beharko dute izena. Inskripzio epea joan den astelehenean zabaldu zen, eta datorren ostirala izango da apuntatzeko azken eguna. Partaide bakoitzak

90 euro ordaindu beharko ditu, eta 08:00etatik 09:00ak arteko zaintza zerbitzua aprobetxatu nahi duenak, 10 euro gehiago. Prezioan campuseko kamiseta ofiziala ere sartzen da. Ordainketa egiteko informazio gehiago BKEren Twitter kontuan kontsulta daiteke.

Campusa 09:00etatik 13:00etara garatuko da. Plaza mugatuak egongo direla eta Josu Elorza presidentek aurreratu du "100 eta 120 futbolzale ingururentzat" egongo dela tokia, baita "futbol eskolako protokolo berbera" erabiliko dutela ere.



laz abuztuan Usono parkean egindako emanaldi arrakastatsuetako bat, Indai talde bergararrarekin. GOIENA

Kultura Mahaia, udako denboraldia prestatzen

laz udan egindako ekitaldiek izandako harrera ikusita, aurten ere egitarau "oparoa" prestatzeko lanean ari da Bergarako Kultura Mahaia, Udalarekin batera. Herriko artistei lekua egingo dien egitarau zabala lotzen dabiltzala azaldu dute

Jone Olabarria BERGARA

Aurretik ere sortuta zegoen arren, pandemia garaian hartu du indarra Bergarako Kultura Mahaia. Kultura bere onenean ez dagoen arren, kontsumoa igo egin dela diote Kultura Mahaiko kideek, eta horren adibide dela Bergaran antolatuta diren ekitaldiek herritarrengandik izandako "erantzun beroa".

Herriko eragileei garrantzia

Kulturaren bueltako hainbat alderdi landu gura ditu Kultura Mahaia, eta, aitortu dutenez, hasiak dira aurtengo udara begira egitarau "oparoa" prestatzen. Proiektuek herriko eragileen arteko elkarlana eta elkar eza-gutza sustatzea dute helburu, esaterako, baita *zero kilometro* kontzeptua lantzea ere.

Emakume sortzaileak ahal-duntzeko parekidetasuna lantzea da Kultura Mahaia beste helburuetako bat, baita euskara ardatz aniztasunari lekua egitea eta auzoetara heltzea ere.

Iazko ekitaldien arrakasta

2020ko udako egitaraua prestatzerakoan Kultura Mahaia lan garrantzitsua egin zuela azaldu zuen orduan Udalak, eta aurten ere elkarlanean ari direla azaldu du Kultura Mahaia: "Mahaiaren lan hori gabe ez litzateke udako eskaintza arrakastatsua izango. Gure nahia, desioa eta helburu nagusia Kultura Mahaiaekin lanean jarraitzea da".

Ekintzak, uda osoan

Iazko arrakasta ikusita aurtengo udarako ere "antzeko egitaraua" prestatzen dabiltzala azaldu du Kultura Mahaiko kide Unai Barrutiabengoak: "Lotuta ditugu dagoeneko hainbat ema-

"LOTUTA DITUGU JADA HAINBAT EMANALDI, NAHIZ ETA ORAINDIK AZKEN KONTU BATZUK FALTA DIREN"

naldi, nahiz eta oraindik azken kontu batzuk falta diren. Musika soilik ez, tailerrak, antzezlanak eta halako ekintzak antolatuko ditugu".

Iaz egin bezala, "ezagunagoak" diren artistak ekartzeaz gain herriko musikari eta eragileei lekua eskainiko zaiela azaldu du Kultura Mahaia. Era berean, fokua uztailean jarri nahi izan dutela azaldu du, nahiz eta abuztuan ere izango den zerekin gozatu: "Bizi dugun egoeran, herritarrek kanpora irteteko gogoia dutela uste dugu, eta, ohiko urteetan bezala, abuztuan herritar gutxiago ibiltzen dira herrian".

Bergararrei parte hartzeko deia

Joan den asteburuan egin nahi zuten bileran irekia, baina bertan behera utzi behar izan zuten. Aurrerago egiteko asmoa dutela azaldu eta herritarrek gerturatzera animatu dituzte, *bergara.kultura.mahaia@gmail.com* helbidera idatzita.



NDANK NDANK ELKARTEA

Migrazio istorioek "hunkituta"

Migrazioaren gaiak protagonismoa hartu zuen atzo Seminarixoa. *Miñan* liburuaren egile Amets Arzallus izan zen bertan, eta Ndank Ndank elkarteak migrazioaren bueltan herriko ikastetxeetan egindako lehiaketako sariak banatu zituzten: Idoia Martinez, Nagore Galeano, Aya Akkouch, Naia Aranguren, Enara Mugika, Enara Alberdi, Eider Elorza eta Itsaso Villar.

Chill Mafia ikusteko sarrerak, domekatik aurrera salgai

Orain dela bi urte sortutako Arrotxapea auzoko taldea zeresana ematen ari da, Euskal Herrian ezohikoak diren musikarekin eta estetikarekin. Martxoaren 20an izan ziren Bergaran, Bergarako Ahaztu Barik taldeak antolatuta Telesforo Monzon omentzeko *Loreontzia berreraikiz* jaialdian, eta datorren zapatuan ere izango da

herrian nafarren musikaz gozatzeko aukera; oraingoan, kartzela zaharrean.

Eurekin batera arituko dira taula gainean datorren zapatuan Ben Yart musikaria ere. Bi saiotan egingo dute, lehenengoa 16:30ean izango da eta bigarrena, 18:30ean hasita.

Sarrerak domekatik aurrera, maiatzak 2, eskuratu ahal izango dira, kartzela zaharrean, bost euroren truke. Kartzela zaharretik gogorarazi dute segurtasun neurriak beteko direla.

Lexeia Larrañagaren 'Natura bizia' lana, Seminarixoa ikusgai

Euskal Herriko hogeita bi natur lokalizaziotan filmatu dute dokumentala, eta bertako faunan eta floran jarri dute fokua filmaketak iraun duen 280 egunetan. Euskal kostaldetik hasi eta Nafarroako Pirinioetara eta Bardearaino, paisaiaren biodibertsitatea eta balioa azpimarratu nahi ditu zuzendari bergararrak *Natura bizia* dokumentalean zehar. Domekan eta astelehenean, hilak 2 eta 3, eongongo da Lexeia Larrañagaren lehen film luzea Bergaran ikusteko aukera, Seminarixoa. Bi saioak 18:30ean egingo dituzte, eta sarrera *www.seminarixoa.eus* webgunearen bitartez eros daiteke.

Mikel Antzaren liburu aurkezpena Oloso dorrean, hilaren 5ean

Urko Airtzak eta Mikel Antzak berak gidatuko dute *Arroz urez* liburuaren aurkezpena, eta solasaldia, maiatzaren 5ean, Oloso Dorrean. Euskadi Ta Askatasuna erakundearen sorrera eta amaiera kontatzen ditu liburuak, "edo, behintzat, sorrera eta amaiera bana", autorearen bizitzari lotuak. Introspektzio ariketa baten bidez, Txabi Etxebarriarekin hasi eta tia Luzirekin bukatzen du Mikel Antzak idatzi pertsonal hori.

COVID-19a dela eta, edukiera mugatua izango da eta izena aurrez eman behar da. Astelehene ostiralera egin daiteke, 09:00etatik 14:00etara, 638 12 15 75 telefono zenbakian.



2. atala

'Mehatxua'

Itsu-itsuan erori naiz mehatxuen mundu ilunean.

APIRILAREN 30EAN
'TTAP' ALDIZKARI
DIGITALEAN

HAU EZ DA NIRETZAT

Beste guztiontzat den websaila.

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: **ttap.eus**

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Zahartzaro arrakastatsua izateko bidea ereiten

Antzuolako zazpi erretiratutako memoria tailerra egiten dihardute. Helburua da bizitza kalitatea hobetzea eta autoestimua eta autonomia sustatzea. Amaia Olariaga psikologo eta dinamizatzaileak zahartzaro arrakastatsua izateko gakoak eman ditu

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martxo bukaeran hasi eta ekain bukaera arte, martitzenero egiten dute Landatxopen memoria tailerra –guztira, hamabi saiokoa da ikastaroa-. "Funtzio kognitibo ezberdinak lantzen ditugu teknika ezberdinekin, oroimena, arreta eta hizkuntza lantzen ditugu hainbat ariketari esker. Ahoz nahiz fitxa bidez egiten ditugu ariketak eta etxerako lanak ere bidaltzen dizkiet", azaldu du memoria tailerreko psikologo eta dinamizatzaile Amaia Olariagak.

Autonomia eta arrakasta

Antzuolako talde oso autonomoa dela aitortu du Olariagak. "Bankuko klabea ahaztea, betaurrekoak non utzi ote dituzten gogoratzea... Lehen ahanzturak hasi dituztela aitortu dute. Egia da guztioi gertatzen zaigula, baina adin jakin batetik aurrera areagotu egiten da egoera hori. Horregatik, teknika batzuk erakusten dizkiegu. Horietako bat da erlazio edo lotura bidezko teknika; gauzak gogoratzeko bide ona da gertuko gaiekin loturak egitea; egia hori, talde oso autonomoa da Antzuolako".

Gaitasun kognitiboak landu eta mantendu behar dira; baina harreman sozialak eta ariketa



Memoria tailerreko ikasleak Amaia Olariaga dinamizatzailearekin. MAIDER ARREGI

PRAKTIKA KOGNITIBOAZ GAIN, ARIKETA FISIKOA ETA HARREMAN SOZIALAK SUSTATU BEHAR DIRA

fisikoa egitea ere oso garrantzitsuak direla dio Olariagak. Pandemiaren sasoia, aldiz, eragozpena izaten ari da jardueraren horiek gauzatzeko orduan. "Praktikan jartzen ez badira, galdu egiten dira ohitura horiek. Memoria

tailerron helburua narriadura kognitibo saihestea edo aurreikustea da. Hau da, etorkizuneari egon daitezkeen nahasmenak atzeratzea. Modu horretan, adinekoren bizi kalitatea hobetzen da eta autoestimua eta autonomia sustatzen dira".

Ikastaroko erretiratu gehienak zahartzaro arrakastatsua baten eredu direla deritza psikologoak. "Zahartzaro normala, patologikoa eta arrakastatsua daude; arrakastatsuen baitan, bizitzarekiko konpromisoa hartzen dute eta oso aktiboak dira".



Iralatorre baserriko produktuak. GOIENA

Antzuolarrentzako San Isidro festa egingo dute aurten

Azoka herriko ekoizle eta artisauendako izango da eta maiatzaren 7ra arte eman dezakete izena

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aurten ere ezin izango da ohiko San Isidro festaz gozatu. Hala ere, momentuko osasun egoera aintzat hartuta eta segurtasun neurri guztiak bermatuta, San Isidro azoka egin egingo da datorren maiatzaren 15ean, zapa-tuan. Antzuolako artisau eta ekoizleentzako azoka izango da, eta maiatzaren 7ra arte dute izena emateko aukera, udaletxean.

"Bertakoentzako eta herriko ekoizleentzako azoka izango da. Egunari dagokion ukitua emango diogu; izan ere, baserri giroa kalera ekarri nahi dugu", adie-

razi du Beñardo Kortabarriak, Antzuolako alkateak.

'Ez da kasualitatea' saioa

Arratsaldean, berriz, bertso saio musikatu egingo dute eskolako patioan. Gai jartzaile Saroi Jaurregik jardungo du. Bertsolariak, berriz, Onintza Enbeita, Alaia Martin, Maialen Arzallus eta Oihana Iguaran izango dira. "Umorea, musika, bertsoa, jolasa, gogoeta eta emakumeen arteko konplizitatea uztartzen dituen bertso saio musikatu da".

Sarrerak aurrez hartu behar dira ohiko bideen bitartez.



MAIDER ARREGI


Arizti pareko hesia, konponduta

Orain dela aste batzuk, martxoaren 26an, zehazki, kamioi bat frenorik gabe geratu zen eta errepidetik irten zen; Arizti baserriaren pareko bidegorriko hesiaren aurka talka egin zuen. Zorionez, inork ez zuen minik hartu. Aste batzuk hondatuta egon ostean, Gipuzkoako Diputazioak asteon egin ditu konponketa lanak eta itxura berria jarri du bidegorrian.



AMAIA OLARIAGA
DINAMIZATZAILA

"Ingurune sozialak eta norberaren jarrerak ere asko markatzen du nolako zahartzarora izan nahi dugun erabakitzeke garaian".



LOURDES ARREGI
ERRETIRATUA

"Burua pixka bat nekatzeko ariketa onak egin ditugu; baliotsua da egunerokorako. Bigarrenez egin dut tailer hau, eta oso gustura".



ASIER ARANGUREN
ERRETIRATUA

"Hasieran, ez nuen askorik espero; baina egunak igaro ahala hobekuntza igarri dut. Oso entretenigarriak eta interesgarriak dira ariketak".

"Bizi izaten ari garen egoeraz idatzi dugu"

AINHOA ETXEZARRETA ETA NAHIA GARAIKOETXEA KIIMAK TALDEA

Zorionez, pandemiak ez du sortzaileen belaunaldi gazteen loratzea eten. Antzuolako bi gaztek osatzen dute Kiimak taldea; sorreraz eta erronkez jardun dute GOIENArekin

Maidar Arregi ANTZUOLA

Kiimak taldea Ainhoa Etxezarreta eta Nahia Garaikoetxea sortzaileen proiektua da. Pandemiak, nolabait, sormenerako aukera areagotu egin die bi gazte antzuolarrei, eta proiektuak indarra hartu du kulturarendako sasoirik onena ez den momentu honetan.

Zorionez, pandemiak ez du belaunaldi berrien ibilbidea eten. Nola hasi zenuten ibilbidea?

N.G.: Etxeko telefono dei batekin hasi zen guztia. Ainhoak deitu zidan, M8aren baitan emanaldia egiteko eskaera jaso zuela esanez. Ainhoak jendaurrean esperientzia bazuen; nik, batere ez. Hasieran, ezezkoa eman nion; baina animatu eta elkarrekin abestera bultzatu ninduen. Orduan hasi zen gure ibilbidea.

Letrak zuek konposatzen dituzue.

A.E.: Plazan eskainitako emanaldiarekin asko gozatu genuen, eta argi geneukan jarraitu gura genuela, eta taldea sortu. Jendeari gure mezuak transmititu nahi genizkion. Gure eginkizun nagusia hori izan da: gure letra propioak egin eta helarazi. Guretzako justuak ez diren kontuak transmititu gura ditugu. Jendea kontzientziatu nahi dugu, eta beti mezu bat eman, alegia.

Betidanik izan duzue musikarekiko zaletasuna?

N.G.: Bai. Txikitatik musika formakuntza eskolan nahiz musika eskolan jaso dugu. Trikitia eta gitarra joz nire kasuan, eta Ainhoa gitarra joz eta abesten. Bikote ona egiten genuela uste izan dugu.

Emanaldiak egin dituzue. Nola moldatu zarete?

A.E.: Nahiak eta biok elkarrekin emanaldi bakarra egin dugu, Martxoak 8koa; bakoitza bere aldetik ibili da gauza ezberdinak egiten; orain, edozelan ere, bat egindako proiektuan murgilduta gaude.



Etxezarreta eta Garaikoetxea, Antiguako ermitan. M.A.

"PANDEMIAK, NOLABAIT, ETENALDIA EGIN ETA SORTZEKO AUKERA ERE ESKAINI DIGU"

Pandemiak nola eragin dizue?

N.G.: Egia da pandemiak jende askori okerrerako eragin diola. Guretzako, ordea, onerako izan da. Azterketa garaian ezin izaten gara elkartu eta beti lanpetuta gaude, denborarik gabe; batxilergoko azken urtea egiten ari gara. Pandemia, nolabait, etenaldi bat izan da. Elkartzeko aukera izan dugu eta bizitzan ari ginenaren gainean kantuak idazteko aukera izan dugu. Adibidez, pandemia nola bizi dugun kontaktzen duen kantu bat idatzi genuen konfinamendu garaian, eta gure kuadrillari eskaini diogu.

Pandemiak sortzaileei eta kultura ikuskizunei bete-betean eragin die. Nola bizi izan duzue?

A.E.: Esan moduan, pandemian, sortzeko aukera izan dugu; egoera latzen gaineko kontzientzia dugu, eta idazteko gaiak esku-

eskura dituzu. Baina azpimarratu beharrekoa da kontzertuak eskaintzeko, ikusteko eta entseguak egiteko zailtasun handiak egon direla, oro har.

Antzuola musika talde askoren herria izan da. Orain badirudi belaunaldi berria loratzen ari dela?

N.G.: Antzuolan betidanik egon dira musika talde oso aktiboak eta ezagunak. COVID-19a delata, aldiz, geldi dago gaia. Baina Udazken taldea eta beste talde txikiren bat ere bada egun musikaren esparruan. Ea hau guztia pasatzean berriro indartsu ekiten diogun!

Kiimak da zuen sorkuntza proiektuari jarri diozuen izena.

A.E.: Taldeari izena jartzea kosta egin zitzaigun. Mila izen ezberdinen ostean topatu genuen *kiimak* hitza. Maia hizkuntzan *barne poza* esan nahi du. Giro ona transmititzeko egokia dela uste dugu. Momentu egokian agertu da hitza.

Zein erronka duzue esku artean?

A.E.: Gure letraz osatutako kantuak egiten jarraituko dugu. Sare sozialetara ere saltoa eman nahi genuke, eta Youtuben kanal propioa egin gure kantuen bideoak zabaltzeko.



LOKATZA

Euskadiko txapeldunorde

Kadeteen bigarren urteko Euskadiko txirridulari txapelketa jokatu da Araban. Unax Errasti, bigarren helmugaratuta, Euskadiko txapeldunorde izan da. Jokin Askaraik, Ikolan Beasain taldeko txirridulariak, Bolintxo taldeko antzuolarrari aurre hartu zion helmugako aldapan. Azken 23 kilometroak elkarrekin ihes eginda egin zituzten Errastik eta Askaraik.

GORA ETA BEHERA



Ondarreko iturria, berriro zikin-zikin



Beste behin, Ondarreko iturria plastikoz inguratua eta zikin-zikin agertu da. Herritar batek iturria zaintzea denon ardura dela gogora ekarri nahi izan du eta errespetua eskatu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Eguraldiaren eta egoeraren eraginez jende gutxiago dabil kalean. L.Z.L.

Kutsatze-lerroak moztea helburu

la hiru hilabetez COVID-19 kasurik erregistratu ez bada ere, astebeteko epean intzidentzia-maila handia hartu du birusak herrian. Hamaika kasu atzeman dira aurreko zazpi egunetan, eta itxiera perimetralean da Elgeta martitzena ezker

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Gaurko datu eguneraketaren zain, hamaika positibo eta 972,59ko intzidentzia-tasa erregistratu ditu Elgetak astebeteetan. Bilakaera azkarra izan da; izan ere, ia hiru hilabete ziren bate-re positiborik atzematen ez zela herrian. Hain zuzen ere, egunotako agerraldiaren aurretik, urtarrilaren 27an komunikatu zuen Osasun Sailak azken kasu positiboa, eta horren aurretik bi atzeman ziren abenduaren 29an eta beste bat bi egun lehenago, abenduaren 27an. Agerraldi garrantzitsua da; izan ere, pandemia hasi zenetik ez da Elgetan horrelako kasu kopuru metaturik izan.

2020ko azaroa izan zen hila-beterik txarrena, eta hamabost kasu izan ziren, baina 28 eguneko epean. Abenduan hamabi positibo erregistratu ziren eta

urrian, hamar. Gaur emango diogu amaiera apirilari, eta gaur argitaratuko dira atzo egindako proben emaitzak. Horiek kontuan hartu gabe dagoneko badira hamaika kasu eta zazpi eguneko epean erregistratu dira. Hilaren 22an, eguna, hiru positibo baieztatu ziren, 23an bat eta 24an beste hiru. Herenegun, berriz, lau kasu berri kontabilizatu ziren.

Kasu horietako batzuk eskola adinean diren neska-mutikoen artean atzeman dira. Hain zuzen ere, Osasun Sailak baheketan egin du LH-2ko gelan, eta ikas-

le horiek etxean daude, gutxienez, maiatzaren 2ra arte. Lau positibo erregistratu dira.

Itxiera perimetrala

Datu bilakaera horrekin, martitzena ezker itxiera perimetralean

**HAMAIIKA POSITIBO
ETA 972,59KO
INTZIDENTZIA-TASA
ERREGISTRATU DITU
ELGETAK ASTEON**

Ludoteka zerbitzua, oraingoz, itxita

Atzemandako COVID-19 kasuek eragina izan dute ludoteka zerbitzuan. Egunotako positiboaren artean zerbitzuko hiru erabilzaile daude, eta ludoteka itxita dago astelehena ezker. Iraitx Lazkano alkateak eta Hezkuntza zinegotzi Ibai Etxanizek azaldu dute Udalak %100 bete duela Osakidetzak esandakoa. "Ostiral goizean ailegatu zen lehen abisua gurasoen partetik bi positibo zeudela. Ludotekako protokoloa oso zorrotza da; bi burbuila daude, tenperatura hartzen da sarrera-irteeretan, hezitzaileek FFP2 musukoak dituzte, egunegun jasotzen da ze erabilzaile egon diren... Berehala, asteko parte hartzeak hartu, eta zuzenean jarri ginen harremanetan eskolarekin", azaldu du Etxanizek; eta zehaztu du Udalak eskolarekin batera duela definituta ludotekako protokoloa. "Arratsaldera arte ez genuen Osakidetzaren deirik jaso. Pausoz pauso azaldu zitzaizkien asistentzia datuak zeintzuk ziren, eta esan ziguten ez zegoela kontaktu zuzenik. Hezitzaileak ere ez ziren kontaktu zuzena Osakidetzarentzat".

Hurrengo egunean, hirugarren positibo bat erregistratu zen, eta Osakidetzak erabaki zuen LH-2ko gelan baheketan egitea. "Osakidetzak ez badu erabaki ludotekan baheketan egitea izango da estimatu duelako ez dagoela beharrik", azaldu du Lazkanok.

Bi hezitzaileek, negatibo

Udal ordezkariak azaldu dute mutuak horrela erabakita daudela bi langileak bajaran. "Hori da ludoteka itxita egoteko motiboa; ez COVID-19 kasuak egon izana edo kutsatze arriskua dagoelako (...) Mutuaren eta Osakidetzako irizpide desberdintasunarekin harrituta, Osakidetzarengana jo genuen, berriz ere. Datuak berriz aztertu dira Osakidetzarekin, eta jarraitzen dute esaten ez dagoela kontaktu zuzenik ludoteka zerbitzuan". Bi hezitzaileei bina proba egin zaizkie, eta biek eman dute negatibo.


da Elgeta; astelehenean berraztertuko du egoera Osasun Sailak.

Bost mila biztanletik beherako herrien kasuan, hiru baldintza betetzen direnean ezartzen da itxiera perimetrala. Uneotan, hirurak betetzen ditu Elgetak: intzidentzia-tasa metaturik 400dik gorakoa da -972,59-; dagokion osasun eremuan intzidentzia-tasa 400dik gorakoa da -ESI Debagoienan 457,62 da-; eta azken zazpi egunetan lau kasu positibotik gora egon dira -hamaika-. Hala, eremu gorrian egoteak murrizketak ekarri ditu.

Taberna barruak, esaterako, itxita daude, ez bada 06:30-09:30 eta 13:00- 16:30 tarteeetan. "Jende gutxiago ibili da, baina ez nuke soilik pandemiarekin lotuko. Hil amaieran beti ibiltzen da jende gutxiago, eta eguraldiak ez du lagundu", azaldu du El Rincon de Lola tabernako Maria Cobosek. "Menuekin betiko moduan dihardugu, baina, gainerakoan, asko jaitsi da. Eguraldiak ere ez du lagundu", esan du Bolatokiko Mari Carmen Salasek. "Aste honetan galerak handiagoak izan dira irabaziak baino".

Positiboen bilakaera Elgetan

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA



Asteoko datuak

Eguna	Positiboak	Tasa
22, eguena	3	265,25
23, barikua	1	-
24, zapatua	3	-
25, domeka	0	618,92
26, astelehena	0	618,92
27, martitzena	0	618,92
28, eguaztena	4	972,59
29, eguena	0	972,59

ITURRIA: OSASUN SAILA

Gogoetara gonbidatzen duen kultura eskaintza

Umoreak bide berriak zabal ditzake, eta plaza publikoan gutxitan agertutako gaiak ekarriko ditu 'Luze do motz' saioak, maiatzaren 9an. Aldiz, mendian gertatutako heriotzak izango ditu hizpide 'Mendian hil, hirian hil' ikus-entzunezkoak, hilaren 24an

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai egiten dute *Luze edo motz* bakarrizketa saioa. Maiatzaren 9an izango dira herriaren. Generoa eta euskara dituzte umorea egiteko ardatz, eta hilekoa, menopausia, emakumeen masturbazioa, ligatzeko kontuak eta sexua jorratuko dituzte. "Eguneroko gure gauza txikiak; emakumeendako oso normalak direnak, baina gizonendako ez hainbeste", esan dute. "Hori bai, ikuskizuna ez da soilik emakumeendako". Frontoiko espasideak erabiltzen dituzte umorea egiteko. "Sexuan gizon askok luze kontatzen dituzte beraien kontistak, baina gizarte hau motz gelditzen da genero kontuetan. Eta oraindik ere, tamalez, bide luzea gelditzen zaigu egiteko".

'Mendian hil, hirian hil'

Maiatzaren 24an, berriz, Iñaki Peñaren *Mendian hil, hirian hil* emango dute Espaloian. Heriotza eta dolua ditu hizpide Arteman komunikazio agentziarekin eginitako lanak, eta mendiko heriotzetan jarri dute fokua. "Jende gaztea izaten da, bat-bateko heriotza traumatikoak izaten dira. Gurasoendako dolu oso berezia da sarreratik, eta anai-arrebendako. Desagerpenak eta suizidioak



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoristak. 'LUZE EDO MOTZ'

SARRERAK DOAN IZANGO DIRA, BAINA, ORAIN ARTE BEZALA, LEKUA ERRESERBATU BEHARKO DA ONLINE

ere izan daitezke". Testigantzetan oinarritutako lana da; ekitaldian izango da Peña.

Ezjakintasun egoeran

Hilabeteotako kultura ekintzak erantzun ona jaso duela azaldu

du Kultura zinegotzi Ane Bilbaok. "Oraingoan, epealdi luzeagoko egitaraua prestatu dugu". Ezjakintasun egoerak ez duela laguntzen dio: "Ez dakigu maiatzaren 9tik aurrera etxeratze agindua egongo den, ostalaritzak ze ordutegi izango duen... Hala, ordutegi batzuk aurrerago zehaztuko ditugu".

Aurtengo Ferixa Nagusiko jaien gainean galdetuta, Bilbaok dio erabakia osasun egoeraren garapenaren arabera hartuko dela. Oraingoz, jai batzordea ez da elkartzen.

Haserrea, medikua falta denean ordezkorik jartzen ez delako

Osakidetzak atzeratu egin zituen aurreko asteko egueneko eta barikuko hainbat kontsulta

L.Z.L. ELGETA

Hainbat erabiltzailek salatu dute herriko medikuaren faltan Osakidetzak ez duela Elgetako kontsultarako ordezkorik jartzen, eta, mediku bakarra egotera, zerbitzurik gabe gelditzea dakarrela horrek. Aurreko asteko eguenean eta barikuan sendagilerik ez zegoela eta aurrez hartutako kontsultak atzeratze deiak jaso zituzten pazienteek. Atzo, eguna, ez zen mediku kontsulta presentzialik egon.

Ez da antzerako egoera bat salatzen den lehen aldia. 2017ko

urrian ere publikoki agertu zuten kezka bera hainbat herritarrek, eta sinadura bilketa egin zuten. 2018ko azaroan errepikatuta egin zen egoera. Orduan, eskualde mailako Osakidetzako ordezkariak azaldu zuten egoera puntualak izaten direla, eta gaixoen arretarako daudela Bergaran ere. Pazienteak, ordea, beldur dira zerbitzuan murrizketak ezartzearekin. Oraingoan ere, GOIENA harremanetan jarri da Debagoieneko ESiko ordezkariarekin, baina ez du, oraingoz, erantzunik jaso.

GORA ETA BEHERA



L.Z.L.

Arreta eskatzen duen bidegurutzeara



Istripua izan zen martitzen goizean; auto bat zuzen zihon eta beste bat behetik gora. Txapa istripua izan zen. Ardura osoa ez da bidegurutzeara, baina hobetu daiteke nolabait?

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

'Karakorum' argazki erakusketa

Mikel Alonso argazkilariak 2014ean Pakistango Hushe haranean egindako erretratu sorta egongo da ikusgai maiatzaren 20tik 23ra zeramika gelan. Aurpegiak eta begiradak jaso zituen, mundu hartako "edertasun harrigarria eta muturreko gogortasuna" kaptatzeko. Udalak, Baltistan Fundazioak eta Kantsatzeke Mendi Taldeak antolatu dute.



Mikel Alonsoren bildumaren argazkietako bat. MIKEL ALONSO

Bost erabiltzailek eman dute izena haur eskola zerbitzuan

Gutxienez, hiru erabiltzaile behar dira haur eskola zabalik mantentzeko, eta ikasturte honetako erabiltzaile guztiak eskolan hastekoak direla kontuan hartuta bazen kezka. Ikasturte berrirako izen-emate epealdian, ordea, lau neska-mutiko apuntatu dira irailan hasteko eta bosgarren bat urrian hasteko. Zerbitzua, beraz, ziurtatuta dago.

OHARRAK

Batzarra atzeratuta

Gaztelekuak gaur egitekoa zen batzar batera deituta zeuzkan 11-14 urteko nerabeak. Pandemia egoera dela eta atzeratu egin dute hitzordua.

Zura eskuragarri

San Roke ostean egindako inausketen zura eskainiko du, Udalak, prezio berezian. Hitzordua da astelehenean, 18:00etan, San Roke ostean.



Bixente Urrutia, Mirari Zilaurren, Izaro Elorza, Jone Urzelai eta Lander Diaz de Gereñu, bidegorriko zati berrian. J.I.

Lanera bizikletan joateko aitzakiarik ezin jarri

Dagoeneko prest dago Santxolopeztegi auzoan bidegorritik industrialdera igotzeko bidea, 100 bat metroko tartea. Industrialdean lantegiak dituzten Lana, Fagor Industrial eta Ulma kooperatibek hamarna mila euro jarri dituzte

Oihana Elortza OÑATI

Bukatuta eta dagoeneko erabilgarri dago Santxolopeztegi auzoan bidegorritik industrialdera igotzeko bidea. 100 metro inguruko tartea da, lanera bizikletaz joaten zirenei seguruago joateko aukera emango diena, eta joaten ez zirenei horretara anima daitezen gauzak errazteko. Izan ere, orain arte, Santxolopeztegi industrialdera bizikletaz joaten zirenek Zubillagarako biribilgunean errepidera irteten behar izaten zuten, bidegorria utzita.

Enprekin elkarlanean

Lehenago galtzada egokitu eta galtzada eta harlauza erdi bana jarri dute lehenengo zatian, eta asfaltoa bigarrean, bizikleta eta patineteentzat aproposa izan dadin. Lanek 150.000 euroko kostua izan dute. Eusko Jaur-laritzak 47.500 euroko dirulaguntza eman du, eta industrialdean lantegiak dituzten Lana, Fagor Industrial eta Ulma koo-

peratibek hamarna mila euro jarri dituzte. 500 langile inguru joaten dira egunero lantegiotara, baina gehiago ere badira industrialdean lan egiten dutenak. "Lehen, ez zegoen segurtasunik eta arriskutsua izan zitekeen; beraz, proiektuaren berri jakin genuenean, berehala egin genuen bat", adierazi du Fagor Industrialeko presidentek, Jone Urzelaiak. Lanakoak, Mirari Zilaurrenek, alde onak ikusten dizkio bidegorri horri: "Onura da enpresentzat, eta baita paseoan datozenentzat eta auzoarentzat, ikusarazi egiten duelako". Eta biek ados dago Ulmako lehendakari Lander Diaz de Gereñu ere: "Langileak era jasagarriagoan etor daitezten nahi dugu,

**OÑATI
INDUSTRIALDE GUZTIEK
DUTE OINEZ EDO
BIZIKLETAZ IRISTEKO
SARBIDE PROPIOA**

ez aparkalekua autoz beteta ikustea. Bestalde, bide hau egitea zoragarria da, aitzakiak jartzen dituenari aitzakia kentzen diozu". Udalak eskertu egin du enpresek finantzaketan parte hartu izana. "Halako proiektu baten elkarlanean aritzea beti da positiboa, eta horrek erraztu egin du proiektua aurrera eramatea", esan du alkateak, Izaro Elorzak. Zerbitzuetako eta Landa Garapeneko zinegotzi Bixente Urrutiak, berriz, azaldu du obra horrekin Oñati eta Elorregi arteko bidegorriak hasiera batean zuen trazatu zatia berreskuratu duela. "Stadler eta Fagor Industrial artean lur mugikorra dago, eta, entzuna dudanez, Moyuak esan zuen hondeamakinak ez zituela han sartuko; pareta handiak egin behar ziren... Orduan, Aldundiak erabaki zuen behetik egitea bidegorria".

Magdalenako ermita inguruko iturri zaharra ere berreskuratu dute lan horiekin batera.



Hitzaldia izan zen Santa Ana aretoaren aurrean egin zuten elkarretaratzea. T.M.

Protesta egin dute Cristina Martinen hitzaldia dela eta

"Eskuin muturreko agenda zabaltzen" ari dela eta hori ez dela onargarria esateko egin zuten elkarretaratzea

O.E. OÑATI

Besteak beste, pandemiaren eta aldaketa klimatikoaren negazionista eta abortuaren, eutanasiaren eta mugimendu feministaren kontrakoa izatea egozten diote protestaren deitzaileek Cristina Martini, eta hark igorritako mezuen inguruan ohar-tarazi gura izan zuten ekitaldian. "Eta jendeari esatea adi ibiltzeko, eskuin mutur berria hartzen ari den formaz, negazionismoaren bueltan ari dela propaganda zabaltzen".

InformaTu taldeak gonbidatuta etorri zen Martin Oñatira.

Kideek ez dute GOIENArako adierazpenik egin gura izan, baina ohar batean azaldu dute elkartearen helburua dela hainbat arlotako profesionalen ikerketak, lanak eta iritziak publikoki agertzea. Gaineratu dute protesta adierazpen askatasunaren kontrako eraso dela. Martinek berak harridura agertu du bere inguruan esandakoei buruz: "Informatzen duzunean ez duzu inposatzen". Hitzaldia normaltasunez egin zen. Udalarena den Santa Ana aretoan zeudenen artean askok ez zituzten maskarak jarrita.

Bost tontorretara iritsi gura du Sarek maiatzaren 8an

Urriaren egitekoak ziren Izan Bidea ekimena maiatzaren 8rako deitu du Sarek. Euskal Herriko 650 menditara igotzeko erronka egingo dute herriz herri, eta Oñati ere batu da ekimenera. Herriko bost menditara igo gura dute egun horretan: Orkatzategi, Andarto, Gorgomendi, Artzanburu eta Arranoaitz. Presoak Euskal Herrira hurbiltzeko eta gaixo daudenak etxean egon behar dutela aldarrikatzeko ekintza izango da.

Nor bere martxan igoko da tontorrera, oinez, korrika zein bizikletan, azkarrago edo motelago. Izan ere, asmoa da 11:30ean bost tontorretan talde argazkia ateratzea.

Lau garaje-plaza alokairuan emango ditu Udalak

Bidebarrieta kaleko 22. zenbakian dauden lau garaje errentan emango ditu Udalak. Zozketa bidez esleituko ditu eta interesa duenak eskaera-orri bete behar du HAZ bulegoan; maiatzaren 23a da horretarako azken eguna.

Bost urterako errenta-kontratu egingo du herritarrak Udalarekin eta hilean ordaindu beharreko alokairua 63,38 euro izango da, BEZa barne. Alokatzeko duenak 18 urte beteta izan behar du, eta turismo erako ibilgailu baten jabe izan. Ezin izango du inolako obrarik egin garajeetan, ezta gune komunitarioan ere. Garaje bakoitzak 13,25 metro karratu ditu, eta laurak dira berdinak.

Kale-izendegia osatzeko diren plakak jarri dituzte

Herriko kale edo auzune batzuek ez zuten izenaren plakarik jarrita orain arte: Olakua, San Lorentzo, Ugarkalde eta San Martin auzoek, esaterako. Ibarako eta Roke Azkuneko plakak, besteak beste, ordezkatu egin dituzte. Guztira, 22 jarri dituzte

Oihana Elortza OÑATI

Arantzazuko Ama kalea, San Lorentzo edo Olakua auzoa ez dira berriak, baina orain arte ez dute kalearen izena daraman plakarik izan. Orain badute. Kale-izendegia osatzeko 22 plaka berri jarri dituzte, horietako batzuk aspaldiko auzune edo kaleetan. Beste batzuk kale berrienetan jarri dituzte eta beste zenbait zaharrekin ordezkatu dituzte, hondatuta zeudelako.

Izena eta herriaren armarrria

Jarritako 22 plaka berriak karratuak eta zuriak dira, harrizkoak dirudite, baina polimero-hormigoiz egindakoak dira. Gainera, kalearen izena ez ezik, Oñatiko armarrriaren irudia ere itsatsita dute izkina batean. "Lehendik datorren ideia da, eta orain gauzatu ahal izan duguna. Oñatin bertan, Ulman egin dituzte plakak, eta, orain arte modukoak izan ordez, polimeroz egindakoak dira. Eredu bat egin zuten lehenbizi, eta gero, beste guztiak", dio Zerbitzuetako eta Landa Garapeneko zinegotzi Bixente Urrutiak. Eta gaineratu: "Mapetan agertzen ziren kale edo auzoen izenak, GPSa erabiltzailek ere ateraino helduko ziren asko, baina hainbat kaletako izena ez zegoen bistan, kalean bertan jarrita, eta orain bai".

Aspaldikoak eta berriak

Jarri dituzten 22 plaka berri horietatik hamahiru orain arte plakarik ez zuten kaleetan jarri dituzte; aspaldikoak batzuk, azken urteetan sortutako auzoak beste batzuk. Adibidez, aurrez plakarik ez zuten kaleak ziren: Arantzazuko Ama kalea, Auza-barri, Kalegoiena, Kurtzekua, Olakua (3 plaka), San Lorentzo (2 plaka), San Martin (2 plaka) eta Ugarkalde (2 plaka). Eta lehenengo zaharrak berriekin ordezkatu dituzte hemen: Aita Lizarralde kalea (2 plaka), Erre-



Kalegoiena izena duen plaka dagokion kalean jarrita. M.S.

kalde (2 plaka), Gerriko kantoia, Ibarra zelaia, Roke Azkune (2) eta Moiuua kalea.

Udal brigadako langileak ibili dira kale izenen plaka berriak jartzeko. Aurreko egunetan amaitu dute lana. Bi jarri dituzten

tokietan, kalearen hasieran eta amaieran kokatu dute bana. Olakua auzoan, erdi inguruan jarri dute hirugarrena. Kaleko eraikin bateko fatxadari jarri dituzte denak, lurretik altuera batera, ikusteko moduan.

Polimero-hormigoiz egindakoak

Oñatiko Ulma Architectural kooperatibaren egin dituzte kale izendegia osatzeko plaka berri horiek. Karratuak dira, 45x30 zentimetro dituzte eta polimeroz daude eginda. Bergararik ekarri dute moldeak, polimero-hormigoiz bete gero, binilozko letrak jarri, lehendabizi 3D eskanerrarekin egindako armarrria itsasi eta azkenik garbitu egin dituzte plakak horiek.

Inhar Minguez eta Iñigo Anduaga dira lan horretan ibili diren langileetako bi. Euren esanetan, polimero-hormigoia oso material gogorra da, ez du pororik eta oso aproposa da kanpoko egituretan erabiltzeko. Edozein forma har dezakeela ere gaineratu dute, oso moldakorra dela eta ondo egokitzen dela kanpoko tenperaturetara. Orain arteko plakak baino luzaragoan iraungo ei dute horiek, polimeroagatik.

Udaletik jaso zuten proposamena plaka hauek egiteko; horrelakoak egin dituzten lehen aldia da. Baina hiri-altzariak egiten hasita daude. Zubillagako bidegorrian, zubi ondoan, dagoen eserleku bat, esaterako, polimero-hormigoiarekin egindakoa da. Kaleetan jartzeko argi puntuak edo lanparak ere egin dituzte material horrekin eta orain kale izendegia osatzeko plakak ere sartu dituzte euren produktu berrien artean. Oñatiko Udala lehena izan da eskatzen, baina etor daitezke eskaera gehiago.



Begirada Aidia programaren aurkezpenean, eguaztenez. J.J.

Herritar sarea sortu gura dute, bakarrik daudenak detektatzeko

Bakardade egoera bizitzen egon daitezkeen adin nagusikoak detektatuko lituzketenak osatuko lukete

O.E. OÑATI

Oñatiko Udala, SSI Taldea eta Bizipoz kooperatiba herrian martxan jartzekoak diren Begirada Aida izeneko ekimena aurkeztu dute astean. *Antena sozial* deitzen dituztenak dira ekimenaren gakoak, bakardade egoeran egon daitezkeen adin nagusikoak detektatuko lituzketenak.

Herritar arruntak izan daitezke

Pertsona horiek herritar arruntak izan daitezke, edo nagusiek ohiko dituzten guneetan dihardutenak: erretiratuaren elkarteetako erabiltzaileak edo langileak; edo okindegi, ile-apaindegi, farmazia eta osasun zentroetan lan egiten dutenak, esate baterako. Auzo alkateekin ere jarriko dira harremanetan. Horiek akordioak egingo dituzte ekimenaren bultzatzaileak, bertan parte hartu eta antena sozial

lana egin dezaten. Bakardade egoera hori bizi duten pertsonak detektatuta, ekimeneko ardura-dunekin harremanetan jarri –688 67 96 67 (Ana Vega)–, eta horiek taldetxoak eratu dute, eta kafe bat hartzea gonbidatuko dituzte, bakardade egoeran dauden pertsona horiek harreman berriak egiteko aukera izan dezaten. Horrez gainera, Udaletik jaso ditzaketen gizarte zerbitzuen edo bestelako elkarteek izan ditzaketen ekimenen berri emango diete.

Oñatin, herritarren %25 da 65 urtetik gorakoa, eta, zenbait adierazleren arabera, era esanguratsuan handitzen ibil daiteke aipatutakoak moduko beharren bat izan dezaketen pertsonen kopurua. Etxez etxeko zerbitzuaren eskariak, adibidez, gora egin du; hain zuzen ere, azken bi urteetan 5.000 orduko gorakada izan du.

Azken eguna da gaur udaleku irekietan izena emateko

Ekainaren 28tik uztailearen 23ra izango dira aurtengo udaleku irekiak, eta gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna. Aurten, baina, Internet bidez egin behar da, udal webgunean sartuta; ziurtagiria eta umearen tutore baten nortasun agiriaren kopia atxiki beharko dira izen-emate orrira. Gehienez, 400 ume hartuko dituzte.

Pentsioen aldeko elkarretaratzea Olakuan da gaur

Hileko azken egubakoitzetan egin ohi duten moduan, gaur, apirilak 30, Olakua auzoko urmaelaren ondoan egingo dute pentsio duinen aldeko kale agerraldia. 12:00etan izango da. Astelehenetan Foruen plazan egiten dute, astero, duela hiru urtetik, eta hurrengo astelehenetan ere hantxe izango dira, ohiko orduan, eguerdian.

"Igarri dut publikoaren berotasuna lasterketan"

Lehenengoz hartu du parte, aulkian, Joseba Azkarate paratriatletak Oñatiko duatloian, eta erakustaldia egin zuen bai gainontzeko triatleten aurrean, baita herritarren aurrean ere; hala, "aurrerapauso handia" eman dutela azaldu du

Amaia Txintxurreta OÑATI

Zapatuko Oñatiko duatloiko 360 parte-hartzailetatik, lehenak izan ziren abiatzen paratriatletak; tartean, Joseba Azkarate oñatiarra. Zirkuituan sufritu egin zuela adierazi du, baina, aldi berean, gustura gelditu zela egingakoarekin: "Zirkuituak

izan zituen guretzako zail samarrak ziren aldapak, bero asko ere egin zuen, eta nik, tetraplegia duten beste batzuek bezala, temperatura ez dut erregulatzen, eta beroarekin nahiko gaizki pasa nuen. Bestela, gustura gelditu nintzen; igarri dut publi-

koaren berotasuna, nahiz eta pandemia egoeran gauden".

Azkaratek gaineratu du zapatuko "aurrerapauso handia" izan zela guztiendako: "Antxintxikatik nahi duguna da kirola erabiltzea osasuna hobetzeko eta integrazio gisa. Ziur nago Oñatin lehenengo aldiz ikusi zuela zapatuan jendeak atletismoko aulki bat eta *handbike* bat lanean. Erakusleihu bat izan zen. Pertsonalki ere lortu dut herriko duatloian parte hartzea, eta talde moduan sustraiak errotzen goazela ikus daiteke. Oraindik asko dago egiteko, baina zabaldu dugu bidea".

Antolatzaileak, pozik

Aloña Mendi Triatloi Taldeko Andoni Correasek aurtengoaren balorazio positiboa egin du, zailtasunak zailtasun, proba aurrera eramateko gai izan direlako: "Aurtengo edizioa berezia bezain gogorra izan da antolakuntzari dagokionez. Egoerara moldatze-



Joseba Azkarate, zapatuko Oñatiko duatloian, *handbike*-arekin. IMANOL SORIANO

Maiatzaren 8an egingo da lehen txapelketa igerileku berrian

Aurten Aloña Mendik ez du Txantxiku Saria antolatuko, baina laster estreinatuko dute ur putzu berria lehiaketan

A.T. OÑATI

Igeriketako txapelketek ez dute pandemiaren eragin handirik jasan. "Federaziotik asko borrokatu gara, batez ere, Diputazioari baimenak eskatzeko orduan, baina, orokorrean, Gipuzkoan, Euskadin eta Espainia mailan igeriketa txapelketak martxan daude eta gu ere bagabiltza horietan", azaldu du Aloña Mendiko igeriketako entrenatzaile Josune Odriozolak, nahiz eta gaineratu duen egia dela kategoria txikienek ez dutela lehiaketarik denboraldi honetan.

Aurten, herrian hain kuttuna den Txantxiku Saria ezin izango da egin, jende pilaketak saihestu nahi direlako, baina lehen txapelketa maiatzaren 8an egingo dute, eta igerileku berria estreinatu ahal izango dute lehiaketara bertaratuko diren zazpi klubetako igerilariek. Tartean egongo dira, noski, bailarako, Oñatiko eta Bergarako igerilariak. Infantiletatik absolutuetara bitarteko kategoria guztiek hartu ahal izango dute parte eta 15:30ean hasiko da. Odriozolak gaineratu du protokolo berezi



Atzo goizean, Aloña Mendiko igerilariak entrenatzen. JOSUNE ODRIOZOLA

batzuk landu behar izan dituztela, baina pozik dago laster estreinatuko ahal izango delako bederatzi kaletako igerilekua txapelketa batean.

Duela bi aste hasi ziren, gainera, 06:00etan entrenatzen, eta

ko berrikuntza asko egin behar izan ditugu, eta, berritasun hauek lan-zama handiagoa ekartzeaz gain, akats berriak egiteko ateari ireki dizkigu. Beraz, ezer baino lehen, barkatu gure partetik gaizki egindakoak. Muntai handiagoa behar izan dugu, boluntario gehiagoren laguntza, eta azken orduko bajak ere izan ditugu lantaldean. Hala ere, laguntza eskatu dugu eta erantzuna, beste behin, eskertzekoa izan da". Eta eskerrak ere eman nahi

izan dizkie herritarrei eta parte-hartzaileei, hau ere gaineratuta: "Hau, beste behin, ez litzateke posible izango Aloña Mendi Triatloi Taldeak egindako lanik gabe. Gure herrian kirol hori eta bereziki proba hau bizirik mantentzeko urtero egiten duen esfortzuagatik. Orain, denboraldi honetan ireki dugun bide honek beste antolakuntza batzuk aurrera egiteko bultzada bezala balio badu, gure esfortzuak merezi izango du".

Antxintxikakoak, bazkide bila

Antxintxika Triatloi Taldeko kirol egokituko sailak bazkideza kanpaina jarriko du martxan laster. Kanpaina "sailak aurrera jarraitzeko helburuarekin" abiatuko dutela aurreratu du Antxintxikako kide Aitor Rementeriak.

Horrekin, bailarako herri guztietan galdetegi bat betetzeko aukera jarriko dute. Bertan ikusi ahal da bazkide izateko bi aukera egongo direla: 15 euro edo 30 euro ordaintzea urtean. Oñatin, esaterako, leku hauetan egongo da galdetegia betetzeko aukera: Bizipozen, Odriozola harategian, Oñabiken, Caravanas Oñaten, Lizarraldenean, Zapora jatetxean, Zubikoako sarreran eta Madalenako gasolindegian. Bergaran Depor tabernan izango da aukera, baina beste puntu batzuk ere jarriko dituzte, bailarako gainontzeko herrietan bezala. Posta elektronikoz edo telefonoz ere egin ahal izango da bazkide, hauek dira bideak: txoske@yahoo.es helbidera idatzita edo 688 63 51 53 zenbakira deituta. Enpresek ere parte hartu ahal izango dutela gaineratu du Rementeriak.

Horrez gain, eskoletan sentsibilizazio kanpaina batzuk egiteko asmoa ere badaukate, elikadura eta kirola hizpide hartuta, erakusteko gazteei desgaitasunen bat duten meek ere arazoak gandi ditzaketela eta aukera daukatela kirola egiteko, beste pertsona batzuen moduan.

Alex Beristain, hirugarren, Euskadiko lasterketan

Aloña Mendi txirrindularitza taldeko ULMAko Alex Beristain hirugarren sailkatu zen joan zen domekan Arabako Arespalditza herrian izandako gazte mailako Euskadiko lasterketan.

Bere taldeko bakarra izan zen bertan parte hartzen, eta aurreko tropelean joan zen, "indarra gordetzen". Azkenengo kilometro eta erdia falta zela ikusita, esprint ederra egin zuen, nahiz eta bi lehiakidek, azkenean, bera pasatzea lortu zuten. Dena den, gustura gelditu da lasterketan egindakoarekin. "Pozik nago lortutakoarekin, lasterketa hauek ikasteko oso onak dira", adierazi du. Bihar, Nafarroako Aronizko lasterketan lehiatuko da.



Itsaso Pol gidoilari eta zuzendaria, Oñatiko etxe batean, *Aita* film laburra grabatzen ari zirela. ASIER EGAÑA

Film laburren jaialdietara aurkezteko ilusioarekin

Itsaso Pol oñatiarra bere lehen film labor profesionala izango dena grabatzen izan da Aste Santuan Oñatin; lau egunetan egin dituzte grabazioak, herrian eta Arrasaten, eta Madrilgo zein bertako profesionalak izan ditu lagun. Orain, lanaren muntaiarekin dabil

Amaia Txintxurreta OÑATI

Duela hamar urte, zinema ikasketak egitera joan zen Madrilerira Itsaso Pol oñatiarra. Septima Ars eskolan ikasi, eta hainbat ikus-entzunezko lan egin izan ditu ordutik. Baina bere lehen proiektu profesionala izango dena dauka orain esku artean: film labor bat grabatzen izan da Aste Santuan, Oñatin. "Konfinamenduan, aurretik idatzita neukan ideia bati bueltaka aritu nintzen; gustatu, eta film labor bat egiteko gidoia idatzi nuen", azaldu du Polek.

Lantalde profesionala

Gidoilari izateaz gain, *Aita* izenburua daraman film laburreko zuzendaria ere bada oñatiarra. Eta ondoan izan ditu Madrilgo eskolan berarekin batera ikasi zuten profesional batzuk, eta baita beste hainbat herrikide ere. Protagonista, esaterako, bere ahizpa Amaia izan da; Jon Guridi oñatiar gazteak ere hartu du parte, ikastetxeetan deial-

dia egin eta *casting* bat pasa ostean; Arrate Kortabarria, Paula Polo, Ana Arregi eta Ana Bodes ere aktore lanetan ibili dira; ekoizle laguntzailea Nerea Alonso izan da; argazki zuzendaria, Kepa Aranburu; arte zuzendaria, Lezuri Ormazabal; arte laguntzailea, Irene Balzategi; makillajea Ane Picoren esku egon da; soinu teknikaria, Imanol Astudillo izan da; mikrofonolaria, Mikel Letamendi; efektu berezietan, Ander Ugarte, Angel Lera, Iñigo Palacios eta Andoni Galdos izan dira; eta *making-of-a* Uxue Guridiren ardura izan da. Horiez gain, oihartzun handiko bi aktorek ere parte hartu dute: *Amama* pelikulan parte hartu zuen eta

LEHENENGO LAN PROFESIONALAREN GIDOIA IDATZI, ETA ZUZENDARI LANETAN ARI DA ORAIN POL

2015ean Goya sarietarako hautagai izan zen Iraia Eliasek; eta *Handia-n* eta *Alardea* telesailen parte hartutako Iñigo Aranburuk.

Esperientzia "aberasgarria"

Grabazioetan lau egun egin zituzten, sekuentzia gehienak Otadui zuhaitziko etxe batean egin zituzten, eta beste zatitxo bat Arrasaten ere grabatu zuten. "Grabazioa esperientzia polita eta aberasgarria izan da, pozik egon dira bai kanpotik etorritakoak eta baita bertakoak ere. Orain, muntaiarekin gabilta".

Polen asmoa da abuztu alde-rako bukatzea drama generoko film laburra, eta ondoren, hainbat jaialditan aurkezteko gogoia dauka: "Lehenik eta behin, Euskal Herri mailako hainbat jaialditara eraman nahiko nuke lana, eta gero, baita Espainia mailako beste batzuetara ere".

Gustura dago, momentuz, eginga-koarekin, eta bere proiektu profesional horrek oihartzuna izan dezan lan egingo du.

'Graziano, eta beste...' liburua aurkeztu du Ander Lizarralde

Herriko ondarea jaso, ikertu eta zabaltzeko asmoz, hainbat testu eta bertso bildu ditu, urtebeteko lanean

A. T. OÑATI

Gure Bazterrak taldearen izenean argitaratu arren, *Graziano, eta beste...* liburuaren egilea Ander Lizarralde oñatiarra da. Hainbat bertso eta beste batzuek argitaratutako testuak bildu ditu lan berrian. "XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan argitaratuta zeuden hainbat testu hartu eta eguneratu ditut; euskara batua ez zen orduan existitzen. Beraz, euskara kontuan hartuta eta grafia zainduaz egin dut lana. Helburua izan da gaur egungo irakurlearentzat irakurterraz egiteko lan bat aurkeztea. Esaterako, 1961eko edo 1956ko testu garrantzitsuak jaso ditut bertan", azaldu du Lizarralde.

Gaineratu du Gure Bazterrak taldea eratu zutenean Oñatiko ondare idatzia berriz ere eguneratu eta eskuragarri jartzeko nahia zutela, eta horren erakusle dela aurkeztu duten liburua.

'Gesaltzako aitona'

Graziano Anduaga Arantzazun, Gesaltza baserrian, 1877an jaio-tako bertsolaria izan zen. Gaztetatik atzeman zitzaion inprobisaziorako gaitasuna, eta baserri lanetan zebilean asmatzen zituen bertsoak. Baserri baten pentsamenduak azaltzen ditu, hain justu, bertsoetan. Horieta-ko batzuk ere jasota daude liburuan. Altuna estankotan dago salgai, 16 eurotan.

Bi bertso musikatu, Youtuben

Hasierako proiektua, liburuaz gain, bertso batzuei musika jarri eta horiek disko batean argitaratzea ere bazen. Diskoa, momentuz, ez dute egingo, baina Jose Mari Anduaga musikariak berak aukeratutako Graziano Anduagaren bi bertsoi musika sortu die, eta horiek Youtuben daude ikusgai, bilatzailean *Graziano Anduaga* jarrita.



Ander Lizarralde, aurkeztu berri duen liburua eskuetan duela. A.T.

'Migraaaantes' antzezlan gaur Santa Ana antzokian

Mundu hobe bat amesten duten milioika pertsonaren garrasia da gaur, egubakoitza, 19:00etan, Santa Ana antzokian aurkeztuko duten *Migraaaantes* antzezlan.

Komedia bat da, eta, zentzuga-bekeriekin eta ironia puntuekin, migrazioaren errealitate "tragi-koari" aurre egiten saiatuko dira Pabellon 6 Gazte Konpainiak aurkeztuko duen ikuskizunean.

Gaztelaniaz eskainiko dute eta hainbat jatorritako migrazio-zaileak, trafikatuak, politikariak eta artistak ikusi ahalko dira. Horiei bizia ematen egongo diren aktoreak, hauek dira: Ioritz Benito, Nagore Cenizo-Arroyo, Albar Cirarda, Lara Perez, Ander Sanchez Rey eta Olfa Sendeni. Antzezlanaren zuzendaria, berriz, Beatriz Velilla da.

Sarrerak, baldin eta dagoeneko ez badira amaitu, behintzat, salgai daude Udalaren webgunean, 10 euroren truke.

Pandemia urtean zilarrak zapo gozoagoa du

DUATLOIA Beñat Arnaiz eta Mikel Mujika podiumeko bigarren kokara igo ziren joan den asteburuan. Oñatin lortu zuen lehenengoak eta Peñiscolan bigarrenak. Lasterketak ia desagertu diren honetan, zorrotz entrenatzen jarraitzeak saria izan du

Xabier Urzelai ARRASATE

"Gustatu egin behar zaizu bizi-modu hau, entrenatzea, norbere burua zaintzea... Sakrifizioak egiten zabiltzala uste baduzu, lasterketak ia desagertu diren honetan hilabete jarraitu dezakezu gogor entrenatzen, baina bigarrenen normalena izaten da motibazioa galdu eta dena bertan behera uztea". Beñat Arnaizen (Aretxabaleta, 1980) berbak dira, triatleta gazteen aurrean Oñatin zilarra jantzi eta oraindik ere gorputzaldi onean dagoela erakutsi ostean. "Gazte izateak baditu bere abantailak, ez dituzte horrenbeste ardura, denbora gehiago daukate entrenatzeko... Baina niri, behintzat, gaztetan gehiago kostatzen zitzaidan egin beharreko horretan zentratzea, eta heldutasunak horixe ematen dizu".

Gazteagoa izanda ere Mikel Mujika (Bergara, 1989) iritsi da heldutasun puntu horretara; alegia, 2020an lasterketak bertan behera geratzen joan ziren neurrian, patxadaz hartu zuen Hawaii ironmana atzeratu izana. "Halako egoeretatik gauza positiboak atera behar dira. Egoera gogorra zen guztiondako, egia da Hawaii atzeratu izanak motibazioan eragin zezakeela, baina entrenatzailearekin berba




Mujika, Peñiscolako helmugan. INFINTRI

eginda atera genuen ondorioa izan zen lanean jarraitu behar genuela, hobetzen jarraitu behar genuela, ondoren lasterketak iristen ziren momentuan aurrerapausoa eman ahal izateko". Eta halaxe egin du bergararrak. "Konfinamenduan, arrabolean

"OÑATIKOEK PROBA ANTOLATU IZANA SEKULAKOA DA, TXALOTZEKOA"

MIKEL MUJIKA, TRIATLETA



Arnaiz eta Goitia, besarkatuta. I.S.

kalitatezko lana egiten saiatu ginen eta ondoren ikusi dugu kokka bat egin dugula aurrera bizikleta gainean. Korrika ere ez nuen askorik galdu, eta egia da igerilekura itzultzea izan dela gogorrena. Kiroldegiak itxita egon zirenez, denbora askoan

"GUSTATU EGIN BEHAR ZAIZU BIZIMODU HAU, JAI DUZU BESTELA"

BEÑAT ARNAIZ, TRIATLETA

egon ginen igeri egin gabe. Hala, horretarako baliatu dut negua, igeri egiteko".

Baina, Arnaizek 2020an dortsalik jantzi ez zuen moduan, Mujika udazkenean lanpetuta ibili zen. "Bost lasterketa egin nituen bi hilabetean. Egia da distantzia luzekoak izanda, akaso, lartxo zela, baina hor erre genituen urte osoko balak". Eta hor ikusi zuen bergararrak udaberrian egindako lanak emaitzak eman zituela: "Oso gustura ibili nintzen. Aranjuezen (Madril) egin nuen lehen triatloia eta bosgarren izan nintzen. Ordura arte, entrenamenduetan egindako lasterketa simulazioetan ikusten nuen ondo nengoela, hori zioten datuek, baina benetako lasterketa batean ez zeuden arte... Eta jarraian, Bilbon egindako distantzia luzeko Espainiako Txapelketan oso-osoa gustura geratu nintzen. Akaso, orain arte egin dudana lasterketa ona izan zen. Hamargarren sailkatu nintzen, baina oso maila oneko triatletak batu ziren bertan; neure burua eurekin borrokan ikustea ederra izan zen".

Antolatzaileen apustua

Hain zuzen, 2021 honetan ostera ere dortsala janzteko ezinbestekoa izan da antolatzaile batzuek probak antolatzeko hartu duten konpromisoa eta lana, eta hor esker berbak baino ez dituzte Arnaizek eta Mujikak. "Txalotzekoa da, esaterako, Oñatikoe egin duten lana; probak bertan behera geratu diren honetan batzuek apustu handia egin dute, zailtasunak baino ez dituzte izan bidean, eta, hala ere, gauzak ondo eta segurtasunarekin egin daitezkeela erakutsi dute". Alde horretatik, Mujikak nabarmendu

du Peñiscolan, esaterako, lasterketak babes handia izan zuela bai atleten, bai herritarren eta baita politikarien partetik ere: "Nabari zen babes hori, eta proba modu ikusgarrian antolatuta zuten, neurriak oso zorrotz beteta. Hala, denboraldia planifikatzeko orduan ikusi genuen Espainiako Federazioaren babesean antolatzen zituzten probek aurrera egiteko aukera gehiago zituztela, protokolo aldetik ere garatuago zuten dena, eta FETRI zirkuituko lasterketak egiteko erabakia hartu nuen. 800 triatleta inguru batu ginen Peñiscolan, eta dena joan zen bikain. Kanpora lehiatzera joatea erabaki dugu, Euskal Herrian dena bertan behera geratu delako. Testuinguru horretan oñatiarrak etxeko lasterketa antolatzera animatu izana txalotzekoa izan da".

Arnaiz bat dator Mujikarekin, jakinda, gainera, Aretxabaletakoarendako Oñatiko lasterketa berezia dela: "2020a probarik egin barik pasa ostean, zapatua egun berezia izan zen. Emazteari komentatu nion lasterketa aurretik oso urduri nengoela, eta hori seinale ona izaten da. Alde horretatik, antolatzaileei eskerrak eman baino ez daukagu".

Hala, dena ondo bidean, maiztaren 8an Murgian egingo duten Zuiako distantzia luzeko lasterketan egingo dute biek bat: "Bi lasterketa hauek egin badietzaket, urtea hasteko modu ederra izango litzateke; oraingoz, ez dut gehiagorik eskatzen", dio Arnaizek. Mujikak, berriz, urriaren 9a du gorriz markatuta: "Hainbatetan atzeratu eta gero, Hawaii ironmanera joateko tramite guztiak eginak ditugu, ea oraingoa posible den".

Eskoriatzak eta Mondratek lehia erabakigarriak dituzte

ARETO FUTBOLA Afantxoren kontra jokatu dute eskoriatzarrek eta Otxartabe etorriko da Musakolara

X.U. ARRASATE

Areto futboleko ligak igoera fasean murgilduta daude eta bai maila nazionalean eta baita Euskal Ligan ere bailarako zenbait talde saltsa politean sartuta daude. Hala, ligan sen-

dotasun handiz ibili eta gero, bai Eskoriatzak eta baita Mondratek ere beherakada izan dute azken asteotan, baina oraindik garaiz daude egoera horri buelta emateko. Lau jardunaldi geratzen zaizkie bie-

ala bie, eta joan den astean, esaterako, Eskoriatzakoak liderraren kontra berdintzeko gauza izan ziren (2-2), eta duela bi aste hartutako kolpetik errekupeartzeko.

Eskoriatzak ez du erraz gora begiratzea, Labastidak 8 puntuko alde dauka eta; gainera, tartean beste talde batzuk ere badaude. Esaterako, bihar kontrario izango den Afantxok (17:00) Eskoriatzak baino bi puntu ditu; kontrario zuzena da, horrenbestez.



Baloia lurretik jokatzen. GOIENA

Mondratek, lau final

Euskal Ligako aurrealdeko postuak ere asko estutu dira, oilar asko daude mailaz igotzeko lehian, eta Mondrate da horietako bat. Domekan, Otxartaberen bisita izango dute arrasatearrek Musakolan (17:30). Orain momentuan, arrasatearrak bigarren daude sailkapenean eta lider dagoen Jarrilleros hiru puntura dago; hain zuzen, talde horren kontra jokatu dute atzealdeko postuetan dauden aretxabaletarrek domekan, Ibarren (11:30).



Oihana Kortazar elgetarra, 2019ko Zegama-Aizkorri, onenen artean egon zen ostera ere. GOIENA

Inoizko euskal selekzio indartsuena, Jaenera

MENDI LASTERKETAK Asteburuan Maginako mendizerrak Espainiako Txapelketa hartuko du, eta euskal selekzioak inoizko talde sendoena eramango du, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere. Oihana Kortazar eta Iñigo Alzola daude tartean

Xabier Urzelai ARRASATE

"Esango nuke inoiz ez dugula Espainiako Txapelketara halako selekzio indartsua eraman", adierazi dio GOIENARI Iñaki Uribe-etxebarria hautatzaileak. Eta eskoriatzarrak nabarmendu du, gainera, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan euskal selekzioa erreferentia izango dela Jaenen. "Badira beste selekzio indartsu batzuk, oso-oso jende ona batuko da Jaenen, baina gu faboritoen taldean izango gara. Ea lasterketa onak egin ditzakegun".

Euskal selekzioa ordezkatu dutenen artean izen garrantzitsuak daude, mendi lasterkari beteranoak, baina baita talentu handiko gazteak ere. Emakumezkoen artean egongo dira, lineako lasterketan, Amaia Razkin, Andrea Garai, Eztizen Duque, Maite Maiora, Maddi Mujika eta Oihana Kortazar. Eta hor, Kortazar elgetarra izango da nobedadeetako bat: "Oihanak urteak daramatza selekzioarekin

lehiatu gabe. Azken batean, babesleak dituzten mendi lasterkariak askotan euren markekin beste konpromiso batzuk izaten dituzte, eta Espainiako Txapelketa beharrean nazioarteko lasterketetan izaten dituzte helburu garrantzitsuak. Orain, baina, lasterketa asko desagertu diren honetan, puntako atleta asko Espainiako Txapelketa izango dira, eta tartean egongo da Kortazar. Min hartuta ez badago, Oihana oso korrikalari erregularra da, eta selekzioarekin lehiatzera animatu da, seguru proba ona egingo duela".

Alzola, bertikalean

Oihana Kortazar lineako lasterketan izango da: "Hori da selek-

NAZIOARTEAN PROBARIK EZ DAGOENEZ, PUNTAKO JENDEA BATUKO DA MAGINA SKY PROBAN

zio moduan gure helburu nagusia, domekako lasterketa". Eta Iñigo Alzola zapatuan egingo duten kilometro bertikalean izango da: "Distantziak begiratzen ibili ginen eta hasieran uste genuen lineako lasterketak 22 kilometro izango zituela. Baina 28 kilometro gogor izango ditu, eta orain momentuan Iñigoren dako distantzia luzeegia da hori. Kontrara, zapatuko kilometro bertikalean lan txukuna egin dezake".

Hala, kilometro bertikala egiteko aukeratuak izan dira Iñigo Alzola, Beñat Catarain, Asier Larruzea, Xabier Zarranz, Gontzal Murgoitio eta Andrea Garai. Eta domekako lasterketarako, berriz, emakumezkoen moduan, gizonezkoen zerrenda euskaldunak errespetua eman die kontrarioei: Ander Barrenetxea, Ander Iñarra, Aritz Egea, Asier Larruzea, Beñat Catarain, Jokin Lizeaga, Onditz Iturbe eta Xabier Zarranz izango dira irteera puntuan.

Udaberri Saria hastear, eta lau eta erdiko finalak asteburuan

PILOTA Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan hainbat txapelketako partiduak jokatuko dituzte gaur eta etzi

X.U. ARRASATE

Asteburuan hasiko dute Udaberri Saria, eta lehenengo jardunaldi honetan, Ibarri dagokionez, partiduak Oñatin (gaur, 18:00) eta Bergaran (domekan, 09:30) jokatuko dituzte. Oñatin hiru lehia izango dira, guztira, eta Bergaran bi.

Lau eta erdiko finalak jokoan

Bestalde, Gipuzkoako lau eta erdiko txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur, egubakoitza, Aretxabaletan (18:30), eta domekan (11:00) Bergaran. Iturri gorri, gaurko lehenengo partidua kadete mailakoena izango da eta bigarren partidua gazte mailakoena. Eta hor, Aretxabaletak ordezkaria izango du, klubeko pilotari Barandiaran finalera iritsi da eta.

Bergaran, berriz, domekan, (11:00) mendebaldeko lau eta



Pilotaria ura edaten. GOIENA

erdiko finalak jokatuko dituzte. Guztira, hiru partidu izango dira, eta lehenengoan eta hirugarrenean bergararrak izango dira tartean. Kadete mailan Barrocal da finalistetako bat eta nagusien mailan Etxaniz ere finalera iritsi da.



Balanzategi, kopa jasotzen. OINTXE

SASKIBALOIA Derbia jokatuko du MU txapeldunak

Multzoko txapeldun izan den MUK dagoeneko poltsikoan dauka igoera faserako txartela, eta asteburuan liga erregularreko azken partidua jokatuko dute. Norgehiagoka etxetik kanpora jokatuko dute, eta gipuzkoarren arteko derbia izango da, moreek Easo izango dute-eta aurrean. Hala, partidua minutuak banatzeko erabil dezake Arri-k; berez, etxeko lanak eginda daude.



Duela bi asteko derbian. GOIENA

FUTBOLA Atzeratutako partidua bihar jokatuko du Bergarak

Joan den astean, koronabirus kasuak tarteko, play-off-ean ze talde egongo diren zehazteko partidua atzeratu egin behar izan zuten. Hala, Mutrikuk eta Bergarak bihar (18:45) jokatuko dute partidu hori. Bergara sailkatuta dago jada, baina UDA mahoneroen garaipenaren zain dago. Ezer jokoan ez duten Mondrak eta Urolak 11:30ean jokatuko dute bihar.

Musika-ondare handia utzita joan da Irizar

Maiatzaren 22an hil zen, 69 urte zituela, Juan Carlos Irizar eskarmentu handiko piano-jolea, konpositorea eta abesbatzen zuzendaria; 30 diskotik gora eta partitura-liburu asko argitaratu zituen, baita hamaika herri eta tokitako ereserkiak sortu ere

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Oñatiko musikariaren heriotzak samina sortu du jaioterrian eta, orokorrean, Euskal Herriko musikariaren esparruan. "Juan Carlos beti izango da gogoratua musika munduan. Hutsune handia utzi du, baina hor geratuko da berak utzi digun ondare handia. Disko mordoa ateratzeaz gainera, euskal musikaren alde lan handia egin zuen, toki askotako pieza ezberdinak berreskuratu zituen, eta musika eskoletan eta beste jarduera batzuetan erabiltzeko modura moldatu", dio Aitor Biain abesbatzen zuzendari oñatiarrak. "Pena handia hartu dugu auzoan, Zubillagan, oraindik emozioa bueltaka darabilgu", gaineratu du Irizarren txikitako lagun eta auzoko Arantza Elortzak.

Jaioterrik kanpo ere mina sentitu dute askok. Esaterako, Arrasateko Aita Menniko langileek eta egoiliarrek; izan ere, Irizar astero, behin baino gehiagotan, joaten zen Gesalibarrera. Hala kontatu du Aita Menni ospitaleko pastoral eta elkartasun proiektuen arduradun Egoitz Zabala: "Oso pozik etortzen zen, baina, gu ere, eta pazienteak, bereziki, oso pozik egoten ziren bere zain. Zuloa utzi du Juan Carlosek, baina



Juan Carlos Irizar, Aita Menniko emakumeen abesbatza zuzentzen AITA MENNI

maitasunarekin eta musikarekin betetzen joango den zuloa izango dela espero dut".

Musikari emankorra

Txikitan murgildu zen Irizar musikan; solfeoa, akordeoia eta txistua ikasi zituen, eta pianoa

"MUSIKARI BIKAINA ETA EMANKORRA; LUXUA DA IRIZARREK UTZI DIGUN ONDAREA"

AITOR BIAIN, KORUEN ZUZENDARIA

eta organoa geroago. Jaioterrian jaso zituen lehen eskolak, Donostiako Kontserbatorioan izan zen ondoren, eta handik Madrilgo, Paueko eta Erromako kontserbatorioetara egin zuen salto orkestra zuzendaritza eta musikaren pedagogia ikastera.

"TXIKITAN ASKO JOLASTEN GINEN BATERA; ATSEGINA ETA LAGUNKOIA ZEN"

ARANTZA ELORTZA, AUZOKOIA

Pasioa zuen musikarekiko, sortzeko egarria ere bai, eta hala argitaratu zituen Euskal Herriko eta nazioarteko toki eta pertsona askoren izena duten piezekin osatutako 30 disko. Ereserkiak edo bestelako pieza asko ere idatzi zituen: Donostia Zinemaldiarena, Eskoriatzako ereserkia -hango musika eskolako zuzendaria izan zen-. Bilboko Mari Jaia martxa, Kilometroak, Eskola Txikiak eta Ibilaldia ekimenetarako kantuak eta film eta dokumentaletako soinua bandak ere bai.

Hamaika partitura-liburu ere argitaratu zituen, eta abesbatzandako euskal kanta asko sortu ere bai. "Txikitatik ezagutzen dut bere musika. Gogoan dut abesbatza askok Irizarren *Kanon umorez* abesten genuela; pertsonalki geroago ezagutu nuen. Musikari bikaina izateaz gainera, ikaragarria da sortu duen material didaktikoa. Gabon doinuak, umeendako kantu asko, herri ezberdinetan jaso dituenak, horien guztien partitura-bildumak asko erabiltzen ditugu eskoletan eta abesbatzetan. Tradizionalak batzuek gainera, gaur egungo kantuen partiturak idatzi ditu pianorako eta abesbatzandako", dio Biainek.

Batutarekin ere trebea

Banda eta abesbatza askotako zuzendaria izan zen; Galdakoko bandan hartu zuen erretiroa. Orain dela bost urte Santa Ana antzokian elkarrekin egin zuten

"OSO INPLIKATUTA ZEGOEN AITA MENNIN, ABESBATZAN ETA PROIEKTU ASKOTAN"

EGOITZ ZABALA, AITA MENNI OSPITALEA

emanaldi baten ostean, sorpresa polita eman zion Aitor Biaini, bandarekin erabiltzen zuen batuta oparitututa. "Asko eskertu nion eta mimo handiz gordetzen dut. Erabili dut eta gehiago erabiltzeko asmoa dut".

Ofizialki erretiroa hartu bazuen ere, astelehenero pozik joaten zen Arrasateko Aita Menni emakumeen abesbatzarekin entseatzera. "Hori zen bere jardun ezagunena gurean, baina ekintza gehiago egiten zituen, beste unitate batzuetan, abesbatzara joan ezin zirenekin proiektu politikak zituen martxan Juan Carlosek, beti musikaren bitartez", azaldu du Zabala.

Elkartasunerako tresna

Proiektu solidario askotan ibili zen Irizar, baina bihotza bereziki ukitzen ziona Aita Menniko Liberiako egoitzaren aldekoa zen. "Disko bat egin zigun, eta hamaika kontzertu eskaini. Oso eskertuta gaude hemen eta han".

Zutarrak ahaztu barik

Gazte zela joan zen herritik, azkeneko urteetan Aizarnabalen bizi zen, baina "ez zuen saltzeko" Oñati; are gutxiago, Zubillaga, bere auzoa. "Atarte berean bizi ginen, eta jolas asko egiten genituen elkarrekin, errekan ibiltzen ginen arrantzan, frontoian jolasean edo sukalde batetik bestera saltoka; oso oroitzen politak ditut. Gerora ere harremana izan dugu, disko bat argitaratu orduko, beti zuen guretako ale bat gordeta. Orain dela gutxi arte, auzoko elkartean egiten zuen auzoko lagunekin bazkaria. Elkarteko ereserkia ere egin zuen orain dela bost urte. Jatorra, atsegina eta lagunkoia zen. Penaz gaude Zubillaga auzoan".

PAUL CASAL

MUSIKARIA

GOIENA TELEBISTA, "GALDEGAZTE"

MAIATZAREN 5EAN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ARETXABALETAKO KURTZEBARRI BHI-KO IKASLEAK ELKARRIZKETATZAILE

goiena
Zu hemen zaude.



Oihana Aranaren poesia bilduma, liburuan jasota

Susa argitaletxearekin argitaratu zuen, astelehenean, 'Lazunak azazkaletan' poesia liburua; Eskoriatzakoak idatzi duen bigarren lanean, gizarteari, zeruko elementuei, harreman sozialei, habitatzen gaituzten espazioei eta gorputzari buruzkoak daude

A. A./ T. Madina ESKORIATZA

Portuetako hoditeriako arraina, korrokoi izenez ere ezagutzen dena, hori da lazuna, eta arrain hori ekarri du Oihana Arana Eskoriatzako bertsolari eta idazle gazteak idatzi duen bigarren liburuaren izenburura. Susa argitaletxearekin argitaratu du, astelehenean aurkeztu zuten eta dagoeneko eskuragarri dago.

Poesia, fikziorako baleko

Bilduma fikzioaren apologia batekin abiatzen dela azaldu du Aranak *Hemen Debagoiena* saioan egindako elkarrizketan. "Beti esan dut joera handia daukagula poesia idazlearen bizipenekin lotzeko; hau da, poesiako *ni* hori sarritan lotzen dugula poetarekin berarekin. Arriskutsua iruditzen zait niri hori, batzuetan horrela delako, eta, inongo dudarik barik, idazten dugunean edo edozer sortzen dugunean gure bizitzan eta bizipenetan oinarritzen gara, baina aldarrikatu nahi izan dut poesian fikzioa egiteko eskubidea; hein baten, egiten da, baina hala irakurria izateko. Alde horretatik, bildumaren lehenengo poema-liburuaren kontrazalean ere dagoena—*Fikzioaren apologia* izenekoa da, zeinetan hori adierazi nahi den liburuaren hasierako marko moduan, irakurleak begirada zabalagotik irakurri dezan liburua, eta ez une oro pentsatzen ni naizela nire bizitzako gauzak kontatzen".

Etxea, marko orokorra

Poemak idaztea ez da Aranarentzako gauza berria, baina serioago hartzeko asmoz abitu zuen abentura berria. "Jolasetik hasi nintzen idazten, nahiko modu libretik. Etxe edo *domestikotasun* kontzeptuaren inguruan hausnartu nahi nuen, eta etxeak zer gordetzen duenarekin jolastu. Hortik sortu dira poemak, momentu hartan nire kezka hori



Oihana Arana eskoriatzarra, gaur egun bizitoki duen Donostian. O. A.

zelako edo ez dakit zergatik, baina hori dela esango nuke liburua marko orokorra".

Zazpi zatitan antolatuta dago. "*Fikzioaren apologia* poemak zabaltzen du sorta eta bost zati handi datoz segidan. Lehenengoan, gizarteari kritika edo gizartean kezkarriak izan daitezkeen gaiak daude, txikitik eta, betiere, inongo galdera handiri erantzun barik. Ondoren, zeruko elementuei buruz eta apur bat zerutik idaztera pasatzen naiz. Pertsonen arteko harremanei buruz jardun dut

hurrengoan, eta *Etxeak* izeneko zatia dago segidan. Habitatzen gaituzten eremuei buruzkoa da, baina etxea kontzeptu zabal moduan ulertuta, etxea izan daitekeelako bizi garen espazio hori edo inguratzen gaituen hori guztiori ere izan daitekeelako; poema domestikoak direla diot nik. Ondoren datorren zatia *Arrainontzi bat buruan jostailuzko eskafandra* izenekoa da, eta gorputzari eta norbere buruari lotuago dauden poemak daude jasota. Eta azkeneko zatia, zazpigarrena, poema bakarra da, post-data moduan jarri dugu liburuaren epitafio moduan".

Aurretik, 'Portuak' eleberria

Elkar argitaletxearekin argitaratu zuen, iaz, Eskoriatzakoak estreinako liburua. "Lan egiteko oso modu ezberdinak izan dira. Batetik, generoagatik, eta, bestetik, *Portuak* enkargu bidez etorri zitzaizkidan proiektua izan zelako; beraz, epe jakin baten eta beste presio batekin idatzi nuen. Eta honako hau idazteko prozesua askoz askeagoa izan da. Ez dakit zein genero aukeratu nukeen, baina azken lanarekin oso gustura geratu naiz".



LAZUNAK AZAZKALETAN

- **Egilea** Oihana Arana.
- **Generoa** Poesia.
- **Argitaletxea** Susa.
- **Orrialdeak** 104.

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira apirileko irabazleak!

CHROMECAST

Oihana Herrasti Perez (Aretxabaleta)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Lide Oregi Arregi (Bergara)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Jabier Uribetxebarria Bolinaga (Arrasate)

Unai Iñarra Lasa (Bergara)

Arantzazu Isasmendi Zubillaga (Arrasate)

ERREKI JATETXERAKO

BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Itziar Garcia Blazquez (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena Klubeko txartele eskutitak, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteledean. Sarrerak hiru hilabeteko epean izango dituzue. **ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK.** Areatz euzoa. OÑATI. 943 08 20 00. Oñatuegia: asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (sareaz deitu hitzordius egiteko). Hemen denda otarrea. **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelearekin. Hemen denda. Areatzako Erroki hipermerkatuan duan dendera. **Chromecast jasotzeko***, zeto GOIENArekin egotzera. Serie jasotzeko, **BAZKIDAREN TXARTELA** erakutsi edota **BAZKIDE ZENBAKIA** adieraz emari behar da GOIENA Otskora Lizenziaduna 31. Areatza. 943 25 05 05. Oñatuegia: asteleheneretik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00

Irabazi bi lagunendako otordua

MAUXKA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: Maiatzak 4

943 25 05 05 klub@goiena.eus

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 89 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

BAZKIDETZA KUOTA: 45€
Deitu: 943 25 05 05 • klub@goiena.eus



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Baserria Oñatin. Oñatin baserri bila gabiltzan Oñatik familia bat gara. Zerbitu jakin edo izanez gero jarri kontaktuan telefono zenbaki honekin: 653 01 71 65

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Erdigunean edo San Andresen garajea edo ganbara bat hartuko genuke errentan, prezio onean. 650 96 23 08

Arrasate. Familia bat gara eta hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Horrelakorik izanez gero, deitu zenbaki honetara. 688 63 46 24

Bergara. Hiru logela eta igogailua dituen etxebizitza errentan hartuko nuke. 660 46 34 93 (Marian)

Bergara. Neska bergararra errentan hartuko etxebizitza bila. Presazkoa da. 690 75 61 18

Udarako baserri bila. Uztaila eta abuztua Debagoienerako baserri edo etxeren baten pasatu nahi dugun familia bat gara. Deitu zenbaki honetara: 666 68 43 37

3. LOKALAK

301. SALDU

Oñati. Merkataritza-lokala saltzen da, Kale-zaharra kaleko 50. zenbakian. 110 metro koadro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 21 51 71

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Etxeko lanetan esperientzia handia duen pertsona baten bila gabiltza. Interesatuok deitu telefonoa zenbaki honetara: 661 94 37 19

Bergara. Adineko emakumea zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat kontratatu nahiko genuke. Egunez, eta astehenerdik ostiralera betetzeko lana izango da. 606 12 14 31

Bergara. Soziosanitario titulua duen neska eskalduna behar dugu, pertsona nagusia zaintzeko, Bergaran. Autoa ezinbestekoa. Informatzeko, idatzi Whatsapp mezua edo deitu zenbaki honetara: 629 55 58 08

402. ESKAERAK

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Etxean zainzea edo adinekoen laguntza. Etxeko garbiketa,

sukaldeko mutila, zerbitzaria. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 642 98 98 06

Arrasate. Esperientzia handia duen neska gaztea, haurrak zein txakurrak zaintzeko prest da goena, edozein ordutan, goizez eta arratsaldez. 618 26 63 61

Arrasate. Neska arduratsua orduka zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04

Bergara edo inguruak. Mutila garbiketan, baserriko lanetan edota nagusiak zaintzeko aritzeko gertu. 67 00 90 26

Bergara. Emakume eskalduna, soziosanitario titulua daukana, eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan lan egiteko. 656 74 78 43

Bergara. Nagusiak zaintzeko prest, arratsaldez, orduka zein asteburuetan eta bertan bizi izaten baita. Gomendio agiriekin. 688 74 00 14

Debagoiena. Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 688 81 08 63

Debagoiena. Asteburuetan, orduka zein jardun osoz, lan egingo nuke. Zaintzan, garbiketan eta abar. 632 25 27 26

Debagoiena. Denetarik garbiketarako egiten eta ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 12 42 42

Debagoiena. Egunean zehar, asteburu eta gauean nagusiak zaintzeko gertu nago. 662 02 45 80

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 661 04 51 49

Debagoiena. Erizain teknikari laguntzaile titulazioa duen emakumea, esperientziarekin eta arduratsua, ospitalean gauak pasatzeko eskaintzen da. 695 02 08 92

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu nagusiak zaindu edota garbiketarako egiteko. Orduka edo egunean zehar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 86 49 00

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko gertu. 602 31 98 60

Debagoiena. Garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 26 22 51

Debagoiena. Gauzez edo orduka pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. Soziosanitario titulua daukat. 659 90 85 13

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: nagusiei kalera lagundu, mandatuak egin eta abar. Baita denetarik garbiketarako ere: tabernak, atariak, baserriak eta abar. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 72 92 87

Debagoiena. Gizona nagusiak zaintzeko edota atari eta abarrak garbitzeko gertu. Soziosanitario titulazioarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 643 73 62 36

Debagoiena. Lan egiteko baimena daukat eta pertsona nagusien zaintzan zein garbiketa lanetan jarduteko prest nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 64 16 09

Debagoiena. Mutil arduratsua lanerako gertu: eraikuntzan, lanbide astun zein arinetan, jostintzan, garbiketan, eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 28 05 29

Debagoiena. Mutila gertu etxean bizi izaten, egunez zein orduka lan egiteko. 633 49 27 40

Debagoiena. Mutila gertu margolari, igeltsu, elektrikari, administrari, zainzaile edota garbitzaile moduan jarduteko. Legezko agiriekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 40 56 65

Debagoiena. Mutila lanerako prest. Esperientzia dut eraikuntzan, zaintzan edota banatzaile lanetan. 677 29 87 99

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu arratsaldetan, gauetan edota asteburuetan egun osoz. Soziosanitario titulazioarekin. 612 49 66 57

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen jarduteko gertu nago, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Titulazioa daukat. 611 18 91 55

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten, gauzez eta aste bukaeratan. Baina egun osoa izaten bada ere, ondo. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 91 49 04

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Esperientzia daukat garbiketan, nagusiak edota umeak zaintzen. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 12 28 56

Debagoiena. Neska eskalduna lan bila: fabrikari, dendan, ostalaritzan, zaintzan eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 79 28 37

Debagoiena. Neska gertu adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Etxeko eta atarietako garbiketarako egiteko. Asteburu eta jai egunetan ere lan egiteko prest. 643 59 76 06

Debagoiena. Neska gertu adinekoak zein umeak zaintzeko. Egunez prest nago; baita asteburu eta jai egunetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 75 03 97

Debagoiena. Neska gertu adinekoak zein umeak zaintzeko. Zerbitzari lanak tabernan ere bai. Egune-

ro prest nago baita asteburu eta jai egunetan ere. 653 59 45 60

Debagoiena. Neska gertu ostiral, zapatu eta domekatarik garbiketa eta lisatze lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 611 24 26 64

Debagoiena. Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Orduka, gauzez, egunez zein ospitalean. Baita etxe edo atariak garbitzeko ere. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriak daukat. Esperientzia eta gomendio gutunak. Autoa ere bai. 603 64 98 53

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 672 55 67 35

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago; orduka edo etxean bertan bizi izaten. 610 99 70 46

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan eta garbiketa lanetan eskarmentu handia duen neska naiz. 631 86 83 69

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egin nahi dut. Garbiketa lanetarako prest nago baita ere. 685 46 91 11

8. DENETARIK

801. SALDU

Lursailak. Lursailak salgai eta errentan ematen dira Aretxabaletan. 618 76 34 40

806. GALDU

Lepokoa galdu da Arrasaten. Lepokoa galdu nuen apirilaren 26an, astelehena, eguerdi aldean, Seber Altube, Arbolapeta, Munar, Fagor eta Zerrajerarako ibilbidean. Gurutze formako txapa bat du, eraztun batekin. Ezkontza eguneko data eta 'Dori eta Monchu' izenak agertzen dira atzean. Balio sentimental handia du. Sarituko da. Ikusi eta bilatu baduzu, eskertuko nuke BAZera eramatea edo zenbaki honetara deitzea: 657 19 84 41

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

MARITXU KAJOI FESTAREN GAIKOKAK

'Hala bazan' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30



GOIENA

KAZETARI GAZTEAK PAUL CASAL MUSIKARIAREKIN

'Galdegazte' Eguaztena, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 30	ZAPATUA, 1	DOMEKA, 2
08:00 Hemen da Miru 29	09:00 Galdegazte: Mirari Sagarazu	08:00 Hemen da Miru 31
08:30 Harmailatik	09:30 Hala Bazan: Maritxu Kajoi	08:30 Hemen da Miru 32
09:00 Debagoiena eraldatzen	10:00 Jakiz jakin: trasformatuak	09:00 Hemen da Miru 30
09:30 Adinberri 48	10:30 Parean pareko: Inon eta Aitor	09:30 Parean pareko: Inon eta Aitor
10:00 Hemen Debagoiena	11:00 Asteko errepasoa	10:00 Guka 2
11:00 Debagoiena eraldatzen	12:00 Osoko bilkura: Bergara	11:15 Hemen Debagoiena
11:30 Hala Bazan: Jaia	13:00 Hemen Debagoiena	12:00 Asteko errepasoa
12:00 Hemen Debagoiena	14:00 Elkarrizketa: Maite Arroitauregi	13:00 Debagoiena eraldatzen
13:00 Hemen da Miru 30	14:30 Asteko errepasoa	13:30 Harira: Mitxel Lakuntza
13:30 Elkarrizketa: Maite Arroitauregi	15:30 Debagoiena eraldatzen	14:00 Parean pareko: Inon eta Aitor
14:00 Hemen Debagoiena	16:00 Hemen Debagoiena	14:30 Hala Bazan: Maritxu Kajoi
15:00 Albistek	17:00 Harira: Mitxel Lakuntza	15:00 Hemen Debagoiena
15:30 Debagoiena eraldatzen	17:30 Galdegazte: Mirari Sagarazu	16:00 Hemen da Miru 30
16:00 Albistek	18:00 Harmailatik	16:30 Parean pareko: Inon eta Aitor
16:30 Elkarrizketa: Maite Arroitauregi	18:30 Guka 2	17:00 Jakiz jakin: trasformatuak
17:00 Albistek	19:45 Osoko bilkura: Bergara	17:30 Hemen Debagoiena
17:30 Adinberri 48	20:00 Galdegazte: Mirari Sagarazu	18:00 Osoko bilkura: Bergara
18:00 Hemen Debagoiena	21:00 Hemen Debagoiena	19:00 Hala Bazan: Maritxu Kajoi
19:00 Parean pareko: Inon eta Aitor	22:00 Elkarrizketa: Maite Arroitauregi	19:30 Debagoiena eraldatzen
19:30 Debagoiena eraldatzen		20:00 Hemen Debagoiena
20:00 Hemen Debagoiena		
21:00 Galdegazte: Mirari Sagarazu		

ASTELEHENA, 3

ASTEBURUKO KIROL EMAITZEN ERREPASOA

'Harmailatik'

21:30/23:30

MARTITZENA, 4

GALDERA-ERANTZUNEN JOLASA


'Zirikatzen'

18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 4



ARGAZKILARIAXXXX

ELKARRIZKETA TARTEA ENEKO AZKARATEREKIN

'Harira'

21:30/23:30

EGUAZTENA, 5

AITOR BEDIAUNETARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21:30/23:30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ESKER ONA


Sabino Uriarte Bolinaga

2021eko apirilaren 22an hil zen, 85 urte zituela.

Emaztea: Arantza Markaide, Seme-alabak: Itziar eta Unai Juaristi, Elixabete eta Mikel Lasa, Jone. Bilobak: Kepa, Manex, Irati, Jon, Luken, Unax, Ander. Anai-arrebak: Imanol (+), Miren eta Isaac. Ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue. Gaur egungo egoera dela eta, hileta-elizkizuna aurrerago ospatuko da.

Arrasaten, 2021eko apirilaren 30ean.



ESKER ONA

Begoña Arana Gartziaetxabe

Jesus Darocaren alarguna


2021eko apirilaren 24an hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko apirilaren 30ean.



ESKER ONA




Mari Cruz Uriarte Elorza

Lucio Arregi Muruamendiaren alarguna

2021eko apirilaren 27an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko apirilaren 30ean.



ESKER ONA



Arantza Aiestaran Etxaniz

Jose Mari Astaburuagaren alarguna

2021eko apirilaren 23an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2021eko apirilaren 30ean.



ESKER ONA


Felix Biain Biain

Maria Luisa Galdosen alarguna

2021eko apirilaren 25ean hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2021eko apirilaren 30ean.



OROIGARRIA



Sebastian Aguirre Arechaga


2020ko maiatzaren 1ean hil zen, 88 urte zituela.

Beti izango zara gure artean.

Familiaren partetik.
Arrasaten, 2021eko apirilaren 30ean.



URTEURRENA




Carmelo Letona Ugarte

2020ko maiatzaren 2an hil zen, 80 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 2an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko senideen izenean.
Arrasaten, 2021eko apirilaren 30ean.



URTEURRENA



Teresita Fernandez de Arroyabe Pagoaga

Ignacio Aramburuzabalaren alarguna

2020ko apirilaren 28an hil zen, 93 urte zituela.

Seme-alabak: Juan Ignacio eta Nieves Velez, Maria Angeles. Bilobak: Eider, Izar eta Iñaki. Birbiloba: Elaia. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak. Haren arimaren alde oitoz bat eskatzen dizuete.

Ama, amama, birramama: nabaria da zure falta. Zure oroitzapenak betetzen digu bihotza. Betirako gelditu zaigu zure argia.

Eskoriatzan, 2021eko apirilaren 30ean.
Egungo egoera pasatu eta gero urteurreneko meza zehaztuko da.



OROIGARRIA

Jesus Mari Ezkurra Pagoaga

2021eko apirilaren 27an hil zen.

Gogoan izango zaitugu. Besarkada bat familiari une honetan.



Irantsube elkarte.
Arrasaten, 2021eko apirilaren 30ean.



GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 30	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Zapatua, 1	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Domeka, 2	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 3	ESPANOL: MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Martitzena, 4	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguaztena, 5	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Eguena, 6	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 30	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 1	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 2	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 3	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 4	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 5	URRITIKOETXEA: Orizondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 6	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 30	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 1	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 2	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 3	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 4	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 5	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 6	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2021eko abuztuaren 15era arte:
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

BERGARA GAUZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2021 osoan:
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Eskerri ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guregan izan duzun konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Bergara ezagutzen

Mariaren Lagundiak antolatutako ibilaldian 26 lagunek parte hartu zuten: Agorrosin-Madura-Moiua kalea-Goiko estazioa-Murinondo-Ernai-Agorrosin.

2. Kantuan eta dantzan

Go!azen telesailiko aktoreak Arrasateko amaia antzokian egon ziren. Abesteaz eta kantatzeaz gain, telesailari buruzko kontuak kontatu zizkieten neska-mutikoei.

3. CAF-Elhuyar saria

Ainara Sangroniz Agudo elgetarrak jaso du doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikulu onenaren saria. 2.000 euro eta Andonegiren eskultura jaso ditu.

5. Bihar ezkontuko dira

Miren Zubizarreta eta Javi Navarrete bihar ezkontuko dira, Oñatin. "Zorionak, bikote! Primeran pasa eta segi zuen irribarrearekin Mallabiako txokoak alaitzen. Muxu bat!".

5. Ludoteka ibiltaria

Osintxuko bizilagun gazteenek Jardunen ludoteka ibiltariaz gozatu zuten aurreko zapatuan. Eguraldia lagun, askotariko eskulanak egin zituzten auzoko plazan.


6. 59 urte ezkontuta

Garbiñe Gaztañaga eta Luis Mari Beitia aretxabaletarrak ospakizunetan daude. "Errekorrak apurtzen! Ederto ospatu, gurekin. Maitasunez, zuen seme-alabak eta suhia".

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Itsaso Ginart Velez de Mendizabal
Maiatzaren 6an, 4 urte. Handitzen-handitzen!
Zorionak politx hori. Ondo-ondo ospatu egun handi hau!
Asko maite zaitugu! Muxu pila bat familia osoaren partetik!




BERGARA
Egoitz Uribealago Uzin
Maiatzaren 4an, 3 urte. Zorionak, maitia! Egun polita pasatuko dugu. Zorionak familia osoaren partetik. Batez ere aitaxo, amatxo eta Amets. Patxo potolo bat



OÑATI
Unai Bellido Gonzalez
Maiatzaren 3an, 12 urte. Zorionak, txabalote! Primeran pasatu zure eguna. Asko maite zaitugu. Muxu handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Hodei Bolibar Sanchez
Maiatzaren 3an, 7 urte. Zorionak, Hodei! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Besarkada eta patxo handi-handi bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Zuhaitz Jauregi Setien
Maiatzaren 1ean, 4 urte. Zorionak familia osoaren partetik. Egun on-ona pasatu. Musu handi bat denon partetik.



ARRASATE
June Dominguez Garai
Apirilaren 30ean, 11 urte. Zorionak, politx hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo pila bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Julen Percy Bidaburu
Apirilaren 30ean, 3 urte. Zorionak, bihotza! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta, amamaren eta aitxaitxaren patxuak jaso. Zorionak etxeko guztion partetik.



OÑATI
Lur Retolaza Agirre
Apirilaren 29an, urtebete. Zorionak, txapeldun! Oso ondo ospatu zure eguna. Patxo handi bat danon partetik.



ARETXABALETA
Inder Arando Iturbe
Apirilaren 29an, 11 urte. Zorionak, Inder! Ondo pasatu eguna, familiaren partetik.




OÑATI
Maia Igartua Zubia
Apirilaren 28an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ze handi in zarien ja... Ondo-ondo pasatu zure eguna eta segi gure bizitza poztan! Asko maite zaitugu danok!



OÑATI
Ihbar Agirrezabal Maiztegi
Apirilaren 27an, 4 urte. Zorionak, Ihbar! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo eta besarkada handi bat etxekoen eta, batez be, Jonen partetik. Asko maite zaitugu, txapeldun!



ARAMAIO
Ilare Agirre Errasti
Apirilaren 27an, 6 urte. Zorionak, ilare! Zelako azkar pasatu dien sei urte zure onduen! Asko guretzau!



ELGETA
Haizea Agirre Osa
Apirilaren 27an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, Haizea! Patxo handi bat familixa danaren partetik. Bost urte, neska handi. Txapeldun!



OÑATI
Laia Zurutuza Garcia de Albeniz
Apirilaren 27an, 6 urte. Zorionak, Laia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat etxeko danon partetik!




OÑATI
Itsasne Lizarralde
Apirilaren 26an, 10 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo eta besarkada handi bat etxekoen, eta bereziki, Etxahunen partetik.



BERGARA
Irati Urigoitia
Apirilaren 26an, 13 urte. Zorionak, Irati! Zure aita Lander, ama Ana, anaia Endika, lehengusu Luzia eta Eder, Karlos eta Luis aitteittek, amama Enkarna eta beste senideak.



ARETXABALETA
Aimar Akizu Zabala
Apirilaren 25ean, 9 urte. Zorionak, Aimar! Edero ospatu zure urtebetetze eguna eta segi horrelako mutil jator eta alai izaten! Asko maite zaitugu!



OÑATI
Eneritz Gereñu Arregi
Apirilaren 24an, 13 urte. Zorionak, Eneritz! Ondo ospatu zure eguna eta muxu handi bat familixa danaren partetik.




BERGARA
Aiora Unamuno Lete
Apirilaren 23an, 8 urte. Zorionak, maitxia! Azkenian ailegatu da zure eguna.. Patxo mordua danon partetik. Asko maite zaitugu.



BERGARA
Hodei Ibarra Sasiain
Apirilaren 23an, 7 urte. Zorionak, Hodei! Ondo pasatu egun berezi hau eta disfrutatu beti bezela! Besarkada handi bat!



ARRASATE
Enara eta Rafa
Apirilaren 23an, Enarak 3 urte. Zorionak, *bixito!* Hiru urtetxo gure bizitzak zoriontasunaz betetzen. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Zorionak aitaxori ere! 24an, 40 urtetxo! Maite zaituztegu! Mua!



ARETXABALETA
Laura Igartua Vazquez
Apirilaren 22an, 20 urte. Zorionak politx hori! 20 muxu potolo, zuk hain goxo zaintzen dittuzun lagunen partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Iraia Arregi Orueta
Apirilaren 21ean, 13 urte. Zorionak, *guapa!* Ahal dan neurixan ospatu, baina tope! Patzar bana etxekuen eta, bereziki, Aiantzeren eta Aneren partetik. Mua!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrrak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 30

ARETXABALETA 'Marrazkiak' erakusketa: gaur da azken eguna

Irati Garitaonandiaren lanak ikusteko eta erosteko aukera. Batutako diruarekin aulki berria erosiko du aramaioarrak. *Arkupen, 11:00etan.*

BERGARA Eriz magoa

Auskalo ikuskizuna egingo du. Sarrerak, lau euro. *Seminarixoan, 18:00etan.*

BERGARA 'Tubacex borrokan' hitzaldia

LAB sindikatuaren eskutik, Maiatzaren 1aren harira. *Gaztetxean, 18:00etan.*

OÑATI 'Migraaaantes' antzezlana

Mundu hobe bat amesten duten milioika pertsonaren garrasia islatzen duen lana. Sarrera 10 euro. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

ESKORIATZA 'Alex Txikon' dokumentala

Mundu bat motxilan liburuan oinarritutako ikus-entzunezkoa. Alex Txikon eta Unai Ormaetxea egongo dira ekitaldian. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Hitz-arteak' ikuskizuna

Jokin Mitxelena ilustratzaileak hainbat idazle aretxabaletarren hitzak arte bihurtuko ditu. *Zaraia aretoan, 19:00etan.*

ZAPATUA 1

BERGARA 'Oilar bat dago zure teilatuan' antzezlana

Titiriguri taldearen lana, umeendako. 2016ko Tolosako Nazioarteko Txotxongilo jaialdian umeendako lan onena izan zen, Sarrerak, lau euro. *Seminarixoan, 18:00etan.*

BERGARA M1: manifestazioa

Kontseilu Sozialista Deba Bailarak antolatuta. *San Martin plazan, 18:30etan.*

BERGARA Manifestazioa

LAB sindikatuaren eskutik, Langileen Nazioarteko Egunaren harira. *San Martin plazan, 20:00etan.*

DOMEKA 2

BERGARA Jaietako zapi lehiaketa: gaur da lanak bidaltzeko azken eguna

Marrazkiak eta esaldiak *jardun@topagunea.com* helbidea bidali behar dira.. *Jardunen.*

BERGARA 'Lazkano. Bitakora koadernoak' erakusketa

Jesus Mari Lazkanoren hamaika lan ikusteko aukera, hilaren 23ra arte. *Aroztegin, 12:00etatik 14:00etara.*

ARETXABALETA 'Antonia' antzezlana

Javier Liñera eta Ekoma Teatroyen eskutik. Memoria galtzear dagoen idazle baten bizipenak kontatzen dituen lana. Sarrerak, lau euro. *Arkupen, 19:00etan.*

ASTELEHENA 3

ARRASATE Odola emateko deia Irekia. Orduetgia: 09:30-13:00 eta 16:30-20:00.. *Laubide plazan, 09:30ean.*

ARRASATAE 'Bookface' lehiaketa

Liburuaren Egunaren harira. Lanak aurkezteko azken eguna, maiatzaren 9a, *kulturate@arrasate.eus* helbidera bidalita. *San Martin plazan, 12:00etan.*

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*



COMPANIA JOVEN PABELLON 6

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 20:00etan.*

ARRASATE 'Granito Buffet. Vagabundos pirenaicos' ikus-entzunezkoa

Iñigo Iruretagoienak eta Iban Roucok Pirinioetako 214 hirumilakoak igotzeko egindako bidaiaren laburpena jasotzen duen lana. Edukiera mugatua. *Kulturaten, 18:00etan.*

MARTITZENA 4

ESKORIATZA 'Nola esango diot?' tailerra

4-8 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoendako, Ainhoa Lasak gidatuta. Aurrez eman behar zen izena. *Kultura etxean, 14:15ean.*

ARRASATE 'COVID-19aren prebentzioa' hitzaldia

Osakidetzako erizain Jose Ramon Bardecik eta Debagoieneko txertoen arduradun Rosa Domingok egingo dute berba. *Kulturaten, 17:30ean.*

BERGARA 'Jolas librea naturan' hitzaldia

Huhezik irakasle Iñaki Larreak egingo du berba, Mariaren Lagundiak gonbidatuta. Hitzaldia, aurrez aurre eta online. Izena emateko: 943-76 25 40. *Mariaren Lagundian, 18:00etan.*

ARAMAIO '5G, osasuna eta elektromagnetismoa' hitzaldia

Asier Arregik egingo du berba Lorabari Astearen baitan. *Kultura etxean, 18:30ean.*

ARRASATE 'Natura bizia' dokumentala

Lexeia Larrañagaren lana ikusteko aukera. *Amaia antzokian, 19:00etan.*

EGUAZTENA 5

ELGETA Garbigune ibiltaria

10:00etatik 21:00etara. *Salbador kaleko plazatxoan.*

ARETXABALETA 'Hizkuntza indigenak. Ama Lurra zaintzen' erakusketa

EHUren Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedraren eta Garabide Elkartean arteko elkarlana. Ikusgai egongo da gaurtik hilaren 31ra arte. *Arkupen, 11:00etan.*

OÑATI 'Autodefentsa feminista' saiorako izen-ematea

Maitena Monroyk gidatuko du Jabetze Eskolaren baitako tailerra. Aurrez eman behar da izena, *Oñati.eus* atarian. Tailerra, hilaren 22an egingo dute. *Euskaldun Berria gelan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

OÑATI 'Migraaaantes' antzezlana

Mundu hobe bat amesten duten milioika pertsonaren garrasia islatzen du. Sarrerak, hamar euro. *Gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

BERGARA 'Arroz urez' liburuaren aurkezpena, eta solasaldia

Mikel Antza egileak parte hartuko du, Urko Aiertzarekin batera. *Olaso dorrean, 18:30ean.*

ARAMAIO 'Gaitasunen eta dohainen ekonomia' hitzaldia

Nekane Juradok egingo du berba, Lorabari Astearen baitan. *Kultura etxean, 18:30ean.*

BERGARA 'Las niñas' pelikula, zineklubean

Jatorrizko bertsioan, azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 18:30ean.*

EGUENA 6

OÑATI Traste zaharren bilketa eta garbigune ibiltaria

Zerbitzu biak emango dituzte 10:30etik 21:00etara. *Olakua auzoan.*

ARRASATE 'Zeintzuk dira nire alaba-semearen erreferentzia gune eta pertsonak espazio digitalean?' hitzaldia

12-18 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako: Jokin Zaitegi gelan euskaraz eta areto nagusian gaztelerez. *Kulturaten, 17:30ean.*

ESKORIATZA Literatura solasaldia

Leire Ibarguren idazlearen *Laura esaten zioten* liburuaren gaineko



TITIRIGUIRI

BERGARA 'Oilar bat dago zure teilatuan' antzezlan

Titirigui taldearen lana, umeendako. 2016ko Tolosako Nazioarteko Txotxongilo jaialdian umeendako lan onenaren saria jaso zuen. Sarrerak, lau euro, *Seminarixoa.eus* atarian. **Gaur, egubakoitza, Seminarixoan, 18:00etan.**

saioa, Mikel Antzak gidatuta. Aurrez eman behar da izena, *biblioteca@eskoriata.eus* helbidean. **Kultura etxean, 18:00etan.**

EGUBAKOITZA 7**ARRASATE 'Izaki bereziak' txotxongilo emanaldia**

Liburuaren Egunaren harira, helduendako emanaldia. Roberto Whitek, hitzik gabeko ikuskizunean, mimoen lengoia eta objektuen antzerkia nahasten ditu. Gizakiaren gorputz atalak eta animaliak irudikatuko ditu. **Amaia antzokian, 19:00etan.**

ARETXABAETA Bertso saioa

Oihana Arana, Martin Abarrategi, Beñat Lizaso eta Nerea Ibarzabal gonbidatu ditu Lekaixoka bertso eskolak, Aitor Lizarazuk proposatutako gai erantzuteko. Sarrerak, hiru euro. Zاراia aretoan, 17:30ean.

ZAPATUA 8**ARRASATE Udalatxera igoera, Sarek deituta**

Kepa Arronategi presoak etxean egon beharko lukeela aldarrikatu ostean, igoera hasiko dute. **Aita Menni ospitalean, 09:00etan.**

ARRASATE Kurtzetxikira igoera, Sarek deituta

Biterin elkartuko dira. **Biteri plazan, 10:30ean.**

BERGARA Bigarren eskuko azoka

Bigarren goz egingo dute. **Osintxuko plazan, 10:00etan.**

OÑATI Ludoteka ibiltaria

Aurreko saioetako partaideek proposatutako ekintzak egingo dituzte, San Migel Txiki jaien barruan. 3 eta 8 urte arteko umeek har dezakete parte. **Ludotekan, 11:00etan.**

ARAMAIO Lorabarri Azoka

Bigarren eskuko azoka eta Aramaioko ekoizleen produktuak salgai egongo dira **Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etatik 14:00etara.**

ARRASATE Ludoteka ibiltaria, Erguinen

3-12 urte artekoendako. Aurrez eman behar zen izena. **Itxaropena plazan, 11:30ean.**

OÑATI Igeriketa txapelketa

Igerileku berrian egingo den lehen. **Zubikoan, 15:30ean.**

BERGARA Ezpalak taldea

Kolpatu. Topatu diskoaren aurkezpena. Sarrerak, zortzi euro. **Seminarixoan, 19:00etan.**

ESKORIATZA 'Dardara' dokumentala

Marina Lameirok Berri Txarrak taldearen agurreko biran grabatutakoa. Sarrerak, hiru euro. **Zaldibar antzokian, 19:00etan.**

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Minari. Historia de mi familia
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:00.

Ups 2
Zapatua eta domeka: 16:00.

BERGARA**SEMINARIXOA**

Natura bizia
Domeka eta astelehena: 18:30.

Tom eta Jerry
Domeka: 16:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Los Estados Unidos contra Billie Holiday
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

EIBAR**COLISEO**

Cronica de una tormenta
Zapatua: 16:00.
Domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00.

Una joven prometedora

Zapatua: 19:00.
Domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00.

ANTZOKIA

Chaos walking
Domeka eta astelehena: 19:00.

GASTEIZ**BOULEVARD**

El señor de los anillos
Egubakoitza: 16:30.

Egunero, martitena izan ezik: 17:30.

Chaos walking
Egunero, martitena izan ezik: 16:10, 18:30.
Martitena: 18:30.

Earwing y la bruja
Egubakoitzetik domekara: 16:15, 18:15.

Astelehenera eguenera: 17:00.

Nadie
Martitena: 17:00.

La sra. Tomasa
Eguena: 19:00.

Guardianes de la noche

Egunero: 18:00.

Peninsula

Egunero, eguena izan ezik: 18:15.

Nomadland

Egunero, martitena izan ezik: 18:25.

Una joven prometedora

Egunero, egubakoitza eta martitena izan ezik: 18:40.
Martitena: 18:40.

Otra ronda

Astelehena, eguaztena eta eguena: 18:45.

Mortal Kombat

Egubakoitzetik domekara: 16:20.
Egunero: 18:40.

Godzilla vs Kong

Egubakoitzetik domekara: 16:00.
Egunero: 18:30.

Tom & Jerry

Egubakoitzetik domekara: 16:00.

Ups!

Egubakoitzetik domekara: 16:40.

Monster hunter

Egubakoitzetik domekara: 16:15.

Ruega por nosotros

Egubakoitzetik domekara: 16:00.

GORBEIA

Nomadland
Egunero, domeka izan ezik: 19:10.
Domeka: 12:00, 19:10.

Tom & Jerry
Egunero, domeka izan ezik: 17:05.
Domeka: 12:00, 17:05.

Godzilla vs Kong
Egubakoitzetik domekara: 19:05.
Astelehenera eguenera: 17:00.

Otra ronda

Egunero: 19:00.

Mortal Kombat

Egunero: 19:05.

Una joven prometedora
Egunero: 19:00.

Peninsula
Egunero: 17:00.

El señor de los anillos
Egunero: 17:55.

Police

Egunero, domeka

izan ezik: 19:20.
Domeka: 12:00, 19:20.

Earwing y la bruja

Egubakoitza eta zapatua: 17:20.
Domeka: 12:00, 17:20.

Nadie
Egunero, domeka izan ezik: 17:05, 19:25.
Domeka: 12:00, 17:05, 19:25.

Chaos walking
Egunero, domeka izan ezik: 17:00, 19:10.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:10.

Capitan diente de sable y el diamante magico
Egubakoitza eta zapatua: 17:20.
Domeka: 12:00, 17:20.

Otra ronda
Egunero: 19:00.

Guardianes de la noche
Egunero, domeka izan ezik: 17:05.
Domeka: 12:00, 17:05.

Minari. Historia de mi familia
Egunero: 16:45.

Los Croods: una nueva era
Domeka: 12:00.

FLORIDA**Raya y el ultimo dragon**

Egubakoitza, eta astelehenera eguenera: 16:55.
Zapatua: 12:00, 16:55.
Domeka: 12:00.

Nomadland
Egubakoitza, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:10.

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:10.
Martitena: 19:10.

Tom y Jerry
Zapatua eta domeka: 12:00.

Otra ronda
Egubakoitza eta zapatua: 19:05.
Domeka eta martitena: 16:50.

Astelehena, eguaztena eta eguena: 16:50, 19:05.

Natura bizia
Zapatua eta domeka: 12:00.

Una joven prometedora
Egunero: 19:05.

KRITIKA**Crock of gold ★★★★★**

Zuz.: Julian Temple. **Herr.:** Erresuma Batua (2020). **Mota:** Dokumentala. **Iraupena:** 124 minutu.

Erretratu sakona eta distiratsua**ANTONIO ZABALA**

Julien Temple zuzendariak urte asko darama musika eta zinema munduetan dokumentalak, bideoklipak eta fikziozko lanak egiten. 2020ko Donostia Zinemaldian epaimahaiaren sari nagusia lortu zuen *Crock of gold* lanarekin. Filma Shane MacGowan musikariari buruzko dokumentala da. Templek maisutasunez erabili eta nahasten ditu marrazki bizidunak, film klasikoaren irudiak, The Pogues taldearen kontzertuetako irudiak eta MacGowan buruzko argazkiak, eta artxiboko irudi pila bat. Horiek batera, gaur egun MacGowanekin izandako hainbat elkarrizketa agertzen dira, artistari buruzko erretratu sakona eta distiratsua egiteko. Musikariaren jatorria Irlanda zen. Ikusiko dugu Irlandak eta



familiak zuten lotura. Sentimendu horiek beti egongo dira berarekin. Ingalaterrara joan arren, atzean utzi duenaren herrimina sentituko du. Txikitatik alkohola edateko ohitura zuen. Geroago, droga kontsumitzen hasi zen. Eta, horri guztiorri, musika eta disko industriarekin izango duen harreman

korapilatsuak gehituko zaizkio: industriaren alde ilunenarekin egingo du topo.

Zuzendariak osagai horiek guztiak oso modu erakargarrian nahasten ditu, artistaren alderdi guztiak azaltzeko. Baina dokumentala luzeegia dela esango nuke, eta une batzuetan errepikakor egiten da.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Aldarrikapen bat Maiatzaren 1erako

Bihar da Maiatzaren Lehena: Langileen Nazioarteko Eguna. Langile klasearen eguna, zehazki, eta, honen harira, azken bi hilabeteetan buruan bueltaka darabildan aldarrikapen bat ekarri nahi dut zutabera. Azken urteetan, Martxoaren 8ari *langile* hitza kendu diogu. Jada ez da Emakume Langileen Nazioarteko Eguna, Emakumeen Eguna da, kito.

Aitortuko dut minduta nagoela honekin. Emakumeon zapalkuntza eta sistema patriarkala kapitalismoaren beste tresna bat dira. Irauteko beharrezkoak eta ezinbestekoak dituen tresnak. Bere interesak defendatzeko sortutako zapalkuntza da emakumeon kontrakoa eta horri muzin egin eta besterik gabe emakumeen nazioarteko eguna dela esateak borroka feminista desitxuratzeko du guztiz. Larunbatean klase-diskurtsoak gailenduko dira kaleetan. Nire aldarrikapena Martxoaren 8ari klase-izaera aitortzea da, eta jatorrian zeukan langile izaera berreskuratzea.

Ez dakit zeren mesedetan galdu dugun izaera eta gure askapenean mesederik egiten ez dugun galera.

BUKATZEKO



Aramaion martitzenean egin zuten ekitaldia. R. M.



Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako ikasleak. GOIENA



Antzuolara domekan heldu zen Kutxa Bira. GOIENA

Itsasoaren bestaldetik Euskal Herrira biran

Iparra Hegoak elkarteak antolatu duen eta euskara ardatz daukan Kutxa Bira ekimena Argentinako Viedma herrian abiatu zuten, martxoaren 20an, eta maiatzaren 30ean borobilduko dute ibilbidea, Seguran; Antzuolan, Aretxabaletan eta Aramaion izan da

Aitziber Aranburuzabala ARAMAIO Segurako Elorri Elkartearen kideek eta Iparraldeko hainbat lagunek osatzen dute Iparra Hegoa elkarte. Udaberri guztietan antolatu izan dituzten ekintzak, eta *Bizi gira... Kutxa bira* izeneko proposatu dute aurten. Pandemiaren eraginez euskararen aldeko hainbat egitasmo –Korrika, Herri Urrats, Nafarroa Oinez...– bertan behera geratu direla eta, kezka horretatik abiatuta proposatu du elkarteak. "Neurri baten", hutsune horiek estaltzea da *Bizi gira... Kutxa bira* ekimenarekin duten asmoa.

Hilabete pasako iraupena duen ibilaldiak diasporako eta hainbat euskal herri batuko ditu; Argentinan martxoaren 20an abiatu zuten, eta, 70 herritatik igaro ondoren –Debagoienan hiru geldialdi egin ditu, Antzuolan, Aretxabaletan eta Aramaion–, Seguraraino iritsiko da maiatzaren 30ean.

Kutxan, mezu ugari

Egurrezko kutxa bat du ekimenak oinarri, eta euskara, kultura eta lurraldetasuna eta beste-lako hamaika aldarri batzen ari dira bertan. Amets Arzallus

bertsolariak idatzitako mezua daruma kutxak hasieratik eta beste hainbat mezu batu dizkio-te dagoeneko herriz herri.

Antzuolan domekan izan zen

Urretxu-Zumarragatik heldu zen Kutxa Bira Debagoienara, Antzuolara, hain zuzen ere, domeka eguerdian. Torresoroa pareko muralaren aurrean aureskua dantzatu, eta herriko mezua irakurri zuten gero. Ramuntxo Christyk egin duen bertsoa da, Kabalkadako kantuaren doinu bera duena, eta bi herrien –Antzuola eta Aiherra– arteko el-

karlana eta urteetako konpromisoa ditu ardatz. Ondoren, herritarren mezuak sartu zituzten Legazpirako bidea hartu zuten kutxan.

Legazpitik Aretxabaletara

Astelehenean heldu zen berriz ere kutxa eskualdera, Aretxabaletan egin zuen geldialdia. Kurtzebarri eskolako ikasleek eta irakasleek egin zioten harreka goizean eta herritar guztientzako ekitaldia izan zen Herriko Plazan arratsaldean. Leizarra musika eskolako dantzariak egin zioten ongiatorria, eta ondoren, Errefortzu Taldeko umeek Arzallusen manifestua irakurri eta herritarrek euren ametsak kutxan sartu zituzten.

Aramaion martitzenean

San Prudentzio bezpera izanda, erretiretaren egin zioten kutxari ongiatorria San Martin eskolako neska-mutikoen. Arratsaldean, eskolako kutxa parkera jaitsi zuten, eurenak moduan aramaioar guztien aldarriak eta ametsak bertan sartzeko.

ai arizmendi
ikastola PRO

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

ATE IREKIAK ONLINE



943 77 20 25 • www.arizmendipro.eus/eu/ate-irekiak/ • arizmendi@arizmendi.eus

Zure Lanerako Bidea

Maiatzak 4

- GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOAREN IRAKASKUNTZA
- MIKROINFORMATIKA

18:00etan

Maiatzak 5

- ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK
- OSASUN LARRIALDIAK

18:00etan